



*eus*  
**Jakin 231**

herria kultura hizkuntza martxoa-apirila  
2019

# Bertsoari neurria hartzen

Kulturgintzari begiratzeko betaurreko  
berriak. Bertsolaritzatik ikasten  
HARKAITZ ZUBIRI

Hutsuneak du hitza  
JONE M. HERNÁNDEZ GARCÍA

Mahai ingurua: Miren Amuriza,  
Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio  
MIREN RUBIO ITURRIA

**EGUNEN GURPILEAN**  
ITZIAR UGARTE · JAIME ALTUNA  
ALBA GARMENDIA

**Jakin**<sup>•eus</sup>**231**  
herria kultura hizkuntza martxoa-apirila  
2019



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

#### LEHENDAKARIA

Joan Mari Torreal dai

#### OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

#### ZUZENDARIA

Lorea Agirre

#### ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

#### KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,  
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,  
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,  
Joan Mari Torreal dai, Eguzki Urteaga

#### IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea / Gudarien etorbidea, 29 / 20140 Andoain

Tel. 943 21 80 92

[jakin@jakin.eus](mailto:jakin@jakin.eus)

[www.jakin.eus](http://www.jakin.eus)



Gipuzkoako Foru Aldundia

*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza  
Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X  
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

## SUMMARY

### 5

## ZUZENDARIAREN HITZAK

### 7

## GAI NAGUSIA Bertsoari neurria hartzen

- 11** Kulturgintzari begiratzeko betaurreko berriak.  
Bertsolaritzatik ikasten  
Harkaitz Zubiri

Kulturgintzan erabiltzen dugun ikuspegia doitzea proposatzen da. Ekoizpen artistikoa eta hedapena ahaztu gabe, funtsezko beste alderdi batzuk ere erdigunean jartzea iradokitzen da: proiektu soziokulturala, sozializazio guneak eta artikulazioak, nagusiki. Bertsolaritzan ondo funtzionatzen ari da.

- 39** Hutsuneak du hitza  
Jone M. Hernández García

Emakume bertsolariak azken hamarkadetan egiten ari diren ekarpenen ildotik, bertsolaritza moldatu baino birdefinitu beharraz gogoetatzen da.

## **59** Bertsoari neurria hartzen

Miren Amuriza, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio

### **Miren Rubio Iturria**

Hiru belaunaldiren ordezkari, *Bertsolaritzaren azterketa soziologikoa 2015-2018* ikerketako emaitzak aletu dituzte Miren Amuriza (Berriz, 1990), Andoni Egaña (Zarautz, 1961) eta Maialen Lujanbio (Hernani, 1976) bertsolariek. Datuen atzean dagoenaz hausnartu dute, eta, norbere bizipenekin erkatuz, bertsolaritzaren etorkizunari begira ipini dira. Ikerketaz gain, Uxue Alberdi bertsolari eta idazleak *Kontrako eztaarritik* liburuan jasotako hamabost emakume bertsolariren lekukotzek ere zeharkatu dute solasaldia.

## EGUNEN GURPILEAN

### **99** Kultura

Itziar Ugarte

### **105** Soziolinguistika

Jaime Altuna

### **111** Glokalia

Alba Garmendia

## KONTRAZALA Unai Iturriaga

## WEIGHING UP *BERTSO* (VERSE IMPROVISATION)

### A new angle for viewing cultural activity. Learning from verse improvisation

The sociologist Harkaitz Zubiri proposes adjusting the way of viewing that has far been applied in the sphere of cultural activity. Without overlooking the production and dissemination of culture, he suggests focusing on other key aspects, mainly the socio-cultural project, areas of socialisation and articulation. This is something which, according to the author, is working well within the world of verse improvisation. [Harkaitz Zubiri](#)

### The gap takes the floor

The anthropologist Jone M. Hernández García reflects on the need to redefine verse improvisation through the contributions that have been made by female *bertsolaris* (verse improvisors) in recent decades. [Jone M. Hernández García](#)

### Weighing up *bertso*. Miren Amuriza, Andoni Egaña and Maialen Lujanbio

Representatives of three generations, *bertsolaris* Miren Amuriza (Berriz, 1990), Andoni Egaña (Zarautz, 1961) and Maialen Lujanbio (Hernani, 1976) reflect on the results obtained from the *Sociological Analysis of Bertsolaritza (Verse Improvisation) 2015-2018* at a round table discussion moderated by the journalist Miren Rubio Iturria. Weighing up data obtained from the research using their own personal experience, they look towards the future of verse improvisation. Beyond the results obtained from the aforementioned research, the testimonies of fifteen female *bertsolaris* gathered by Uxue Alberdi in the book *Kontrako ezta-rritik* form an integral part of the conversation. [Miren Rubio Iturria](#)

### News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic and globalization matters. This section draws on various specialists: Itziar Ugarte, Jaime Altuna and Alba Garmendia.

### Various authors

**B**ertoari neurria hartu nahi izan diogu bertso munduan azken urteetan aldaketa esanguratsu eta sakonak gertatzen ari direlako, eta bereziki bertsolaritza (ere) badelako euskal gizarte eta kultura ulertzeko ispilu, eta, horrenbestez, pentsa genezake, baita gizarte eta kultur aldaketetan eragile ere. Eta horregatik osatu dugu bertsolaritzaren bueltako monografia hau. Iaz Bertsozale Elkarteak, Harkaitz Zubiri eta Xabier Aierdi soziologoaren eskutik, burututako ikerketa soziologikoa hartu dugu abiapuntu.

Zubirik ikerketaren gainean egin duen artikuluan, bertsolaritza soilik kultur sorkuntza eta jarduera gisa ulertu beharrean, gizarte mugimendu gisa definitu du, eta, horregatik, kontsumoa, hartzaile pasiboa eta atomizazioa kontzeptuei sozializazioa, parte hartzea eta artikulazioa aurre jarri dizkie bertsolaritzaren ezaugarriak zerrendatzerakoan, eta horiei esker erdietsi duela bertsolaritzak erdietsi duen lekua. Eta, bide beretik, horiei jarraituz bermatu ahal izango duela etorkizuna. Ikerketak bi egiteko azpimarratzen ditu etorkizuneko bidea irekitzeko: emakumeen presentzia berdintasun planora ekartzean asmatzea eta gazte belaunaldiaren sarrera egoki bideratzea.

Bistan denez, azken ikerketa kualitatibo horren ondorioetako bat emakume bertsolarien presentziak ekarri duen egoera berri eta tentsionatua da, eta horregatik eskatu diogu Jone M. Hernández García antropologoari ikerketa hartu eta generoaren atalari begiratzeke.

Hernándezek mugimendu sozialaren paradigmaren egokitasuna berresten du bere artikuluan. Baina, baita gogorarazi ere orain artean bertsolaritzaren izaera eta praktika ikuspegi androzentriko batetik izan dela definitua, eta «garaia dela izaera eta praktika hori biratzeko eta bere atzealdea ikusarazteko», genero-tentsioak kontuan hartzeko, alegia. Esan beharrekoa da, atzealdea ikusarazte horretan, hamabost emakume bertsolarien bizipenak jasota, itu-itan jotzen duela Uxue Alberdik berriki kaleratu duen *Kontrako eztaarrik* liburu mugarriak (Lisipe, Susa, 2019), eta, aldez edo moldez, JAKINEN monografiko honen gainean hegan dabilela.

Hernándezek dio emakumeen absentsia presentzia gisa eraikia izan dela, hustasunaren presentzia gisa, 1432an profazadore haiei



publikoan kantatzea galarazi zitzaien unetik. Aipagarri da, Miren Amuriza, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbioren arteko mahai-inguruan, Lujanbiok nola aipatzen duen 'hustasun' horrek sortzen duen betekada sentsazioa, «emakumeak markatuta gaude eta asko okupatzen dugu», benetan gutxi okupatuagatik (lautik bat baino ez da emakumezkoa bertsolarien artean, ikerketaren zenbakiak diotenez). Hiru bertsolariek, nor bere buruaren baina baita ibilbide kolektibo banaren ordezkariatzat ere hartuta, ikerketak jalgitako zenbaki eta ondorioak euren bertso jarduera eta pentsamendutik igaro dituzte, teoriari bizipena jarriz, hitzari gorputza.

Gorputzean jarri du begirada Unai Iturriagak ere kontrazalean, lautik bateko emakume gorputzak lehen neutro zen gorputza orain gatazka eremu bihurtu duena.

*Egunen gurpilean* sailean, Jaime Altunak libertimendu abiatu berrien gaineko gogoeta egiten digu; Alba Garmendiak, berriz, kolonialismoaren ajeak dakarzkigu; eta, Itziar Ugartek, besteak beste, kultur politikez ari dela, hauxe ondorioztatzen du: horien atzean 'anaidia' (gizonen arteko aliantza idatzi gabea, Carole Patemanek *Kontratu sexuala* liburuan jasotzen duen adieran) dela denik eta kultur politika irmoenetako bat.

## BERTSOARI NEURRIA HARTZEN

**11** Kulturgintzari begiratzeko betaurreko berriak. Bertsolaritzatik ikasten  
Harkaitz Zubiri

**39** Hutsuneak du hitza  
Jone M. Hernández García

**59** Bertsoari neurria hartzen  
Miren Amuriza, Andoni Egaña eta  
Maialen Lujanbio  
Miren Rubio Iturria

# Kulturgintzari begiratzeko betaurreko berriak. Bertsolaritzatik ikasten

Harkaitz Zubiri

*UPV/EHUko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika  
Saileko irakaslea*

## Titiriteroen lana

Bi urte zeramatzan Erresuma Batuko lehen ministro lanetan. Agintaldiaren errepassoa egiteko asmoz, elkarrizketa bat eskaini zion *The Sunday Times* egunkariari. Kazetariak etengabe galdetu zion ekonomiari buruz, garai hartan bizi zituzten gatazken muina aztertu nahian edo. Baina, azkenerako, mezuen anabساتik ihesi, Margaret Thatcher-ek bere zeregina argi utzi nahi izan zuen: «Ekonomia metodoa besterik ez da; helburu nagusia bihotzak eta arimak aldatzea da» (Butt 1979). Erdi ezkutuan dagoen sekretu bat begi-bistan uztea da hori.

Izan ere, 'arimak' nahiko moldagarriak dira. Arimak, edo nahi duzuen bezala deitu: mundu ikuskerak, emozioak, sentimenduak, desirak, arrazoibideak, espektatibak, ametsak...

Hitzetan hezurmamitzen dira horiek guztiak. Gure esaldietan hartzen dute ostatu. Eta handik aldatzen dituzte arimak. Margaret Atwood-ek (1981) poema batean esan zuen eran, «hitz bat beste baten ondoren/ beste baten ondoren boterea da». Hitzek eraikitzen duten esanahia benetako norgehiagoka

eremua da. Zein esaldi nagusituko dira? Zer interpretaziok lortuko du gailentzea?

Hizkuntzak gainpopulatuta daude (Bakhtin 1981, 1986), baita txikienak ere: demokrazia, jatorra, eraginkorra, maitasuna... Hitzek kostata hartzen dute guk eman nahiko geniekeen esanahia. Gainpopulatuta daudelako. Hizkuntzak inoiz ez du ispilu lana egiten, eta, era berean, kultur sorkuntzak inoiz ez du errealitatea islatzen. Fideltasun eta zintzotasun ahalegina eginda ere, pelikula bat, nobela bat, bertso bat, inoiz ez dira errealitatearen erreproduzio fikzionatua izango. Kultur sorkuntzak, batik bat, errealitateari begiratzeko ikuspegiak azaleratzen ditu. Kultur sorkuntzak interpretatu egiten du bizitza. Baina nork eta nola? Zure tamainako galtzerdia bezala sartuko zaizu batzuetan, edo traba egingo dizu, edo nazka emango, edo aspertu, edo begiak irekiko dizkizu, edo espero gabeko emozio bat kitzikatuko dizu, edo... eta aiez ale, arima alda dezake kultur sorkuntzak. Baina langintza horretan ez dago bakarrik, jakina. Arima aldatzaileen guda-lostea erraldoia da, gainpopulatuta dago.

Gainera, kultur sorkuntza arloko lan gutxik lortzen dute hori. Jendearengana iristen den kultura bakarrik da eraginkorra zentzu horretan. Jendearen larruazalera, burmuinera, sabelera, atxikitzen den kultur sorkuntzak bakarrik aldatzen ditu arimak. Gainerako guztia basoan inork ikusi gabe erortzen den zuhaitza bezalakoa da.

Jendearengana iristen den kultur sorkuntzaz ari garenean, ez gara apaingarriez ari, ez gara distintzio sozialerako kontsumoetz ari. Ur handiak dira. Titiriteroek ere mugiarazten dute mundua.

## **Ikuspegi apokaliptikoak**

Donostian 17. lineako autobusak egiten zuen ibilbidea izan zen urtetan nire hiriaren mapa. Bide horretan, Antxo Jaki-tunaren hiribidean, Rex zinema zegoen, eta, bertan, amarekin, *Zergatik panpox?* ikusi nuen, eta, aitarekin, *El Imperio*

*contraataca*, Star Wars-en bigarren filma, zeinetan Darth Vaderrek eskua luzatuz saga guztiko errebelazio harrigarriena egiten dion Luke Skywalkerri, ordura arte etsai besterik ez zirudienari: «Luke, zure aita naiz». Garbi dago Rex zinema familia barruko gatazketan espezializatuta zegoela.

Petit Casinora, 17. lineatik ez oso urrun, Alde Zaharreko Kale Nagusian, aitag eraman ninduen *La vida de Brian* ikustera, baina ez zidaten sartzen utzi, txikiegi nintzelako, eta Paco Bueno tabernara joan ginen pintxo bat jatera. Aitona-amonen etxera joaten nintzenero pasatzen nintzen Astoria aurretik, Pio XII.aren plazan zegoen zinemaren aurretik, eta behinola karteldegian ikusi nuen *Sexo, mentiras y cintas de video*. Adinagatik banekien ez zidatela sartzen utziko, baina harrezkero begiz jota izan nuen. Groseko Savoy zineman ikusi nuen *Momo*. Gogoan dut nola grisez jantzitako gizonei purua erre ahala agortzen zitzaien denbora. Amaia zineman, Getaria kalean, *Tras el corazón verde* ikusi nuen. Illunben, *Boys Don't Cry*. Bretxan, *Origen*.

Zinema areto horiei buruzko informazio bila nenbilela, Paseo Berriaren hasieran zegoen Miramar zinemaren argazki apokaliptiko xamar bat aurkitu nuen Interneten: eraikinaren parean hondeamakina hori bat ageri da, beso beltz luzea zerrurantz altxatuta, zinemaren sarreran euritik babesten duen atariko aterpea txikitzeaz. Argazki horrek laburbildu dezake behinola hainbeste jenderen heziketa sentimentalean eragin handia izan zuten zinema areto haien patua. Gaur egun bakar bat ere ez da existitzen. Garai batean pentsaezina zirudien, maiz inertziak gidatzen dituelako gure pentsamenduak (denak iraungo duela, nahiz eta badakigun ezetz).

Kontzientzia hori, argi gorri hori, inoiz baino presenteago izan beharko genuke gaur egun. Seigarren desagertze handia hasi da, zientzialariek esaten dutenez. Duela 444 milioi urte gertatu zen lehenengoa, Ordoviziarra. Duela 66 milioi urte bosgarrena, Kretazeokoa. Orain seigarrenaren hastapenetan gaude. Hurrengo zazpi hamarkadetan animalia espezieen erdia desagertu daiteke. Gure planeta, Lurra, oasi bat da

espazioaren bazter honetan. Oasi bat basamortuaren erdian. Uraren zikloek ahalbidetzen dute bizia. Berotu egin dugu lurra, zikloak azeleratu egin ditugu, eta horregatik gero eta lehorte gehiago, eurite gehiago, uholde gehiago...

Baina ez dira animaliak bakarrik desagertuko. Kulturak eta hizkuntzak ere desagertuko dira. Munduan diren 6.000 hizkuntzetatik %50-%90 artean desagertuko dira 2100. urterako (Unesco 2017). Ez da hondamendi naturala, jakina.

Ruper Ordorikak kantatzen duen zientzia-fikziozko poema batean, Joseba Sarrionandiak balizko etorkizun bat deskribatzen digu:

Zer geratuko da gerorako?  
Leku izenak agian,  
ez besterik: Ursouia, Itchasou,  
Irouleguy,  
Aussurucq eta Tchoko  
Maitia...  
Jendeak misterio aire batekin  
ahoskatuko ditu leku izenok...

Kanta zoragarria. Poema ederra. Baina ez gaitetzen apokaliptiko jarri. Oraindik ez behintzat. Hitz egin dezagun apokaliptiko ez jartzearen aldeko arrazoiei buruz.

## **Kontsumitzaileak kulturaren supermerkatuan?**

Kultura uholde bat da. Entzun izan dugu kulturak ez duela apenas lekurik gure bizitzetan. Baina ez da baieztapen oso zehatza. Kultura egunero, uneoro, zirrikitu guztietatik sartzen da gure bizitzetara. Kultur sorkuntza uholde bat da. Guk hura bilatu gabe aurkitzen gaitu, Despacito, eta gure bizitzak moldarazi egiten ditu, Killing Me Softly, eta guk hura erabiltzeko modua aurkitzen dugu, Say It Loud. Guk bizitza bizitzeko daukagun modua aldatu egiten du kultur sorkuntzak. Gure bizitza orain ezagutzen dugun moduan pentsaezina litzateke kultur sorkuntzak gudan duen eragina kontuan hartu gabe. Berdinak al lirateke gure ametsak? Maitatzeko daukagun

moduak? Nor desio dugun? Bizitzari begiratzeko ikuspegiak? Rock Radical Vascoa zure gaztaroaren soinu banda izan bazen, horrek markak uzten ditu. Ez Dok Amairuk? Trapak eta reggaetoiak? Indieak? Chuck Norris eta Steven Seagal zure kuttunak badira, *Fast & Furious* maite baduzu, *300* pelikula sekulakoa iruditu bazitzaizun, horrek markak uzten ditu. Zer gertatuko litzateke euskaratik eta euskaraz reggaetoiak egiten hasiko balira eta arrakastatsua izango balitz, garai batean protesta kantarekin eta punk-rockarekin gertatu zen bezala? Horrek markak utziko lituzke.

Gaur egun, kulturaren plaza globala da. Egunero jende askoren bizitzetatik pasatzen dira Beyoncé, Pharrell Williams, Taylor Swift eta Bruno Mars.

Kontatzen dizkiguten istorioak, geure buruari kontatzen dizkiogunak, munduari begiratzeko dauzkagun talaiak, plaza globalekoak dira; tarteka, globalak, nahi baduzue. *Tres metros sobre el cielo*. *Six Feet Under*. Meryl Streep, Brad Pitt eta beren pelikulak. Bideo-jokoak. Michel Houellebecq.

Margaret Atwood. Noah Gordon. Ken Follett. Kandinsky, Klee, Bauhaus, Warhol, IKEA. Madonna. Lady Gaga. Spotify. Youtube. HBO. Amazon. Netflix, etc.

Euskaraz egiten den kultura ere plaza globalaren testuinguruan egiten da. Kontsumitzaile gutxi izatearen seinaleak iristen zaizkigu maiz. JAKIN aldizkariaren 226. zenbakian Juanjo Allur Dorronsorok idatzi zuen artikuluan irakur daiteke liburuak edozein hizkuntzatan irakurtzen dituzten euskal herritarren kopurua %55,6koa dela, baina euskaraz irakurtzen dutenena %6,1ekoa (Allur Dorronsoro 2018). Pentsa liteke hizkuntzaren hiztun kopuru txikiagoa dela euskarazko irakurleen emaitzak murrizten dituen aldagai bakarra, baina ez, zeren euskaldunen artean liburuak euskaraz irakurtzen

Euskaraz egiten den kultura ere plaza globalaren testuinguruan egiten da. Kontsumitzaile gutxi izatearen seinaleak iristen zaizkigu maiz

dituztenen kopurua %22,9koa baita, ez %55 ingurukoa. Kausak ere iradokitzen ditu ikerketa horrek: erraztasuna eta ohitura. Datu horiekin irakurketa asko egin daitezke, ez soilik soziolinguistikoak, eta, beharbada, abiapuntu interesgarria izan daiteke hausnartzea ea ikuspegi egokietan oinarritzen ari garen.

Islandian ere kezkatuta daude: hamarkada honetan bikoiztu egin da azken hamabi hilabeteetan libururik irakurri ez dutenen kopurua; jadanik %13ra iritsi da. Kezkagarria da, ironiarik gabe. Euskal Herrian, zorionez, kopuru hori ez da okertu, egonkor mantentzen baita, baina, zoritxarrez, %43ren inguruan egonkortu da. Behar gorriari buruz ari gara.

Euskaraz egiten den kulturari buruz ari garenean, gure kexaren ikuspegia horrelako zerbait izan ohi da: kulturaren supermerkatuan ez gara ondo hedatzen ari, kontsumitzaileek ez dute ondo erantzuten, zabalkunde arazo bat daukagu. Konponbidea (1): gehiago inbertitu hedapenean, edo modu eraginkorragoan egin, edo horretan benetan sinetsi. Konponbidea (2): egiten ditugun kultur produktuak kontsumitzailearen beharretara hobeto egokitu. Nik balizko konponbide horietatik ondorioztatzen dut den-denek hobesten dutela kulturaren supermerkatuaren Monopolyra jokatzeari; hau da, erraldoiaren jokora jokatu dugu, haien kartekin, haien arauekin, nahiz eta gu ipotxak izan. Eraitza jakiteko ez da kristalezko bolarik behar.

Kultur adierazpide indartsuenak kulturaren transmisio kanal hegemonikoak erabiltzeko gai dira. Sozializazio gune askotara iristen dira horrela, eta sozializazio gune horietan zaletzen da jendea kultur produktu hegemonikoekin. Sozializazio gune horietako soinu banda dira. Sozializazio gune horiek ulertzeko pelikula kontaktzen dizute. Sozializazio gune horien estetika eraikitzen duten irudiak, objektuak, apaingarriak, osagarriak dira. Hegemoniatik. Sozializatzen zaren lekuan nagusitzen den soinu banda, mundua kontaktzeko era, estetika... horietara zaletuko zara baldin eta sozializatzen zaren leku horretan esperientzia erakargarriak



badauzkazu, eta are gehiago esperientzia horiek egokiak iruditzen bazaizkizu.

Joko zelai horretan kultur adierazpide txikienek kostata egingo dute lekua baldin eta hasieratik Monopolyaren jokora salto egiten badute. Gehienetan, ez beti, desagertu egingo dira, azukre koxkor bat kafesne pertza erraldoi batean bezala.

Kultur kontsumoaren paradigman ez dago konponbiderako aukera handirik. Kultura kontsumogai hutsa balitz bezala ulertzen da. Ondorioz, paradigma horren arabera, kontsumogaia ekoizletik hartzailera eramatea da erronka. Komunikazio arazo soila dirudi. Ez bada eraginkorra, produktuak huts egiten du, edo kanala ez da aproposa. Baina zer gertatuko litzateke arazoa ez balitz ez produktua eta ez kanala? Zer gertatuko litzateke arazoa paradigma bera balitz?

Kultura ez da kontsumogai hutsa. Gure bizitzen zentzua eraikitzeke oinarrizko tresna da. Langintza horretan ez dago bakarrik, jakina; baina, Paulo Freirek (2008) esan zuen bezala, ezin da herrialde sendorik/osasuntsurik/zoriontsurik eraiki kultura indartsurik gabe, halakorik egin ezin den bezala hezkuntza, zientzia eta teknologia indartsurik gabe. Jendearen ongizateaz ari da Freire. Gakoa ez da kulturak gure bizitzetan lekua izango duen edo ez. Gakoa da zer kultur adierazpidek egingo duen lan hori. Kultura globalari lekua egitea eta hura baliatzea oso aberasgarria izan daiteke, baina hurbilagoetik sortzen denari lekurik ez egitea kaltegarria da hutsune hori daukan jendearentzat (Hoggart 1957).

Beste arazo potolo bat ere sor dezake kultur kontsumoaren paradigmak, zeren hartzailea kontsumogaiak jasotzen dituen izaki pasibo bezala irudika baitaiteke; eta, egia esan, ez da oso errealista pentsatzea hartzaileak ez dituela bere posiziotik interpretatzen jasotzen dituen kultur produktuak; nola bestela? (Certeau 1988).

Beraz, kultura ez bada kontsumogai soila, eta, era berean, hartzaileari rol pasiboa esleitzea pertinentea ez bada, zein da bidea?

## Boom

Rock musika zabaltzen hasi zenean, musikaren amaiera zela sentitu zuten askok. Rock musikak erdigunean egoteari utzi dionean, ordezkoak (pop, hip-hop, electronic dance music, reggaettoa) eskasak eta baliogabeak direla sentitzen dute hainbat rock-zalek. Trap dosi bat jartzen duzunean (*e, Fermin, nola da?*), abestiak doinurik ez duela kexatzen dira asko. Egunen batean, reggaetoiaren belaunaldia zahartzen denean, orduan indartzen ariko den estiloa kritikatuko dute hainbatek: musika jadanik ez da garai batean izan zena, sentituko dute, gidaririk gabeko autoan gaztaroko bideoklipak aukeratzen ari diren bitartean. Beti egongo da erdigunea monopolizatzea gustuko duen jendea. Deserosoa zaie monopolioa galtzea. Eta gainera-kooi komeni zaigu horiek nondik ari diren hizketan ulertzea, adibidez bertsolaritza gainbehera datorrela esaten dutenean.

Xabier Aierdik bertsolaritza ikertzea lehen aldiz proposatu zidanean, 2005. urtean, hasiak ziren BEC momentuak ekoizten: 14.000 lagun goizetik gauera areto batean lerroka eserita, *a cappella* kantatzen duten zortzi inprobisatzaile begira, osatzen dituzten metrikadun bertso errimadunak adi entzuten, eta, halaber, bertso-saio hori jarraitzen ari ziren 100.000 lagun baino gehiago telebistan eta Interneten. Euskal Herriko parametro demografikoetan, azken 25 urteetan soilik hama-bi musika taldek edo bakarlarik lortu dute beren kontzertu batera 14.000 entzule baino gehiago erakartzea: Pink Floyd (1994), Donostiako Orfeoia (1997), Luciano Pavarotti (1998), Rolling Stones (2003, 2007), U2 (2005, 2010), Depeche Mode (2006), Bob Dylan (2006), Bruce Springsteen (2008, 2009, 2011, 2012, 2016), ACDC (2010), Bon Jovi (2011), Shakira (2011) eta Guns N' Roses (2017). Gainera, bertsolaritzaren parametroetan, kontuan hartu behar da txapelketa nagusiko saioetara joan zen jendea ez zela hainbeste (txapelketako saio guztiak aintzat hartuta, gainera): urte horretan urtean zehar bertso-saioren batera joan zen publikoaren %10 besterik ez. BEC eta txapelketa kualitatiboki ezinbestekoa da. Kuantitatiboki, publiko kopuruari dagokionez behintzat, ez hainbeste.


Zergatik gertatzen den aztertu behar genuen, bertsolaritzak nola lor dezakeen hainbeste jende erakartzea. Ebidentziak eskuratu nahian, guztira 32 elkarrizketa sakon (*in-depth interview*) egin eta 3.663 galdetegi pasa genituen (2005-2007 artean: txapelketa nagusian 723, urtean zehar egiten diren bertso-saioetan 344, eta euskal hiztunei 1.219; eta 2015-2018 artean: txapelketa nagusian 777 eta urtean zehar egiten diren bertso-saioetan 600). Horrez gain, Xenpelar Dokumentazio Zentroan hainbat urtez bildu dituzten zenbait datu analizatu ditugu; inkesta zabalena eskain dezakeena baino lagin askoz zabalagoa daukanez, hamarkadetan zehar datuak jasotzen egin duten lanaren emaitza, erreferentzia ekidinezina da. Lehen ikerketa aldian Juan Aldaz, Eider Alkorta, Xabier Aierdi, Alfredo Retortillo eta bostok aritu ginen, eta bigarren ikerketa aldian azken hirurak.

Bertsolaritzak bizi duen hazkundearen ebidentzia garbiak aurkitu ditugu. Xenpelar Dokumentazio Zentroko datuek erakusten dute 1990. urtetik gaur arte bertsolari kopurua hirukoiztu egin dela, bertso saio kopurua laukoiztu egin dela, eta bertso-saioetara doan lagun kopurua orain inoiz baino handiagoa dela. Beharbada, publikoari dagozkion datuek interpretazio zailagoa dute, zeren, batetik, ez dute islatzen 1980ko hamarkadatik 1990eko hamarkadarako goranzko bilakaera, eta, bestetik, nabarmentzeko modukoa da 1990eko hamarkadan bertsolaritzaren boomaz hitz egiten zutenean, bertsolaritzan zebilen jendeak propio hoztu zuela boom hura, hazkundea baino aparraldia zela iritzita. Garai hartako kopuru handiak bertso-saio masifikatuetan oinarritzen ziren, neurri handi batean. Gaur egungo kopuru handiak, 1990eko hamarkadakoak baino handiagoak, bertso-saio txikiagoetan oinarritzen dira.

Beraz, gaur egun bertsolaritzak bigarren boom bat bizi duela esan genezake, baina bigarren boom horren izaera desberdina dela. Gure susmoa honakoa da: saio txikiagoek osatzen duten hazkunde horrek, agian, aniztasuneranzko joera islatzen du.


Kulturaren Euskal Behatokiak eskaintzen dituen datuak (Zubiri 2010) oso bateragarriak dira bertsolaritzaren bigarren boomen hipotesiarekin: bertsolaritzaren jarraitzaile kopurua harrigarriki handia da, euskarazko beste kultur adierazpide batzuen mailan baitago. Hori bai, kontuan hartu behar da beti ere euskaraz egiten den kulturari buruz ari garela; hau da, osasunaz ari garenean, dena erlatiboa dela, zeren erdetan egiten denaren kopuruak askoz handiagoak baitira, baita euskal hiztunen kultur ohiturei dagokienez ere, Siadecok Elkarrentzat egin zuen ikerketan erakutsi zuen bezala.

1. grafikoa. Bertso-saio kopuruaren bilakaera




ITURRIA: XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA.

2. grafikoa. Bertsolari kopuruaren bilakaera









ITURRIA: XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA.


3. grafikoa. Bertso-saioretako publikoaren bilakaera



ITURRIA: XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA.

4. grafikoa. Kultur ohiturak euskal herritarren eta euskal hiztunen artean (2008)

-  Musika
-  Zinema
-  Antzerkiak
-  Liburuak
-  Kontzertuak
-  Bertsolaritza



ITURRIA: KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA (ZUBIRI 2010, 2014).

Edonola ere, bertsolaritzaren hazkundearen zalantzarik ez dago. Fenomenoa ulertu nahi duenak beti jo dezake 'erronomia' hipotesira: euskaldunek gustuko dute erromerian joatea eta horregatik betetzen dute BEC, Durangoko Azoka... Baina erronomia hipotesiak den-dena azaltzeko balio duenez (zergatik erakarri zuen hainbeste jende Queen-en Wembleyko kontzertuak, *Titanic* filmak, Guggenheimen...), ez du ezer asko azaltzeko balio.

## **Gizarte mugimendu baten proiektu soziokulturala**

Bertsolaritza arraroa da. Inertziak museoetara zeraman, apaingarri folkloriko izatera, exotikoenetan exotikoenetako bat. Garai batean, batik bat landa eremuko kultur adierazpide indartsua izan zen euskara nagusi zen udalerrietan. Kalera ere iristen zen, euskaldunen artera beti ere. Bertsolariak ez ziren edonor. Maiz bertsolariek historikoki arrote fama izan dutela nabarmendu den arren, oso kontuan hartzekoa da bertsolaria funtsezko kultur erreferentea izan zela testuinguru hartan. Garaiaren kronika eta interpretazioa egiteari dagokionez, beste leku eta garai batzuetan filmek eta literaturak

jokatu duten rola izatetik ez zen urrun ibiliko bertsolaritza (Alberro 2018, Agirre 2018).

Transmisioa naturala zela zirudien garai hartan, baina ezer ez zeukan naturaletik. Jendearen bilguneetan (gizonezkoenetan behintzat) kantatzen zenez, saio horietara joaten zenak naturala balitz bezala barneratzen zuen harekiko zaltetasuna, espazio horietan in-

tegratuta zegoen heinean. Lev Vigotskik (1978) adierazi zuen eran, ikaskuntza lehenik interakzio sozialean gertatzen da, eta gero barneratzen da, gero bihurtzen da norbanakoaren

Proiektu soziokulturalik ez daukan kultur adierazpide txikiak ez ditu arnasbideak erraz topatuko mundu honetan. Bertsolaritzan zebiltzan hainbat agente konturatu ziren horretaz

baitako zerbait. Era berean, etorkizuneko bertsolariak giro horretan ikasten zuen bertsotan. Partaidetza eta ikaskuntza prozesu beraren bi aurpegi dira (Lave eta Wenger 1991). Testuinguru sozial batean parte hartu ahala ikasten da, eta, alderantziz, ikasi ahala parte har daiteke testuinguru horretan. Ondorioz, partaidetza eraginkorragoak ikaskuntza efikazagoa dakar, eta alderantziz. Hortaz, testuinguru soziokultural hark bermatzen zuen bertsolaritzaren indarra. Giro hartan sozializatu ahala sustatzen zen zaletasuna eta etorkizuneko sormena. Baina are eraginkorragoa izan zedin, prozesu horiek guztiak ikusezinak ziren eta den-dena naturalki gertatuko balitz bezala ulertzen zuten.

Arazoa ondoren etorri zen, gizartea errotik aldatu zenean. Aro hura joan zen, eta harekin desagertu zitzaizkion bertsolaritzari transmisiorako aukera gehienak. Espazio sozialik gabe gelditzen ari zenez, gainbehera zetorren.

Iraultza neoliberalak ez zion lagunduko. Margaret Thatcher eta Ronald Reagan ziren errebolta globalaren buru. Mundua borborka zegoen. Eta kulturaren plaza gero eta globalagoa zen. Adierazpide txikiek ez zuten berezko lekurik izango. Kanal hegemonikoetan gero eta gehiago zabaltzen ari ziren erraldoiak, eta txikiek haiekiko zuten lehia gero eta gordi-nagoa zen.

Proiektu soziokulturalik ez daukan kultur adierazpide txikiak ez ditu arnasbideak erraz topatuko mundu honetan. Bertsolaritzan zebiltzan hainbat agente konturatu ziren horretaz, eta beren ahaleginak arazo hori konpontzera bideratu zituzten nagusiki. Horregatik sortu zuten bertsolaritzarentzat proiektu soziokultural bat, kultur adierazpide txiki batentzat espazioak eraikitzea lehenetsi zutelako. Helburu nagusia ez zen bertsolariek zer kantatu behar zuten diktatzea, ezta bertsolarien lehia-*show*-ak herriz herri mugitzea eta hedabideetara eramatea. Proiektu soziokulturalaren funtsezko helburua bertsolaritza geroratzea da, eta horretarako espazioak eraiki ditu, bertsolaritza hazteko eta garatzeko aukera sortzen duten espazioak.

Ez dut gutxietsi nahi ekoizpen artistikoak eta hedapenak duten garrantzia. Ez nuke halakorik iradoki nahi. Bertsolariak, adibidez, bat-batean erabaki behar du mila eta bat aukeretatik zein hartuko duen, eta, asmatzen duenean, ekoizpen artistiko horrexek pizten du sua, publikoa kitzikatzeko modu eraginkorrean erabiltzen duelako umorea edo irudimena edo hunkiarazteko gaitasuna. Halaber, hedapenak helaraz dezake emaitza artistikoa bestela iritsiko ez litzatekeen leku askotara. Esate baterako, telebistaren bidez sartu zen bertsolaritza egongela askotara, eta gero jende hori etxetik plazara joan zen bertso-saioa entzutera. Baina hori guztia ukatu gabe, esango nuke sozializazio guneak propio sortzeko estrategiarik ez badago, arrakastarako aukerak askoz txikiagoak direla kultur adierazpide gutxiagotuentzat.

Sozializazio gune eraginkorrek ahalbidetzen dute kultur kontsumogaiaren paradigma gainditzea. Ez dago hartzaile pasiborik. Sozializazio guneetan biografiak gurutzatu egiten dira. Norbanakoak testuingurutik edaten duen bezala, norbanakoak elikatu egiten du espazio hori. Sinbiosi moduko bat da. Inklusibotasuna handitu ahala areagotzen da eraginkortasuna. Eta hori guztia gertatzen den bitartean, norbanakoa gune batean sozializatzen den bitartean, kultur adierazpide jakin bat gune horren ardatz bada (bertso-eskolan edo bertso-saioetan bertsolaritzarekin gertatzen den bezala), orduan sozializatzen ari den norbanako hori zaletu egingo da, gustuko izango du gune horri zentzua ematen dion kultur adierazpidea.

Zaharra den eztabaida bati buruz ari gara, baina ez dirudi zaharkitu denik. Walter Benjamin eta Theodor Adorno lagun onak zirela esaten dute. Eskola berekoak ere baziren, baina ikuspegi kontrajarriak zeuzkaten arlo askotan. Adornoren arabera, artelana behatzea eta miresteko gai izatea da hartzailearen lana. Artelana ukiezina da. Aitzitik, Benjaminek artearekiko beste harreman bat aldarrikatzen du. Erreproduktio mekanizatuari esker, artelanak (edo beren kopiak) inoiz ez bezala hedatzen dira, ez dira garai bateko objektu urrun horiek, eta horrek aldatu egin du artearekiko



harremana. Publikoak badu zeresana. Artelanaren inguruan jendeak dituen interakzioek erabat baldintzatzen dute jendeak artelan horrekiko duen esperientzia.

Zinemara joaten garenean, filmak ez du gure esperientzia monopolizatzen. Norbaitekin hitzordua badaukagu, garaiz edo berandu iritsiko gara, lasai edo presaka edo urduri. Eurria ari du, hotza, hezetasuna, edo udaberriko eguzkia aterada, agian, aspaldiko partez. Hitzorduan beste norbaitekin elkartzen bagara, beste pertsona horrekiko zerbait sentitzen dugu. Atsegina da zinemara oinez joatea (edo ez, hobe koitzez, autobusez...) eta bidean hizketan egitea zuen kontuei buruz. Beharbada, zinema aretoan filma komentatu egingo duzue (xuxurlaka hobe), eta amaitzean jarraituko duzue,

paseoan bueltatzen zareten bitartean, edo, akaso, nahiago duzue taberna batean zerbait edatera eta jatera joan. Arratsalde-iluntze bat zuen bizitzan, esperientzia aberasgarria gehienetan, eta horretan guztian filma da ardatza, baina sozializazio gune horretan biografiak gurutzatu egiten dira, eta norbanakoa ez da hartzaile hutsa, aktiboa da, ekarpen ugari egiten ditu, eta besteekin interakzioan gertatzen da hori guztia. Kultur adierazpideak ardatzen du sozializazio gunea, baina ekarpena egiten duen bakarra ez denez, esperientzia askoz aberasgarriagoa da, eta, ondorioz, zaletasuna pizteko aukerak asko handitzen dira. Sozializazio gunerik ez daukan kultur adierazpideak ez du lan erraza. Hobe du bere espazioak sortzen ahalegintzea. Hori da proiektu soziokulturalaren erronka handiena.

Ez da beti egitasmo deliberatu baten emaitza izaten. Edo, agian, bai, baina forma ikusezinagoa dauka. Rock Radical

Sozializazio gunerik ez daukan kultur adierazpideak ez du lan erraza. Hobe du bere espazioak sortzen ahalegintzea. Hori da proiektu soziokulturalaren erronka handiena

Vascoa soinu bandatzen izan zutenen biografiak zein sozializazio guneetan gurutzatzen ziren? Zalantzarik ez dago musika entzute hutsaz harago zihoala RRVa entzutearen esperientzia: munduan mugitzeko modu bat zen, jende jakin bat zebilen guneetan sozializatzeko tresna bat zen, bizitzari begiratzeko ikuspegiak eralda zitzakeen kultur sorkuntza uholde bat zen.


Bestelako helburuak ere izan ditzake propio sortutako sozializazio gune batek. Pentsa liteke, adibidez, eskolatu gabeko pertsona heldu batek ezingo lukeela Kafkaren *Metamorfosia* gustura irakurri; baina ez da egia, kontrakoa erakusten duten esperientziak badaudelako (Sánchez 1999). Zerk ahalbidetzen du hori? Irakurketa taldeko kideekin izaten ditugun interakzioak, istorioa jarraitzeko laguntza, laguntasun giroa, entretenimendua, egiten ari direnaren zentzua elkarrekin eraikitzea, taldea sortzea, prestigiotsua den baliabide bat eskuratzeko sortzen duen zirrara praktikan sentiaraztea... Azken finean, proiektu soziokultural batek propio sortu duen sozializazio gune eraginkor baten emaitza da.

Bertsolaritzari dagokionez, sozializazio guneak dira bertso-eskolak, aisialdirako jarduerak, borondatezko lanerako ekimenak... eta, jakina, lehendik ere egiten ziren bertso-saioak, zeinak funtsean sozializazio guneak diren. Txapelketek ere funtzio hori betetzen dute. Jendea gune horietan sozializatzen den heinean zaletzen da bertsolaritzarekin. Partaidetzaren intentsitatea handitu ahala areagotzen da zaletasuna.

Esku hartze soziokulturala funtsezkoa da zenbait kultur adierazpidek arrakasta izan dezaten. Proiektu soziokultural bat eraikitzeak nabarmen lagundu dezake kultur adierazpide gutxiagotu bat biziberritzen. Hori da, ziur aski, bertsolaritzaren proiektu soziokulturalak agerian uzten duen irakaspen garrantzitsuena. Gaur egun, hainbat baldintzak eragotzi egiten dute zenbait kultur adierazpideren arrakasta, eta, beraz, oztopo horiek gainditzeko eraginkortasunez esku hartzen ez den bitartean, ezin da ezer askorik lortu. Gakoak ez dira soilik ekoizpen artistikoa eta hedapen kanala.

Gure ikerketan eskuratu ditugun datuek berretsi egiten dute proiektu soziokulturalak bertsolaritzaren geroratzean izan duen garrantzia. Datuek iradokitzen dute bertsolaritzarekiko zaletasuna kasu askotan lehen sozializaziotik kanpo gertatzen dela, hau da, kasu askotan ez dela etxekoen eta oso hurbilekoen bitartez bakarrik gertatzen. Beraz, ondoriozta genezake zale horiek guztiek ez luketela zaletasuneranzko pausorik emango baldin eta zaletasuna pizteko gunerik ez balute; eta, jakina, eremu horiek berezkoak ez direnean, propio sortzen ez badira, jende hori guztia ez da zaletzen.

5. grafikoa. Noiz bertsozaletu ziren



ITURRIA: BERTSOLARITZAREN AZTERKETA SOZIOLOGIKOA.

Edonola ere, proiektu soziokultural eder bat alferrikakoa da baldin eta ez badago proiektua gauzatuko duen agenterik. Bertsolaritzan proiektu soziokulturala eraiki ahala sortuzen proiektua praktikara eramango zuen agentea. Bertsolaritzan autoeraketa (Sarasua 2013) funtsezko kontzeptua da, erronkei aurre egiteko antolatzea. Gainbehera zetorrela ikusirik bertsolaritzak bere burua antolatu zuenean, gizarte mugimendu baten forma hartu zuen: bertsolaritzaren gizarte mugimendua. Arraroa egingo zaio baten bati bertsolaritza gizarte mugimendu bat dela esatea, baina, egia esan, erraz definitu daiteke hala: egiturazko arazo historiko bati erantzuteko antolatzen da, munduari begiratzeko eta funtzionatzeko ikuspegi bat eraikitzen du kolektiboki, aukera-leihoak

aprobetxatzen ditu, gainerako agenteekin interakzioan sartzen da, jendea mobilizatzeko baliabideak martxan jartzen ditu, jende asko mobilizatzen du...

Beste agente batzuek ere bultza zezaketen bertsoalaritza geroratzeko proiektu soziokulturala (adibidez, potentzialki, agente erabakigarriak izan zitezkeen erakunde publikoak, alderdi politikoak, mugimendu politiko-kulturalak, beste gizarte mugimendu batzuk, industria kulturala...), baina bertsoalaritza lehentasun zuen beste inor ez zegoenez, ardua bere gain hartuko zuen agentea sortzea ezinbestekoa izan zen.

## Artikulazioak

Apoteosikoa izan zen Margaret Thatcherrek *The Sunday Times* egunkariari eman zion elkarrizketaren amaiera:

Sumindu egiten nau politikak azken 30 urteetan hartu duen norantzak, beti gizarte kolektibistarantz egin duelako. Jendeak ahaztu egin du norbanakoaren gizartea. Eta galdetzen dute: ni axola al natzaio inori? Erantzun laburra da: bai. Eta, beraz, kontua ez da ekonomia arloko politika egiten ari naizela; kontua da norantza aldatzeko ari naizela lanean, eta ekonomia aldatzea da norantza hori aldatzeko bitartekoa. Norantza hori aldatzen baduzu, benetan ari zara nazioaren bihotza eta arima aldatu nahian. Ekonomia metodoa besterik ez da; helburu nagusia bihotzak eta arimak aldatzea da.

Ez gaizki ulertu. Margaret Thatcherren helburua ez zen nork bere aldetik indibidualtasunerantz jotzea. Aitzitik, norbanako neoliberalaren ideia ardatz hartu nahi zuen ahalik eta jende gehien haren inguruan artikulatzeko. Iraultza neoliberalaren liderretako bat izan zen Thatcher, eta arrakasta handia izan zuen eta izaten ari da. Gobernuburu izateari utzi eta hamabi urtera, afari batean galdetu zioten ea zein zen bere lorpenik handiena, eta Thatcherrek honakoa erantzun zuen: «Tony Blair eta Mugimendu Laborista Berria. Gure arerioak iritiz aldatzera behartu ditugu».

Paradoxa irudi lezake, baina ez dago inolako kontraesanik. Sozialki arrakastatsuak diren mugimenduek beti bilatzen

dute haien aldarrikapenak zentzuzkoenak izatea, hau da, jendeak ideia zentzuzkoenak direla sentitzea, zentzua izan dezaketen beste hainbat ideia lehiakideren gainetik. Azken batean, gailentzen diren ideia horien inguruan artikulatu nahi dute ahal bezainbeste jende; baina, jakina, jende asko bildu nahi duzunean, litekeena da talde homogeneousoa ez izatea, eta, gainera, horren beharrik ere ez dago. Artikulatzea da gakoa, ez homogeneousizatzea.

Artikulatzea hauxe da: ordura arte bi mundu edo gehiago zirenak aterkipe berean elkartzea. Etengabe gertatzen ari da, are gehiago gure testuinguru sozialak gero eta konplexuagoak direnean. Bestela nola uler daiteke AEBetako eskubide zibilen aldeko mugimendua? Frantziako Errepublikan Marine Le Pen-en Rassemblement National alderdia babesten dutenen artean, jatorri sozio-kultural-politiko-ekonomiko oso desberdineko jendea dago. Euskal Herrian soldaduskaren aurkako eta intsumisioaren aldeko mugimendua artikulazioekin hazi zen. Artikulazioak, berez, ez dira eskubikoak edo ezkerrekoak, belizistak edo bakezaleak, diskriminatzaileak edo berdinzaleak. Ardatz diren ideien araberakoa izango da hori.

Nor gara gu? Artikulazioak beti erantzuten dio galdera horri, baina beti aldatzen du ordura arte ematen zen erantzuna. Gu-aren mugak desdefinitu egiten ditu, eta definizio berria ematen die gero. Artikulazio arrakastatsuenak gai dira aniztasuna eta izaera kolektiboa uztartzeko. Ideia partekatu eraginkorren inguruan artikulatzen dute pluraltasuna.

Kulturaren eremuan berdina gertatzen da. Sintonian sentitzen den jendea elkartzeko gai da kultur sorkuntza. Agian, izan liteke aurretik lotura garbirik ez izatea, baina, agian, kultur adierazpide batek sintonian jartzen ditu. Beharbada, aterki horretatik kanpo ez dute elkarren ondoan egon nahi edo ez dira konturatzen aukera hori dagoenik edo zaila egiten zaie elkarrengana hurbiltzea. Alta, kultur adierazpide jakin baten parametroetan, lehen itzalita zeuden argiak piztu egiten dira. Musika kontzertu batean oso nabarmena da. Sintonia, zentzu materialenean, soinu uhinen bitartez gauzatzen da.

Lehen, zinema aretoetan ere oso agerikoa zen; gaur egun gero eta gehiago sintonizatzen du nork bere etxetik. Jendea arte baten epelera biltzen denean, beti definitzen da gutasun bat, honetan ari garenon gu hori, honetan sintonizatzen dugunok. Askotarikoagoa denean, indartsuagoa da baldin eta aterkipe berean badago.

Bertsolaritza ere gai izan da azken hamarkadetan hainbat artikulazio gauzatzeko, baina ez da berez gertatu. Proiektu soziokulturalak ahalbidetu du. Baina horren guztiaren aurrerakia Xabier Amurizaren ekarpen teoriko-praktikoa da. Esku hartze soziokulturalaren alde egin zuen: bertsolaritza ez dela berezkoa aldarrikatu zuen, eraiki egiten dela, eta, bide batez, jardunerako hainbat tresna proposatu zituen. Proiektu soziokulturalari atea ireki zizkion horrela.

Sozializazio guneak esku hartze soziokulturalaren ikuspegiari oinarritzen dira. Sozializazio guneen lana funtsezkoa da artikulazioak ulertu ahal izateko. Esku hartze soziokulturalerako sozializazio gunerik gabe, nekez sortuko litzateke artikulaziorik gaur egun. Elkargune horietan ernatu da bertsolaritza garaikidean funtsezkoa den jende asko (sortzaileak,

zaleak, antolatzaileak...). Bertso-eskolak, aisialdirako espazioak, borondatezko lanerako ekimenak... ezinbestekoak izan dira. Bertsolaritzan lur hartzeko aukera eman diote jende askori. Bertso-plazan ez zeuden baldintzak sortu zituzten gune horietan, bestela etorriko ez zen jendea erakartzea eta elkartzea errazagoa izan zedin.

Bertsolaritza ere gai izan da azken hamarkadetan hainbat artikulazio gauzatzeko, baina ez da berez gertatu. Proiektu soziokulturalak ahalbidetu du

Taldetasuna sustatu dute, eta, horri esker, indibidualtasuna lantzeko aukerak handitu egin dira. Testuinguru horretan egosi dira hainbat artikulazio.

Azken hamarkadetan bertsolaritzaren baitan hasi eta bukatu den artikulazio nabarmenenaren protagonistak

bertsolaritza klasikoa eta rockaren belaunaldia izan ziren. Jon Maiaren *Berriak jaiotzen* eta Alberto Irazuren *Rocka puntua* liburuek ederki kontatzen dute fenomenoak.

Ez gara ari bi bertsokera estilo fusionatzeari buruz. Bi talde soziokultural bertsolaritzaren aterkipean elkar topatzeari buruz ari gara. Sortzaileak, publikoak, haien bizimoduak, mundu ikuskerak, gustuak, espazioak.

Prozesua ez zen bat-batekoa izan. Lehenik, exotikoak ziren beste bertsolari horiei ongi etorria egin zieten. Testuinguru hartan sortu zen *bertsolari gaztea* kontzeptua. Aurretik ere baziren adinez gazteak ziren bertsolariak, baina kontzepturik ez zegoenez, denak ziren bertsolari, adjektiborik gabe. Artikulazio prozesuaren hasieran, bertsolari exotikoek ahalegina egin behar izan zuten zaharren moldeak ikasteko, baina egoera hartan ez zuten gozatzen bertsoetan. Alta, pixkanaka kopuruz handitu egin ziren, bai sortzaileak bai publikoak. Gainera, bertsolaritza berria hazteko espazioak ere eraiki zituzten. Horrela hasi ziren zentraltasuna okupatzeko pausoak ematen. Lehengo moldean zebiltzan batzuek erresistentzia egingo zieten arren, *bertsolari gazteek* eta publiko berriek exotiko izatearen sententzia gero eta txikiagoa zuten eta betiko sortzaileekin eta publikoarekin nahastu ziren. Era berean, sortzaile berriek kualitatiboki beren diskurtsoak garatu zituzten, eta publiko berriek kualitatiboki gustu berriak garatu zituzten. Horrela hasi ziren zentraltasuna masiboki okupatzen. Egoera horretan blaitu ziren molde zaharragoetan zebiltzan asko ekarpen berriekin. Artikulazioa bururaino eramane zuten, eta, ondorioz, bertsolaritza aberastu egin zen.

Bizi-indar soziokulturalak elikatzen dituzte gizarte mugimenduak. Bizi soziokulturalak elikatzen ditu. Beraz, gero eta gehiago artikulatu, gero eta indartsuagoa eta osasuntsuagoa eta dirdiratsuagoa izango da, eta, bide batez, sortzaileei askoz hobeak izateko aukera emango die. Artikulazio aberatsagoek ekoizpen artistiko bikainagoi irekitzen dizkiete ateak.

Gaur egun ikuskizun dago emakumeei eta feminismoari lotutako artikulazioarekin zer gertatuko den.

## **Multipolaritasuna, generoak eta sabaiak**

Joxerra Garziaren arabera, bertsolaritza gaur egun aro multipolarrean dago (Garzia 2013). Dibertsifikatzen ari da. Lehen aipatu ditugun Xenpelar Dokumentazio Zentroaren datuek ere horixe iradokitzen dute: inoiz baino bertso-saio gehiago antolatzen dira, publikoari dagokionez lehen baino tamaina txikiagokoak; baina saio horien guztien batura da, ziur aski, bertsolaritzak inoiz ez dituela hainbeste jarraitzaile izan. Halaber, eskuratu ditugun datuek erakusten dute bertsozale sutsu kopuru esanguratsu bat dagoela, baina jarraitzaile gehienak ez direla bertsozale sutsuak, neurrian maite dutela bertsolaritza, beste zenbait kultur adierazpide bezainbeste. Albiste onak dira bertsolaritzarentzat: zale kopurua handia da, dibertsifikatuta dago, eta beste kultur adierazpideekin harremanetan daude. Musikak, adibidez, parametro horietan funtzionatzen du, eta ezaugarri horrek ere errazten dio jende askoz gehiagorengana iristea. Kontzertu batera goazenean, ez gara musika entzutera joaten, musikari jakin bat baizik. Oraindik jende asko bertsolariak entzutera joaten da, baina, beharbada, Jon Sarasuak esan zuen bezala, gero eta gehiago joango dira bertsolari jakin batzuk entzutera, bertsolariak oro har entzutera baino. Joera interesgarria da. Artikulazioak erraztu egiten ditu, eta, beraz, bertsolaritzaren bizi-indarra handitzeko aukerak sustatzen ditu. Aniztasuna aterkipe berean elkartzea ez da desberdintasunak ahaztea. Aitzitik, ideia partekatuekin batera pluraltasuna ahal bezainbeste adierazteko aukerak zabaltzea funtsezkoa da.


Beti egongo da Bakhtin-ek monologismoa eta polifonia deitzen dituen horien arteko tentsioa (Bakhtin 1981, 1986): monologismoak bere burua du ardatz, eta haren inguruan grabitatzen du beti; aldiz, polifonia aniztasunean oinarritzen da, berdinen arteko interakzioan, dialogismoan. Monologismoak eredu bakarra hobesten du. Polifoniarentzat, berriz, norbanakoa funtsezkoa da, aberastasun ordezkazina, eta hobetsi egiten du ahots askotarikoak azaleratzea eta interakzioan jartzea.



Bertsolaritzan ere hori gertatzen ari da; baina, aldi berean, badago zer hobetu, jakina. Generoaren eremuan nabarmena da hori. Gainerako kultur adierazpideetan zenbakiak garbi uzten dute: euskal literaturan, adibidez, emakume idazleak %16 besterik ez ziren 2006an, Euskadi literatur sarietan 1997tik gaur arte euskarazko literaturaren alorrean hiru emakume bakarrik saritu dituzte, kritika sarietan narratiba arloan 1976tik hona %5 eta poesian 1978tik hona %15. Nazioartean berdin: literaturako Nobel sarietan 1901etik hona %11, eta azken 20 urteetan %25. Eta gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat bereiz ematen ez diren sarietan, berdina gertatzen da: Oscarrak, Grammyak, Cannes, Goyak... Berdin margolarien erakusketekin. Berdin...

Bertsolaritza ez da salbuespena: 18 urtetik beherakoan artean kopuruak oso parekatuta daude, partaidetzan eta meritokrazian, baina 18 urtetik gora aritzen diren lau bertsolaritatik bakarra da emakumea.

6. grafikoa. Emakume eta gizon bertsolarien kopurua, adinaren arabera



ITURRIA: XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA (IKERTZAILEOK LANDUTAKO DATUAK).


Arazoa, jakina, ez da soilik kuantitatiboa. Ikuspegi kualitatibotik heltzea ere ezinbestekoa da. Elkarrizketatu genuen gizonezko batek hauxe esan zigun:

Lehen, generoa [herriko] feriara ekartzen zutena zen. [...] Orain dela 30 urte minifaldarekin ez zenuen inor imajinatzen. Oraindik ere nire adineko eta goragoko belarrientzat gogorra da ahots femenino batek kantatutako bertsoa baloratzea. Aldiz, [ahots sen-

doarekin kantatutakoa] inork ez du zalantzan jartzen. [...] Gure laguna eta [bertsolari jakin baten] laguna denak orain dela bi urte aitortu zigun [bertsolari hori] amerikanarekin kantatzen ikusi zuen lehenengo aldian pentsatu zuela: honek ez dik batere kantatuko, marikoi pinta zaukak.

Edonola ere, aldaketak gertatzen ari direla erakutsi digute ikerketaren emaitzek. Emakume bertsolarien kopurua handitu egin da bertsolaritzak bere burua antolatu duenetik. Eragina izan dute bertso-eskolek, emakume bertsolarien laguntasun sareek eta gaiari buruz egin duten lanketak, emakume bertsolariak eman duten ereduak... Baina, aldi berean, datuek iradokitzen dute kopurua %20-25 artean egonkor dagoela azken urteetan.


7. grafikoa. Emakume eta gizon bertsolarien kopuruen bilakaera eta bertso-saiotetako parte hartzeen bilakaera, adinaren arabera



ITURRIA: XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA (IKERTZAILEOK LANDUTAKO DATUAK).

Bestalde, publikoaren baitan gertatzen ari den aldaketa nabarmena da. Azken txapelketa nagusian, adibidez, emakumezkoak ziren erdia baino gehiago, eta emaitzek iradokitzen dute nahiago luketela emakume bertsolari gehiago ikustea oholtzan.

8. grafikoa. Bertsolaritzaren publikoa generoaren arabera



ITURRIA: BERTSOLARITZAREN AZTERKETA SOZIOLOGIKOA.

## Pop kulturaren mamua

Mamu batek kurrutzen du Europa eta mundua: pop kulturaren mamua da. Indar guztiak batu dira, zaharrak eta berriak, haren gortesau bihurtzeko. Pop kulturak ez du substantzia egonkorrik. Aldakorra da, edukietan eta forman. Ez du berezko mugarik. Ez da jende jakin batentzat bakarrik. Nagusitzea eta zabaltzea da bere legea. Gai da txikia desagerrarazteko, txikia iragan bihurtzeko. Gai da txikiari lekua egiteko, baina beti leku deserosoa, hanka bat barruan eta bestea kanpoan.

Ez da betidanik existitu. Lehen ez zegoen arte partekaturik (ahaztu Shakespeare, ahaztu Lope de Vega, ahaztu...). Lehen goi eta behe zegoen. Pop kulturak ez du goi eta behe, baina pop kultura ez da bat eta bakarra. Armiarma sare bat da, nodo asko dauzkana, eta horregatik taldea osatzeko balio du, handia eta txikia.

Hegemoniaren hizkuntza hitz egiten du, ez beti hizkuntza hegemonikoa. Erakargarriena izan nahi du, eta ez bada hala, erakargarria den horren eremura zabaltzen du pop kulturaren muga. Ez du substantzia egonkorrik.

Pop kultura hackeatzen dutenak kanpotik ari dira, baina pop kulturaren tresneria erabil dezakete.

## Postdodoismoa

Europar kolonizatzaileek Maurizio irla zapaldu zutenean, liluratuta gelditu ziren bertan bizi zen eta inoiz ikusi ez zuten hegazti bitxi batekin: gorputz sendoa zuen, hego lodiak, hanka motzak, moko handia. Ezin zuen hegan egin, baina kokoak beste inork ez bezala hauts zitzakeen mokoarekin. Dodo deitu zioten. Inoiz ez zuen harrapakaririk ezagutu, inoiz ez zen mehatxupear sentitu, eta ez zion beldurrik europar kolonizatzaileari. Haiekin bizi izan zen 80 urtez harik eta betirako desagertu zen arte. Ez zen ehizatuta desagertu. Ez zuen lortu kolonizatzaileek eragin zuten ekosistema aldatetara egokitzea. Museoetan bere hezurdurak baino ezin dira ikusi gaur egun.

Tambalacoque zuhaitzetik erortzen ziren fruitu helduak janez elikatzen zen dodoa, baina hori jateak ez zion soilik dodoari mesede egiten, zeren zuhaitzaren haziak, zeinek hainbat geruza lodi dituzten, dodoaren digestio aparatutik igarotzen zirenean bakarrik bihurtzen ziren zuhaitz berriak sortzeko emankor. Zuhaitz horrek luzaroan bizitzeko ahalmena du, baina orain desagertzeko arriskuan dago.

Postdodoismoa hitz xelebrea da, baina ideia bat islatzeko balio badu, nahikoa: ekosistema aldatetaren aurrean bere burua eraldatzeko gai den zera hori adierazi nahi du. Luzaroan bizi dadila postdodoismoa... 🐼

**Bibliografia**

- Agirre, A. (2018): 'Bertsolaritza eta kazetaritza.' *Hitzaldia: Mintzola Mintegia*, Billabona, 2018-11-15.
- Alberro, L. (2018): 'Bertsolarien ahoz. Modernizazio prozesua eta identitate bideak Gipuzkoan, 1830-1936.' *Hitzaldia: Mintzola Mintegia*, Billabona, 2018-11-15.
- Allur Dorransoro, J. (2018): 'Argazkia euskarazko kultur kontsumoari,' *JAKIN* 226, 11-30.
- Atwood, M. (1981): 'Spelling,' in M. Atwood: *True Stories*, Oxford, Oxford University Press.
- Bakhtin, M. M. (1981): *The Dialogic Imagination. Four Essays*, M. Holquist (arg.), C. Emerson eta M. Holquist (itzulk.), Austin eta Londres, University of Texas Press.
- (1986): *Speech Genres and Other Late Essays*, V. W. McGee (itzul.), Austin, University of Texas Press.
- Butt, R. (1979): 'Economics are the method. The object is to change the soul,' *The Sunday Times*, 1979-05-03.
- Certeau, M. (1988): *The Practice of Everyday Life*, Berkeley, University of California Press.
- Freire, P. (2008; 1993): *Cartas a quien pretende enseñar*, Bueno Aires, Siglo Veintiuno.
- Garzia, J. (2013): *Bertsolaritza. El bertsolarismo*. Bertsolaritza, Donostia, Etxepare Euskal Institutua.
- Hoggart, R. (1957): *The Uses of Literacy. Aspects of Working-Class Life*, Londres, Transaction.
- Lave, J. eta Wenger, E. (1991): *Situated Learning. Legitimate Peripheral Participation*, Cambridge, Cambridge University Press.
- Sánchez, M. (1999): 'La Verneda-Sant Martí: A school where people dare to dream,' *Harvard Educational Review* 69(3), 320-357.
- Sarasua, J. (2013): *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak*, Iruñea, Pamiela.
- Unesco (2017): 'Atlas of the World Languages in Danger' ([www.unesco.org/languages-atlas/en/atlasmap/language-id-2744.html](http://www.unesco.org/languages-atlas/en/atlasmap/language-id-2744.html)).
- Vigotski, L. S. (1978; 1934): *Pensamiento y lenguaje*, Madril, Paidós.
- Zubiri, H. (2010): 'Euskara eta kultura-kontsumo,' in Askoren artean: *Kultura 08-09*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 47-62.
- (2014): 'The Consequences of Diglossia in the Cultural Habits of a Minority Language: Analysing the Consumption of Basque Culture,' *Global Studies Journal* 6(1), 67-77.

# Hutsuneak du hitza

Jone M. Hernández García

*UPV/EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia  
Saileko irakaslea eta AFIT-Antropologia Feminista  
Ikerketa Taldeko kidea*

## Garai berria? Definizio berdina?

Joan den udaberrian, Euskal Herri mailan bertsolaritzaren inguruan gauzatutako ikerketa soziologiko baten emaitzak ezagutzera eman ziren. Era honetako hirugarren azterketa da.

Lehenengoa 1991-1993 bitartean Siadeco Ikerketa Taldeak egin zuen. Ondoren, 2005-2007 urte artean ikerlari talde batek (Harkaitz Zubiri, Xabier Aierdi, Alfredo Retortillo, Eider Alkorta eta Juan Aldaz) bigarren azterketa gauzatu zuen, horretan ere ikuspegi zein metodologia soziologikoak ardatz harturik.

Hirugarren ikerlana Harkaitz Zubiri, Xabier Aierdi eta Alfredo Retortillok bideratu dute 2015-2018 urte bitartean. Aipatu den moduan, 2018an zehar azterlanak utzitako ondorioak plazaratu dira. Hedapen lan horretarako, Zubirik eta Aierdik laburpen bat prestatu dute bildutako emaitzekin. Dokumentuaren azalean ondorengo izenburua irakur daiteke: *Ebidentziak, teoriak, hausnarketak*. Hirugarren ikerlan horrek eskaintzen duen materiala ugaria, mamitsua eta zabala da. Lekuan lekuko lan sakon batek utzitakoa dago alde batetik, eta, bestetik, galdetegien erantzunak. Metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa erabili dira. Lehenengo kasuan, bertsolaritzarekin lotutako ekitaldien kontsumitzaileek

inkesta bat erantzun dute.<sup>1</sup> Metodologia kualitatiboari dago-kionez, bertso munduarekin lotutako 32 pertsonari egindako elkarrizketek utzitako gogoetak aztertu dituzte xehetasunez.

Egileek beraiek zenbait aurkezpen publikotan esan duten moduan, bildutako material hori ikerketak utzitakoaren ebi-dentziak lirateke.

Dena den, datuez gain, ekarpen teoriko-kontzeptuala eta egileek garatutako hausnarketak ditugu. Kopuruak eta ehunekoak gustuko dituztenentzat, zati hori ez da izango agian hain azpimarragarria. Niretzako, aldiz, ekarpen garrantzitsuena da. Ez dagokio artikulu honi ikerlariek azaldutako argumentu zein planteamendu bakoitza garatzea, baina azpimarratu nahi dut garaiko bertsolaritzaren ikuspegitik dokumentu horrek ekarritako narratibak edo diskurtsoak esan nahi duena. Ikerketak bertsolaritza, bertsolari eta bertsoaren gaineko interpretazio berri bat mahaigaineratzen du, bai orain arte izandakoa, bai gaur egun dena, eta baita etorkizunean izan ahal denaren gainekoa ere. Bertsolaritzaren inguruan egileek –oinarri epistemologiko, teoriko eta metodologiko sendo batetik– egiten duten irakurketak bertsolaritza gizarte mugimendu gisa ulertu eta interpretatzera eramaten gaitu (Zubiri eta Aierdi 2018: 13).

Gutako bakoitzari gauza ezberdinak etorriko zaizkio burura gizarte mugimendua entzuten dugunean. Baten batek nekez lotuko du bertsolaritza ideia horrekin. Aitzitik, ikerketa honetan bertsolaritzaren hazkundera zergatik gertatu den azaldu nahian hainbat hipotesi aztertu ondoren, ondorioztatu dugu erantzunaren zati garrantzitsuenetako bat dela. Bertsolaritza ardatz hartuta gizarte mugimendu bat sortu zuten, eta fenomeno horrek bertsolaritza aldatu du. Hauspoa eman dio. Hainbeste, ezen bertsolaritzaren ezaugarri bereizgarriena bihurtu baita. Bertsolaritzaren gizarte mugimendua deitu diogu.

Baldintza guztiak betetzen ditu gizarte mugimendua dela esateko.

Bertsolaritza gizarte mugimendu gisa esplizituki kontzeptualizatzen den lehenengo aldia da. Une honetan ez naiz sartuko Zubirik eta Aierdik egituratutako proposamena

aztertzeraz, nahiz eta aitortu nahi dudan zenbait elementu neureganatu ditudala nire hausnarketarako. Gainera, lanak bertsolaritzarako marko teoriko berri bat osatzeko egiten dituen ahaleginak nabarmendu nahi ditut. Marko hori aukera baliotsu gisa irudikatzen dut bertsolaritza praktika bezala birpentsatzeko. Mende aldaketa izan zenetik ez zen horrelakorik gertatzen, eta, bertsolaritzak birpentsatze unea bizi duen honetan<sup>2</sup> helduleku berri bat eduki dezake ezagutzera eman duten lan horretan.

Zubirik eta Aierdik ikerketa objektua den bertsolaritzari bira ematen diote. Ikuspegi berri batetik begiratzera gonbidatzen gaituzte, eta bertsoa, bertsolaria eta bertsolaritza (zer) direnaren gaineko eztabaida eguneratzen dute. Saiakera hori bereziki goraiatu nahi dut, euskara eta euskal kulturaren eremuetan praktikak teoria erruz gaintzen duen testuinguruan kokatzen baita. *Urgentziaz* beteriko unean/gunean, ausardia behar da teoriak hitz egiteko.

Gainera, Zubirik eta Aierdik berrikuntzarako erakutsitako ahaleginak beste aspektu batean ere badu isla, idatzitako laburpenean zein jende aurrean egindako aurkezpenetan protagonismo berezia izan duena. Ikerlanaren hasieratik bukaeraraino, *generoari* eta *generoaren gaiari* heldu diote. Ikerketa soziologikoen tradizio luze honetan lehenengo aldiz, atal edo kapitulu oso bat gai horren azterketari eskaini zaio. Atal hori bertsolaritzaren etorkizuna zirriborrazteko osatutako proposamenen kapitulua baino lehen kokatzen da. Are gehiago, zerrendatutako hamar proposamenen artean, egileek aipamen zehatza egiten diote generoaren auziari (Zubiri eta Aierdi 2018: 116):

Artikulazio berriak behar dira, batik bat generoarena eta belau-naldi gaztearena.

Zubiri eta Aierdiren txostenaren datuak aprobetxatuz eta ikerketak berez bertsolaritza birpentsatzeko ematen duen aukera baliatuz, egun lantzen ari naizen zenbait ideia azaldu nahi ditut testu honetan. Finean, nire ekarpenak bertsoaren,



bertsolariaren eta bertsolaritzaren izaeraren gaineko eztabaida zabaldu eta elikatu nahiko luke, besterik ez. Horren beharra ikusten dut, batez ere, orain dela gutxi arte eremu horretan *existitu ez den hori* (emakume bertsolariak, generoa, feminismoa...) aintzat hartzeko eta eman dezakeenaz jabetzeko.

Orain dela hamar urte hasi nintzen bertsolaritzaren mundua aztertzen. Orduan eremu ezezaguna zen niretzat, Trobian irlak Bronislaw Malinowskirentzat ziren moduan. Antropologo poloniarra artxipelago eder horretara iritsi zenean, inork ezin zuen irudikatu bere lekuan lekuko lanak eta ondoren burututako monografiak gizarte antropologian inoiz izandako krisi larrietarikoa eragingo zutela. *Kula* izeneko praktika baten gainean egindako azterketa metodiko eta zehatzak ikuspegiei, urruntze metodologikoari eta egiletzari buruzko eztabaida sutuak piztu zituen. Horrelako gogoeten arteko bat Clifford Geertzek (1989) bultzatutakoa dugu. Bertan, Malinowski egile literario gisa, idazle gisa, aldarrikatzen du, eta antropologian autoretzak duen pisua azaleratzen du.

Etnografia eta fikzioaren arteko tirabirek gaurdaino diraute, une oro harreman horren gaineko galdera eta itaun berriak agertzen direlarik. Dinamika horren ildotik, eta 80-90eko hamarkadetatik giza zein gizarte zientzietan gertatzen ari diren *birek* hauspotuta, gizarte antropologia garatuz joan da. Bere izaera kritikoak gaurkotzen eta eguneratzen lagundu dio, eta, egun, ikuspegi berrien abangoardia dela esango nuke. Hortik egiten dio so egungo munduari, horren konplexutasunari egokitutako pentsamendua garatzen lagunduz.

Ikuspegiaren gainean planteatzen den kezka egun *bira ontologiko* gisa izendatzen den korrontearen erdigunea hartzen du. Horren barruan planteamendu antropologiko ezberdinak biltzen dira, baina galdera amankomunak dituzte. Martin Holbraadek horrelako hitzekin definitzen du egungo egonezina (2014: 131): «Gauzak ikusteko moduari buruzko kezka epistemologikoa honetan bihurtzen da: lehenik zer ikusi behar denari buruzko arazo antropologikoa». Holbraadek azaltzen duen moduan, tradizionalki antropologiak

izan duen arazo nagusietarikoa –etnozentrismoa, hain zuzen ere– arazo ontologiko izatera pasatu da. Erronka, jada, ez da antropologiaren begirada garbitzea (aurreiritziak eta estereotipoak ezabatuz); etnografiatik *alde egitea*, hau da, etnografia *bakarririk uztea* litzateke. Modu horretan, aztergaia *den* hori azaleratuko litzateke.

Nire kasuan, lekuan lekuko lan oso sakona edo intentsoa egin ez badut ere, aukera izan dut denbora luzez lekuan lekuko lanean aritzeko. Ibilbide luze bateko ikuspegiak ahalbidetu dit bertsolaritza-ikergaiari bira bat ematea. Horrela, hasieran bertsolaritza praktika

kultural gisa aztertzea eta emakumeek bertan izandako rola ikertzea baldin baziren helburuak, egun bertsolaritzaren *izaera eta izana* eta horretan dauden genero-isuriak interesatzen zaizkit. Horrekin lotuta, bertsolaritzak bere izaera eta bere praktika definitzeko eta birdefinitzeko orduan agerian uzten dituen genero-tentsioak dauzkat aztergai. Orain arte bertsolaritzaren izaera eta praktika ikuspegi androzentriko batetik izan da definitua, eta garaia da izaera eta praktika hori biratzeko eta bere atzealdea ikusarazteko. Mugimendu hori duela denbora bat gertatzen ari dela deritzot. Beste gauza bat da gai izan garen hori ikusteko edo horretaz jabetzeko.

Bertsolaritzaren balioetako bat euskal gizarte eta kulturaren isla izateko duen gaitasuna izango litzateke. Hori babes ten dut. Horregatik, bertsolaritzan gertatzen diren tentsioak gizartean gaur egun *pertsona* izateak eta *euskalduna* izateak dituzten esanahien gainean egon daitezkeen eztabaiden erreplika izan daitezkeela uste dut. Gauza bera esan daiteke definizio horietan generoaren nozioak, feminismoak edota emakumeek duten paperaren gaineko eztabaidei buruz.

Orain arte  
bertsolaritzaren izaera  
eta praktika ikuspegi  
androzentriko batetik  
izan da definitua, eta  
garaia da izaera eta  
praktika hori biratzeko  
eta bere atzealdea  
ikusarazteko

Gai konplexu eta korapilatsuak dira. Testu hau gainditzen dute. Halere, ildo horri eutsiz, zenbait hausnarketa plazaratu nahi ditu artikuluko honek. Horretarako bi ardatz nagusi hautatu ditut. Hasteko, bertsolaritzaren inguruan osatu diren zenbait marko teoriko aztertuko dira. Definizio horietako bakoitzak bertsolaritzaren, bertsolarien eta bertsoaren izaeraren definizioari egin dion ekarpenaz gogoetatu nahiko nuke. Ondoren, emakume bertsolariak bertsolaritzan izan (ez?) duten parte hartzearen gaineko hausnarketa planteatu nahi dut, horren inguruan ikertzea eta hausnartzea bertsolaritzaren eta, oro har, euskal kulturaren etorkizunerako ezinbesteko ariketa dela sinisturik.

Testu hau idazten ari naizela, Txinak ilargiaren alde iluna edo ezezaguna esploratzeko bidalitako Chang'e-4 zunda bere helmugara iritsi da.<sup>3</sup> Imajinatu dezaket bidaiaria horren segimendua egin duen lantaldearen emozioa inoiz aztertu gabeko toki horretatik iritsitako lehenengo irudiak jasotzerakoan. Ziur naiz emozio eta zirrara horrek parekotasuna duela batzuek, orain dela ia hamar urte (2009), Maialen Lujanbiok Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa irabaztean sentitu genuenarekin. Lehenengo emakumea zen hori lortzen.

Ilargiaren alde ilun horretatik iristen zitzaizkigun lehenengo irudiak ziren.

## **Bertsolaritzaren, bertsolariaren, bertsoaren izaeraz**

Bertsolaritzaren inguruan idatzi eta horren gaineko teoria egin dutenak, nagusiki, gizonezkoak izan dira. Kasu batzuetan, gainera, bertsolariak edota bertsozaleak ziren. Bertsolaritzaren inguruan osatutako proposamenak ezaugarritu beharko banitu, esango nuke, oro har, bi begirada edota ikuspegi nagusitzen direla. Alde batetik, ahozkotatasunaren teoretatik abiatutako lanak eta gogoeta etnografiko-folkloriko izaeradunak leudeke. Bestetik, ikuspegi soziokulturalagoa dutenak, alegia, ikuspegi antropologikoa, soziologikoa

edota komunikatiboa lantzen dutenak. Bi joera horiek une historiko ezberdinetan garatzen direla uste dut. Aipatutako lehenengoa XX. mendean zehar nagusitzen da; bigarrena, oro har, XXI. mendetik aurrera.

Jarraian, lan horien bidez bertsoaren definizioa, esentzia eta identitatea nola joan den egituratuz aztertu nahi dut. Arreta jarriko dut Manuel Lekuonak, Joseba Zulaikak eta Joxerra Garzia, Andoni Egaña eta Jon Sarasuak osatutako proposamenetan. Horiek hautatu ditut, gurean eredu eta oinarri gisa erabili izan eta erabiltzen direlako bertsolaritzaren gaineko eztabaidak gertatzen direnean.

Lekuona «zer da bertsolari bat?» galderari erantzuten saiatzen da, dimentsio ezberdinak kontuan hartuz. Bertsolaria ez da *bakarrik* kopla abeslari bat, dio Lekuonak. Ezta ere bertsoak osatzen dituen olerkaria. Bertsolaria bat-batean aritzen den sortzailea da. Bertsoak egiten ditu bat-batean, eta hori da bere berezitasuna. Horrek ematen dio interesa horrelako figura bati (Lekuona 1934: 146-147). Bat-batekotasunerako gaitasuna eta abilezia horrek liluratzen du Lekuona. Horregatik, etnografoak kezka nagusi bat du: bat-batekotasun horren baldintzak aztertzea, nola burutzen eta gauzatzen diren. Bertsolaritzan –dio Lekuonak– ez dago alde zuzeneko eredu edo klixerik, dena da bat-batekotasuna. Horregatik, bi bertsolari performatzen ari direnean:

Hain pisu handiko lehia poetikoan, bertsolariak erantzun azkar eta pipertsua emateaz gain, bertsoari dagokion forma neurtua eta errimatua zaintzen du. Horrek, erraz uler daitekeenez, giza-semearen gaitasunak erakusten ditu, abilezia zein buru-azkartasuna (*ibid.*: 150).

Bat-batekotasuna da –Lekuonaren hitzetan– publikoak (etnografoak *jenio herritarra* deitzen duena) bereziki baloratzen duena. Jenio klasikoa ez bezala, bertsolarien publikoak horiek sortzen dituzten irudi bereziak ditu gogoko. Irudi horiek *ituraz* logikarik eta loturarik gabeko irudiak dira, baina inprobisatzaileak erlazionatzea lortzen du, bere

abilezia izugarriari eta pentsamendu azkarrari esker. Lekuonak horrela deskribatzen du (*ibid.*: 150):

Bertsolariarengana itzuliz, bikaina da erakusten duen azkartasuna, uretako euli gisa [...] bere irudimena alde batetik bestera doa, geldiezin eta jolasti, abesten ari den gai nagusiak ezarritako ubidea utzi gabe.

Gainera, bat-batekotasunak badu dimentsio sozial bat, Lekuonak berak nabarmentzen duena (*ibid.*: 148):

Bertsolaria ez da, inoiz, bakarrik abesten duen poeta; aditzen ari den herriarekin batera abesten duen poeta da. Elkar ulertzea hain findua dago, ezen, sarritan, entzulegoak bertsoaren bukaera aurreikusiz bertsolariarekin batera abesten duen.

Joseba Zulaikak (1990) bertsolaritzaren ikerketara jotzen du biolentziaren fenomenoaren ulertu asmoz. Euskal Herriko egoeraz kezkatutako, eta batez ere bere jaioterri Itziarren gertatutako zenbait heriotzari azalpen bat eman nahian, euskal kulturaren funtsezko zatia hartzen dituen hainbat elementu aztertzen ditu. Kulturak ezartzen duen marko horretatik, gertakari horiei argi bat eman nahi die. Elementu kultural nabarmen horien artean bertsolaritza dago. Zulaikak biolentzia gizarte eta ikuskeraren tradizionalean kokatzen du, horren adierazle edo ikur nagusia baserria delarik. Testuinguru horretan, Zulaikak biolentziari aplikagarriak zaizkion eredu kulturalak aztertzen ditu, besteak beste, ehiza edota jokoa. Zulaikaren aburuz, azkenengo horretan kokatu beharko genuke bertsolaritza. Logika amankomun bat edota errepikatzen diren funtsezko elementuak zeharkatuko lituzkete –antropologoaren ustez– aipatu gizarte fenomeno ezberdinek. Horregatik, horietako bat ulertzeko (kasu honetan biolentziaren *logika*) besteen azterketara hurbiltzea proposatzen du.

Zulaikaren ustez, bertsolaria ahozko testuen sortzaile eta ekoizlea izango litzateke. Horretaz gain, ekintza edo jardunaren eredu gisa ikusten du. Bertsolaria ekintzailea da. Hori esanda, Zulaikak nabarmentzen du bertsolarien jarduna ahozkoa dela, horrek bere izaera eta identitatea ezinbestez

baldintzatzen duelarik. Ahozko hitzak interakzioa eskatzen du, pertsona behar du, pertsonala da. Hitzaren eta pertsonaren arteko lotura estu hori funtsezkoa da Zulaikaren interpretazioan, bertsolaritza hitzaren ideologia jakin baten isla dela argudiatuz (Zulaika 1990: 239). Hitzean oinarritutako ideologia hori da (euskal) gizona hobekien definitzen duena, Zulaikaren ustez. Benetako gizona *hitzezko* gizona da. Hitzak gizona ordezkatzeko du, barne esentziaren isla moduan agertzen delako.

Bertsolaria, beraz, hitzaren ideologia sinbolizatzen eta ordezkatzeko duen eredu kulturala litzateke. Bere bertsoak entzuten dituen publikoaren (*herriaren*) mundu sozial, kultural eta intimoaren deskribapena izango lirateke. Bertso horien edukiaz gain, horien egitura, barne logika eta bat-batetea izaera eredu edota ispilu kultural moduan uler daitezke. Zulaikak, horretatik guztitik, itxuraz loturarik gabeko irudien arteko harremanetatik sortutakoa nabarmentzen du, hori baita bertsoen edukia (mamia). Lotura horiek elipsia dute oinarri, bertsoa osatzen duten irudien arteko lotura eza. Elipsiak –dio Zulaikak– harreman jakin bat bultzatzen du, ez kausa-ondoriozkoa, sinboliko-errituala baizik. Logika horrek bide bat ematen dio Zulaikari biolentziaren fenomenoaz azaltzeko. Bere iritziz, hori ezin da kausazko arrazoen bidez azaldu, arrazoi sinboliko edo erritualen bidez baizik. Kulturak –dio Zulaikak– egoera paradoxikoak ezartzen dizkigu, hortik erantzunik ez duten itaunak sortzen direlarik (Zulaika 1986).

XXI. mendearen hasierarekin batera, bertsolaritza ulertze-ko eta azaltzeko proposamen berri bat iritsiko da. Garzia,

Bertsolaritza hitzaren ideologia jakin baten isla dela argudiatzen du Zulaikak. Hitzean oinarritutako ideologia hori da (euskal) gizona hobekien definitzen duena. Benetako gizona *hitzezko* gizona da

Egaña eta Sarasuak (2001) marko teoriko berritu bat dakarte. Horren erdigunean diskurtsoa eta erretorika jartzen dute. Egileek Lekuonaren lana hartzen dute abiapuntu gisa, hura gainditzeko asmoz. Euren iritziz, euskal herri literatura –bertsolaritzaren kokagune egokiena, Lekuonaren ustez– kategoria zabalegia eta heterogeneoegia da: saski-naski bat da, eta, bertan, praktika ezberdinak aztertzeko metodo bera aplikatzea proposatzen da.

Garzia, Egaña eta Sarasuak zaila ikusten dute horrelako planteamenduak bat egitea XX. mendearen bukaeratik garatzen ari den bat-bateko bertsolaritzarekin. Zailtasun horrek bultzatu zituen bertsolaritza ulertzeko marko teoriko berritzaile bat eratzera. Bertan, bat-bateko bertsolaritza bi elementuz osatuta dago. Batetik, testua dugu (bertso batean transkribatu daitekeena); bestetik, entzuleriak eta bertsolariak partekatzen duten testuingurua edukiko genuke (*ibid.*: 141). Arreta berezia jartzen diote, hain zuzen ere, testuinguruari. Izan ere Garzia, Egaña eta Sarasuaren ustez, bat-bateko bertsolaritzak ez du helburu gisa testuak ekoiztea, entzuleen artean zenbait emozio sorraraztea baidzik (*ibid.*: 177). Egileen ustez, horrek laguntzen du bertsolaritza erretorikara gerturatzen eta literaturatik urruntzen. Aristotelesek erretorikaren inguruan osatutako definizioa dute abiapuntu: kasu bakoitzean, aurrean duguna limurtzeko zer egin behar den jakiteko gaitasuna. Hemendik hasita, George A. Kennedy erretorikaren inguruan burututako proposamena bereganatzen dute: hitzaren botere zabalarren barruan eremu mugatuagoa litzateke erretorika, hitzak erabilia edota jaso den egoeran eragiteko duen gaitasuna (*ibid.*: 176). Are gehiago, helburu nagusia hori izanik, ez da beharrezkotzat jotzen *aparteko* bertsoak egitea. Testuinguruari egokitutako bertsoa, bertsoek testuinguruan eragitea eta emozionalki hunkitzea izan beharko luke jomuga bertsolariak (*ibid.*: 152). Egileek azpimarratzen duten moduan, *testuari dagokionez eskasa den bertso bat erretorikoki pieza bikaina izan daiteke* (*ibid.*: 214).

## Hutsuneak (ere) du hitza

Orain arte eta labur bada ere, azken mendean osatutako proposamen teoriko garrantzitsuenei errebaso bat eman diet. Mende bat bertsolaritza teorikoki lantzeko, baina baita ere sozialki eta mediatikoki izugarri zabaltzeko eta hazteko. Horrek guztiak ekarri gaitu gaur egun gauden egoerara. Arrakastaz hitz egin daitekeela uste dut. Eta ez bakarrik zaletuen kopuruari edota publikoari dagokienez. Bertsolaritzak, oro har, jakin izan du egoera sozialari eta une historikoari egokitzen. Praktika tradizionala izaten jarraitu arren, etengabeko berritzeari, modernizazioari, ez dio muzin egin. Ez da joera berdina sumatu munduko beste ahozko tradizioetan, eta, horregatik, nazioartean ere goraiatu da bertsolaritzak egokitzeko erakutsi duen gaitasuna (Foley 2007).

Bertsolaritzarekin lotutako ekoizpen teorikoak asmo bera izan duela esango nuke: berrikuntza eta etengabeko egokitzapena. Hau da, bertsolaritzak bere marko teorikoa sortu, garatu eta egokitu du aldiro-aldiro, une bakoitzak sortzen zituen galderei eta kezkei erantzuteko asmoz. Manuel Lekuonak bertsolariaren figura (pertsone) *sortu* edo definitu zuen. Jada, geroztik, bertsolaria ez da ezdeusa, gaitasun eta abilezia jakin batzuk dituen pertsona da, euskal gizartean eta kulturaren betebeharrak jakin batzuk dituen: *herri jenio edo talentua* da. Joseba Zulaikak Lekuonak ezaugarritutako figura hori erreferente eta eredu soziala bilakatzen du. Bertsolariak izaera jakina du eta jokabide jakin bat dagokio. Bere profila bat egiten du garai hartan (80-90etan) indarrean zegoen gizonezkoen ereduarekin: ekintzan ardaztutako gizona. Ezagutza, informazioa eta komunikazioa deituriko garaian iritsi zitzaigun Garzia, Egaña eta Sarasuak egindako ekarpena. Euren proposamenean bertsolaria komunikatzaile gisa azaltzen zaigu. Diskurtsoen sortzailea eta ekoizlea da. Publikoa berari emana legoke, diskurtsoen bidez limurtzeko gaitasuna ezarriz.

Batzuetan ikusgai gertatu ez bada ere, esan behar dut egindako errebaso teoriko horretan une oro gizonezko bertsolaria



izan dela protagonista. Ez nik horrela erabaki dudalako. Aipatutako egileek eta euren proposamenek ez dute besterik jasotzen. Espresuki egiten diote erreferentzia gizonari, gizon bertsolariari. Eta jakin dezakegu gizona bertsolaria dutela buruan –alegia, ez dutela erabiltzen maskulinoa modu generikoan edo unibertsalean–, denek, uneren batean, emakumeak aipatzen dituztelako. Bertsolaritzan emakumeak ez egotearen arrazoiak ematen saiatzen dira. Aurrebertsolaritzan izandako emakumezkoen figurak jasotzen dituzte, *egun emakume bertsolariak agertzen ari dira* aipatzen dute, edo etorkizunean egongo direlakoan daude egileak. Hori kontuan hartuta, esan daiteke teoria horietan emakume bertsolariak (euren) *huts-etik*, *hutsegitetik* edo *ez-egitetik* egon direla presente.

Orain dela hamarkada batzuetatik hona, *huts* hori begien bistako gauza da. Bertsolaritzaren munduan murgiltzen ari zi-

Etorkizunari begirako  
agertokian, emakume  
bertsolariak *agertu* dira  
(indar gehiagorekin  
XXI. mendetik aurrera),  
eta, batez ere,  
diskurtso feminista  
(bereziki 2008tik)

ren hainbat emakume bertsolari, gai-jartzaile, epaile, aurkezle edota antolatzaile gisa emakume gehiago egotearen beharra aldarrikatzen hasi ziren. Aldi berean, teoria feministaren eremuan, Karmen Larrañagak (1994, 1995, 1997) emakumeek bertsolaritzan izandako parte-hartzearen inguruko lehenengo ikerketa lanak egiteari ekin zion. Laster, hasierako

hausnarketa eta gogoeta horiek borobilduko dituzte emakume bertsolariek beraiek bertsolaritza bezalako eremu maskulinizatuan bizi izandako esperientziak mahai gainean jarritz. Prozesu hori amaitu gabe dago.

Aurretik aipatu den moduan, Zubirik eta Aierdik eginda-ko ikerketan bertsolaritza gizarte mugimendu gisa irudikatzen dute. Egile horien iritziz, gizarte mugimendu horren jomuga hauxe da: bertsolaritzak, praktika kultural horrek,

bizirautea. Horretarako –diote Aierdik eta Zubirik–, mugimenduak estrategia berezi bat garatu behar du. Bere helburua bertsolaritzak aurrera egiteko behar duen testuingurua eta baldintza sozialak garatzea litzateke. Horrek etengabeko aldaketa eta eraldaketarako dinamika eskatzen du. Bertsoak denboran zehar *bizitzeko* behar dituen aldaketak sustatzeko gaitasuna eduki behar du.

Aurrera eta etorkizunari begirako agertoki horretan, emakume bertsolariak *agertu*<sup>4</sup> dira (indar gehiagorekin XXI. mendetik aurrera), eta, batez ere, diskurtso feminista (berreziki 2008tik),<sup>5</sup> bertsolaritzak mende batean zehar garatu duen logikan pitzadura edo arrakala eraginez.

Zergatik?

Horrek guztiak, nire ustez, emakumeen esperientziekin, genero ikuspegiarekin edota feminismoarekin lotutako elementu teoriko-praktikoak barneratuko dituen marko teoriko berri baten beharraz hitz egiten digu. Interpretazio berri bat, bertsolaritzak bizi duen une historiko eta testuinguru sozialarekin bat egiten duena. Nagusitzen den konplexutasunarekin bat egiten duena. Bertsoak, elementu hauskorra, soila eta iragankorra izanik, bizi dugun mundu azeleratura, sakabanatura eta paradoxikora (Esteban 2011: 39) egokitze premia du. Egun euskarak eta euskal kulturak bizi dituzten baldintzetara egokitutako teoria behar da, bertan gako diren nozioak berrikusiz: pertsona, (g)izakia, identitatea.

Bertsolaritza izango denaren zain gaude. Zubirik eta Aierdik irudikatzen dutenaren arabera, bertsolaritzak etorkizuna izango du, neurri batean bertan dagoen dibertsitatea artikulatzen asmatzen bada. Aurretik aipatu denez, bi egileek ezinbestekotzat ikusten dute belaunaldi berrien zein emakumeen artikulazioa gertatzea, geroratzea helburu izan duen tradizio honek aurrera jarraitu nahi badu.

Harkaitz Zubirik azaltzen duenez, artikulazioa «elkar ukitzen ez duten bi mundu elkartzea» da (*Berria*, 2019-01-08). Bere ustez, «emakumeena da gertatzen ari den artikulazio bat», non emakumeen posizioa eta feminismoa biltzen

ari diren. Egun eta praktikan gertatzen ari den fenomenoak litzateke hori, baina zalantzak ditut *artikulazioaren* kontzeptupean jarri beharko genukeen. Rock belaunaldia deitu izan dena (70eko hamarkadan zehar jaiotako bertsolariak 80koaren bukaeran eta 90ekoaren hasieran bertsolari gisa taularatu zirenak) baino lehen ari ziren emakumeak euren tokia bilatzen bertsolaritzan. Rock belaunaldia iritsi zen, eta, artikulazio hori gertatu zen moduan, emakumeena ez zen gauzatu. Urteak pasatuta, emakumeen parte-hartzea nabarmen handitu bada ere, esan dezakegu –Zubiri eta Aierdirekin bat eginez–, artikulazio hori ez dela guztiz gauzatu.

Zergatik?

Agian pentsa dezakegu emakume bertsolarien kasuan *artikulazioaz* baino *des-artikulazioaz* hitz egin behar dugula. Orain arte egindako loturak des-artikulu eta desegin, oinarri berri batekin abiatzeko.

Gizon bertsolari askok aipatu izan duten moduan, euren familietan *benetan* bertsolari gisa aritzen zirenak emakumeak ziren: euren amak, izebak, arrebak eta abar. Testigantza horiei esker dakigu, besteak beste, emakumeen ibilbidea bertsolaritzan oso luzea dela. Hor dugu 1432ko Bizkaiko Forua, emakume profazadoreen jardun publikoa debekatzen zuena. Testuak horrela deskribatzen zituen emakume horiek: «Bazterrak nahasteagatik eta lotsagabe jokatzegatik ezagunak diren emakumeak dira, koplak eta kanta iraingarrien egile» (Larrañaga 1995: 18).

Debeku horren eraginez ala ez, dakiguna da emakume bertsolariak eremu publikotik desagertu zirela XX. mendearen bukaera arte. Tartean erreferentzia gutxi batzuk agertzen zaizkigu, batez ere gizonetako bertsolariekin izandako tratu edo *lehiengatik*. Hau da, gehienetan emakume horiei buruz dakigu gizonetakoekin zuten harreman edo loturarengatik. Edo *norbaitekiko* edo *norbaiten zerbait* dira ala ez dira. Maria Luisa Petriarena Juan Bautista Petriarenaren (*Xenpelar*) arreba zen. Bizenta Mogel Jose Antonio Mogel idazlearen iloba. Mikela

Elizegi, berriz, Pello Errotaren alaba. Baina, zer gertatuko litzateke lotura horiek *-(r)ekin*-ekin irudikatu izango bagenu?

Azken finean, nola sortu da bertsolaria? Nola agertzen da bertsolariaren figura? Nola egituratzen da bertsolaritza, ez bada praktika kultural hori osatzen duten elementu ezberdinen arteko igurtziekin?

Olatz Gonzalezek eta Carlos García, gorputzaren gainean duten planteamendua azaltzeko, bi pelotarien artean sortzen duen harremana eta elkarreragina nabarmentzen dute. Euren iritziz, jokoan, bi gorputzek elkar eragiten dute, bien artean nolabaiteko elkar elikatzea bultzatuz. Elkar *afektatzen* duten gorputzak dira. Egileek *corporear* kontzeptua erabiltzen dute gorputzen arteko eragina izendatzeko. Horrela azaltzen dute (Gonzalez eta García 2018: 242): «Banako bihurtzeko prozesuetan, gorputzak elkar eragitera bultzatzen duen jardun atzemaile eta erlatiboa». Harremanek pisu izugarria hartzen dute definizio horretan, besteekiko garatzen dugun lotura horretan oinarritzen baita norbanakoaren identitatea.

Egile berek adierazten duten moduan:

Ezin da ukatu bizikidetzaren orok elkarrekin gorputz egitea dakarrela, gure bizitzatik aitzak eta amak, anai-arrebak, bikoteak eta lagunak pasatzen diren heinean eraldatzen gaituena, horietako bakoitzarekiko jarduna ezberdina izanik (*ibid.*: 243-244).

Gogoan izan behar dugu bertsolaritza norberak bere buruarekin eta testuinguruarekin mantentzen dituen harremanak bideratzeko ezarritako marko ludiko gisa izan dela definitua (Garzia, Egaña eta Sarasua 2001: 79-80). Hori horrela bada, pentsa al daiteke bertso bat, ez baldin bada harremanen sare gisa? Alegia, izakiz, materiaz eta abarrez osatutako sare moduan ez bada? Pentsa al daiteke orain dela gutxi arte eredugarria izan den gizonezko bertsolaria, ez bada emakumezkoek 'utzitako' hutsune hori gabe? Hutsune horrek adierazten duen hori guztia gabe?

Ikus dezagun Itxaso Martinek (2015: 7) isiltasunaz esaten diguna:<sup>6</sup>

Esaten ez dena, aipatzen ez dena, eta beraz, hutsune bihurtzen dena, hori esan nahi dut isiltasunei/isiltasunari buruz hitz egi-  
ten dudanean. Pluralean eta singularrean erabiltzen dut isiltasun  
asko daudelako, era askotakoak,  
batzuk hitzik gabekoak,

besteak aukeratuak...

batzuk behartuak

Uste dut bertsoak baduela aztertu gabeko dimentsio bat, zeinetan, sortzailearen jentotasuna ukatu gabe, sormen ariketa horrek duen izaera kooperatiboa edota kolaboratiboa agerian utziko lukeen. Dimentsio horrek –aberatsa, askotarikoa eta konplexua– ohiko dikotomiak apurtzen lagunduko luke: gizonezkoak/emakumezkoak; maskulinoa/femeninoa...; horren ordez, arreta jarriko luke protagonismo ezberdinak eta lan kolektibo zein soziala jasotzen dituzten une, momentu edo agerpenetan (Gonzalez eta García 2018: 247).

Ikuspegi hori aplikatzen badugu, esan dezakegu bertsolaritza (bere) hutsunearekin batera, (bere) hutsunearekin bat eginik, (bere) hutsunearekin elkarrizketetan... eraiki dela. Sarritan esan dugu emakume bertsolariak 80ko hamarkadatik aurrera joan direla agertuz,

Emakume profazadoreen debekuak utzitako hutsunea beti egon da hor, eta hutsune horrekin elkarrizketetan eta harremanetan sortu eta garatu da bertsolaritza garaikidea. Hutsune hori bertsolaritzaren parte izan da

gaur egun presentzia nabarmena izan arte. Baina agian hori kontakizun okerra da. Beharbada esan beharko genuke emakume profazadoreen debekuak utzitako hutsunea beti egon dela hor, eta hutsune horrekin elkarrizketetan, harremanetan, elkar eragiten... sortu eta garatu dela bertsolaritza garaikidea. Hutsune hori bertsolaritzaren definizioaren parte izan da, hutsune, ez egote edota isiltasun gisa bada ere. Baina elkar eragite horretan sinesten badugu, jabetuko gara

hutsune horrek bere bidea egin duela, elkar eragite horrek eragina izan duela, hitza hartuz joan dela.

Gizonezkoen hitza eta emakumezkoen isiltasuna erlazionatuta eta lotuta ikusten baditugu, bertsolaritzaren garapena bi indar horien artean etengabe osatzen, eratzen eta egokitzen ari den gorputz gisa irudika dezakegu. Hitzaren eta isiltasunaren arteko *hori* izan beharko genuke aztergai. Maialen Lujanbiok bertsolaritzaren garapena zuhaitzaren azala zartatzen duen bultzada edo indar gisa irudikatu du (2018). Metafora egokia iruditzen zait, batez ere, bertan zuhaitza (azala) eta indar hori (pitzadura) batera irudika ditzakegulako, bien arteko jarduna agerian geratzen delako; biak zuhaitzaren (bertsolaritza) parte gisa agertzen direlako.

Hutsune horiek emakume bertsolariak ordezkatzeko dituzte, eta, pitzadura irekiarazte horretan, hainbat tentsio jarri dituzte mahai gainean. Tentsio horiek itaun edo zalantza moduan ere irakur daitezke, bertsolaritzaren definizioari egindako itaunak edota planteatutako zalantzak.

Besteak beste: posible da gorputzik gabeko bertsolaritza, bertsolaria? Posible da sexu-generorik gabeko hitza irudikatzea? Guztiz neutroa den hitza? Posible da mihiztadura eta lankidetzarik gabeko bertsolaritza? Artistaren jenioan soilik oinarritutako bertsolaritza?

Nire ustez, horiek dira hutsuneak planteatzen dizkigun zenbait galdera interesgarri; horiek dira ustezko isiltasun horrek gordetzen dituen galdera batzuk, apurka-apurka azaleratuz joan diren galderak.

Kasualitatez-edo, gizon bezala izendatutako bertsolariak izan dira bakarrik bertsolariak. Printzipioz, gorputzez eta hitzez neutroak. Artistak, sortzaileak, (herri) jenioak. Baina, finean, ilargiak erakusten digun aldearekin gertatzen den moduan, argitan dagoenak alde iluna ezkuta dezake, hura ere jada ilargiaren parte dena.

Ala ez? 🌊

## Oharrak

1. Ikerketaren egileek zehaztu dutenez, guztira 1.377 inkesta bete ziren, 600 ohiko bertso-saioetan eta 777 2017ko Txapelketa Nagusian zehar.
2. Hori diot, besteak beste, 2018ko udazkenetik Bertsozale Elkarteak etorkizunari begirako gogoeta prozesu bat irekita duelako.
3. Horren berri izan genuen 2019ko urtarrilaren 3an.
4. Azpimarratu nahi dut *agerpen* hori oso modu aktiboan gertatzen ari dela, emakume bertsolariak eta bertsozaleak bultzatzen ari diren foro, eztabaida, topaketa, ikastaro zein hitzaldien bitartez.
5. 2008an abian jartzen da Bertsozale Elkartean *genero taldea* bezala ezagutzen dena. Geroztik, talde horrek –elkartearen babespean–, genero berdintasuna eta feminismoa bultzatzeko asmoz, ekimen asko burutzen ditu, emakumezkoentzat, gizonetzkoentzat eta, oro har, gai hauetan interesa duen ororentzat.
6. Bibliografian ikus daitekeen moduan, bere doktorego tesiaren izenburuan, Itxaso Martinek ere *hutsune* gisa irudikatzen ditu bere ikerlanaren subjektu diren emakumeak.

## Bibliografia

- Esteban, Mari Luz (2011): 'Munduan adi egoteko modu bat'. *Euskal Kulturegintzaren Transmisioa/Transmisión de la Cultura Vasca* aditu titulua eskuratzeko ikastaroko amaierako lana. Argitaratu gabe.
- Foley, John Miles (2007): 'Basque Oral Poetry Championship', *Oral Tradition* 22/2, 3-11.
- Garzia, Joxerra; Egaña, Andoni; Sarasua, Jon (2001): *Bat-bateko bertsolaritza*, Donostia, Bertsozale Elkartea.
- Geertz, Clifford (1989): *El antropólogo como autor*, Bartzelona, Paidós.
- Gonzalez, Olatz; García, Carlos (2018): '¿Incorporar, encarnar, incorporar y/o corporear?', in M.L. Esteban, J.M. Hernández (koordk.): *Etnografías feministas. Una mirada al siglo XXI desde la antropología vasca*, Bartzelona, Bellaterra, 231-249.
- Holbraad, Martin (2014): 'Tres provocaciones ontológicas', *Ankulegi* 18, 127-139.
- Larrañaga, Karmen (1994): 'Bertsolarismo: hábitat de la masculinidad', *Bitarte* 4, 29-51.
- (1995): 'Andra bertsolarien historia', *Bertsolari* 17, 17-20.
- (1997): 'Del bertsolarismo silenciado', *Jentilbaratz* 16, 57-73.

- Lekuona, Manuel (1934): 'La poesía popular vasca', in Eusko Ikaskuntza: *Quinto Congreso de Estudios Vascos. Vergara 1930. Arte popular vasco*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 132-174.
- Lujanbio, Maialen (2018): 'Arbola hazten, azala zartatzen. Azken 40 urteak bertsozolaritzan: bertso eskolak eta emakumeen sarrera'. Argitaratu gabe.
- Martin, Itxaso (2017): *Eromena, azpimemoria eta isiltasuna(k)*. Hutsune bihurtutako emakumeak garaiko gizartearen eta moralaren ispilu. Doktorego tesia. Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Zubiri, Harkaitz; Aierdi, Xabier (2018): 'Bertsolaritzaren azterketa soziologikoa 2015-2018'. Prentsan.
- Zulaika, Joseba (1986): 'Itziar: biolentzia politikoaren ikuspegi etnografikoa', *RIEV* 31, 555-568.
- (1990): *Violencia vasca. Metáfora y sacramento*, Madril, Nerea.



# Bertsoari neurria hartzen

Miren Amuriza, Andoni Egaña eta  
Maialen Lujanbio

■ Miren Rubio Iturria  
*Kazetaria*

**N**orbere doinu eta neurrian aritu dira Miren Amuriza (Berriz, 1990), Andoni Egaña (Zarautz, 1961) eta Maialen Lujanbio (Hernani, 1976) bertsolariak *Bertsolaritzaren azterketa soziologikoa 2015-2018* ikerketako emaitzak aletzen. Datu batzuk harrigarriak egin zaizkie, beste batzuk argigarriak: lau bertsolaritik bat soilik da emakumezkoa, bertsozaleen ia laurdena dago genero kuotak ezartzearen kontra, zirkuitu berriak loratu ahala dibertsifikatu da plaza, txapelketak ezbaian daude... Bizipenekin erkatu dituzte, susmoari izena paratuz sarri. Eta, datuak ispilu, etorkizunera begira aritu dira euren burua plazan irudikatzeko.

Hiru belaunaldi gurutzatu dira solasaldian, beraz. Biderik luzeena egina du Andoni Egañak: Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko lau txapelen jabe, 1990eko hamarkadaz geroztik bertsolaritzaren ordezkari nagusietako bat izan da, bertsokerari egindako ekarpenegatik nahiz bertsolaritzaren egituratzean eta hausnarketan egindako lanagatik. Egungo bertsokera, aldiz, bi txapel buruan dituen Maialen Lujanbioren ahotik eta ahaleginetik etorri da. Estilistikoki zein edukien aldetik, berari zor dio bertsolaritzak egungo molde. Euskal Herriko txapela jantzi duen lehen emakumea

ere bada. Miren Amurizak du ibilbiderik laburrena, baina ez horregatik munta gutxiagokoa: plazarik plaza dabil bere gaitegi eta moldeetatik abesten, belaunaldi gazteagoen kide. Bertso-eskolako irakasle eta eragile ez ezik, Bertsozale Elkartearen genero taldeko partaide ere bada.

Uxue Alberdi bertsolari eta idazleak *Kontrako eztaarritik* liburuan jasotako hamabost emakume bertsolarien lekukotzek ere zeharkatu dute solasaldia. Ikerketak osatutako argazkiari ahotso ipini diolako liburuak, Amurizak, Egañak eta Lujanbiok nola.

## BERTSOTIK IZAN ETA ERAGIN

**Bertsolaritza gizarte mugimendu gisa ulertu behar dela ondorioztatu du ikerketak, kultur diziplina bat ardatz, estrategia soziokultural propio bati esker garatu eta hedatu delako. Zuen burua gizarte mugimendu bateko kide gisa ikusten duzue?**

**Maialen Lujanbio:** Definizio horrek oso eroso sentiarazi ninduen, hala zen zerbaiti izena jarri baliote bezala. Bertsolaritza zaila baita definitzen: euskalgintzan dago, baita kulturgintzan ere, eta, era berean, herrigintzan. Eta horren hurrengo deitura gizarte mugimenduarena litzateke. Ze ikerketaren definizio teorikoak dio mugimendu eraldatzailea dela gizarte mugimendua, eta bertsolaritzak badu eragin hori. Horren parte sentitzen naiz ni, *gintza* horri lotuta beste ardura batzuk ditudalako eta beste zerbaitetan ere ari garelako gure edukiekin, jokatzeko moduekin, funtzionatzeko erarekin, jardun ekonomikoarekin... Zentzu horretan, gizarte mugimenduaren ideiarekin nahiko identifikatuta sentitzen naiz.

**Zuek ere eroso gizarte mugimenduaren definizioarekin?**

**Andoni Egaña:** Hasierara jo behar da hori ulertzeko. 1986ko martxoan jokatutako Euskal Herriko Txapelketa Nagusia oso arrakastatsua izan zen: Donostiako Balda frontoitik Belodromora pasa ginen, 2.000 entzuletik 8.000-9.000ra, eta hedabideek lehen aldiz egin zioten jaramon. Horren ondoren

izandako gogoetatik dator mugimendua eratzearena, bi bide aurkeztu zitzaizkigulako: bata zen kultur proiektu bat lantzea, eta bestea zatekeen momentuko arrakasta ustiatu eta pilota enpresek egin zuten antzekoa egitea, alegia, finalerdia iritsitako hamaseiak koadroetan banatu, herriz herri ibili... Enpresa bat edo sindikatu bat ere sor genezakeen. Baina, ez enpresa ez sindikatu, gurea kultur proiektu bat zela erabaki genuen.

**Miren Amuriza:** Definizio hori irakurtzean konturatu nintzen bertsolaritzak ematen zizkidala beste militantzia esparru batzuek eskaintzen zizkidaten gauza berberak, ordura arte

«Bertsolaritzak ematen dizkit beste militantzia esparru batzuek eskaintzen dizkidaten gauza berberak: eragiteko espazio bat, gu baten parte izatea eta hortik nire ahotsa ere eraiki ahal izatea»

### **Miren Amuriza**

ez nituenak hain garbi identifikatzen. Eta dira: eragiteko espazio bat, gu baten parte izatea eta hortik nire ahotsa ere eraiki ahal izatea. Bertso-eskola bateko kidea naiz, eta herrian eragile aktiboa izateko eta beste eragileekin batera mobilizatzeko gaitasuna duela ikusten dut. Eskala txikian da hori, baina eskolaz eskola biderkatzen da. Eta, bestetik, emakume bertsolari moduan ere sentitzen naiz kolektibo baten parte, sortu dugulako

pentzatzeko, esperientziak trukatze eta eragiteko espazio bat. Sortzaile moduan ere eskaini dit espazio bat, bai bertso-eskolan eta baita emakume bertsolari moduan ere.

**Lujanbio:** Andonik esan duenaren ildotik, egia da nire belaualdiak edo Mirenenak oso egina jaso dugula gutasun hori, eta oso gure sentitu izan dugula. Eta badirudi hori beti izan dela horrela. Ez. Oso bisio handi eta egokiarekin egindako hautu baten emaitza da, bertsolaritza kultur mugimendu bezala ulertu izanaren emaitza. Beste kultur adierazpide

batzuek ez dute gutasun eta proiektu komun bat. Askoz indibidualistagoak dira edo askoz gehiago daude artearen eta norbanakoaren garapenean kokatuak. Kulturgintzan oso bakana da bertsolaritzak duen kultur proiektu eta mugimendu izaera hori.

## BERTSOTAN EUSKARARI ETA KULTURARI LOTU

**Proiektu soziokulturalari esker, izaera propioa lortu du bertsolaritzak, ikerketaren arabera. Aparteko gizarte mugimendua da. Horregatik, euskararen aldeko mugimendurekin bertsolaritzak duen loturari erreparatzen badiegu, zera dio: lotura estua izan arren, bi mugimendu diferente direla. Zenbaterainokoa da, baina, bi mugimendu horien arteko autonomia? Aparteko mugimenduak dira?**

Egaña: Nik ere independente ikusten ditut. Baina egia da ez dugula bertsotan egiten plazer estetiko hutsez. Komunitate linguistiko baten parte sentitzen gara, eta, gure lehengaia euskara denez, derrigor euskararen munduan ibili behar. Miren Artetxe bertsolaria tesia amaitzeaz da bertso-eskolek inguruko hizkuntza komunitatean duten eraginaz, eta erakusten du bertsolariok ezin dugula euskaratik aparte bizi. Esaterako, futboleak jokatzen duen gazteak, entrenatzaileak euskaldunak izanda ere, entrenamendua eta gero euskaraz egin lezake edo ez. Ezin da jakin. Bertsotan dabilenak, aldiz, badirudi baietz. Lehengaia hizkuntza denez, hizkuntza horri atxikimendua eta jakin-min moduko bat eransten zaizkiola.

**Euskara bizien dagoen lekuetan bertsozale gehiago dagoela dio ikerketak, eta euskara ahulagoa den lekuetan bertsolaritzak «hizkuntzaren abangoardia lana» egin izan duela. Ados?**

Lujanbio: Bertsolaritzara hurreratu nahi duenak euskaraz eta euskaratik hurreratu beharko duelako.

**Baina, euskarazko antzerkiak ere bete zezakeen funtzio hori, eta ez du betetzen, ez hain nabarmen, bederen.**

**Lujanbio:** Badaudelako beste elementu batzuk tartean. Batetik, *gintzaren* ezaugarri merke, erraz eta eskuragarriak: ez duzu ezer behar bertso-saio bat antolatzeko, ezta jende askoko alde aurretiko entsegurik ere, eta euskaraz gozatzeko edozeinek egin edo saiatu dezakeen zerbait da bertsoa. Gazte jendearentzat bada horregatik erakargarria, norbere buruaz hitz egiteko erreminta bat delako bertsoa. Eta, bestetik, antolakuntzak eta bertso-eskolak leku guztietan daude.

Hala ere, esango nuke predikzio guztien kontrakoa dela lortu dugun zabalkundea. Orain dela urte batzuk ez zen pentsatuko ere gaur egungo euskal kulturaren erreferente nagusietako bat izango zenik bertsoa, ezaugarri horiek izanda ere.

**Bertsolaritza osasuntsu baitago. Ikerketaren arabera, beste euskal kultur adierazpideen pare kontsumitzen da: antzerkiera edo kontzertuetara adina joaten gara bertso-saiotara.**

**Amuriza:** Euskararenarekin lotuta ikusten dut hori. Euskararekiko atxikimendua edo kontzientzia zioa eskaintzen dugu bertsoaren bidez, praktikan ari garelako hizkuntza erabilgarri bat, espresibo bat... eskaintzen. Baliagarria izan daitekeen tresna bat da bertsoa. Eta uste dut gaztetxoaren artean betetzen duela funtzio hori: euskara batutik euskalkirako zein euskalkitik euskara baturako jauzia egiteko aukera eskaintzen die, esaterako, edo, kaleko hizkeratik aparte, beste maila batean dagoen euskara bizi bat. Tebistan ez daukate halako erreferenterik. Bertsoetatik jasotzen dute euskara hori. Horregatik kontsumitzen dute bertsolaritza hemengo nahiz kanpoko musikaren moduan.

**Egaña:** Gainera, besteen mailan egotea ahalbidetzen digun beste ezaugarri bat du bertsoak: 25-40 segundoko pilula bat da. *Live* kultura honetan, non dena azkar pasatzen den, oso egokia da. 25 segundotan hasi eta bukatzen dugu, eta kontsumitzailearen eskema mentaletarako interesantea da hori.

**Bai, baina bertsoa hitza da, eta irudia gailentzen den garai hauetan, ez dirudi kontsumitzailearen eskema horietara errenditzeko forma egokiena denik.**

**Egña:** Irudia izatez badu bertsoak. BECeko azken Txapelketa Nagusian pantailak jarri ziren, esaterako, eta diferente ere pertzibitu zen saioa. Bertsoak ondo eginez hasi zen Maialen, baina jendeak uste zuen pixka bat txarragoak zirela bere tentsio aurpegiagatik.

**Lujanbio:** Bai, baina jardun arruntean irudia ez da inportantea. Bertsoa hitza da eta *a cappella*, gainera. Ikuskizunaren munduko parametroetan, pronostiko guztien kontrakoa da bertsoaren arrakasta.

## ERMITA ATARIETATIK HIRIRA

**Euskal Herriko biztanleen hamarretik sei hirigunean bizi arren, bertso-saioen erdia baino gehiago antolatzen dira landa eremuan, ikerketak dioenez. Desoreka dago. Bertso-laritzaren kaletartze fasea amaitu gabe dagoen seinale da?**

**Egña:** Azken 30-40 urteak aintzat hartuta, oso hiritartuz goaz, nahiz eta oraindik desoreka izan. Ni hasi nintzenean, orain dela 35 urte, askoz ere *Land Rover* gehiago zeuden saioen atarietan, askoz ere gizonetzko gehiago, janzkera ilunagoak... saio gehienak landaguneetan zirelako. Egun, aldiz, Maialenek eta biok Getxon egiten ditugu bertso-saio gehien.

Baina, egia ere bada beste jardun batzuetan ibili naizenean gehiagotan aritzen naizela hiriburuetan. Orain, esaterako, Korrika Kulturalarekin nabil *Enkarguz* ikuskizunarekin, eta

«Bertsoa hitza da eta *a cappella*, gainera. Ikuskizunaren munduko parametroetan, pronostiko guztien kontrakoa da bertsoaren arrakasta»

**Maialen Lujanbio**

jada Iruñean, Tuteran, Gasteizen, Bilbon... izan naiz. Bertso-tan ere iristen zara leku horietara, baina ez proportzio berean.

Horrek zerikusia du sarearekin. Alegia, saio bat ez da zerotik kantatzen. Getxon hainbestetan kantatzearen arrazoia da oso potentea dela Algortako bertso-eskola, eta denetariko saioak antolatzen ditu Sopelan, Getxoko portu zaharrean, jazzaldian, Erromon... Sarea behar duzu.

**Amuriza:** Kontuan ere hartu behar da bertsoa ez dela ia inoiz isolatuta egoten. Askotan izaten da beste *liturgia* edo jai batzuen parte, eta ohitura horiek aldatuz joateak aldaraziko du zirkuitua ere. Esaterako, lehen Berrizko auzoetako jaietan ermita bakoitzean egiten zen meza osteko bertso-saioa. 5.000 biztanleko herria da Berriz, ez bereziki bertsozalea, eta bost bat ermita ditu. Bertso-saio horiek urrituz doaz. Era berean, lehen existitzen ez ziren saioak ditugu orain. Martxoaren 8aren bueltan, esaterako. Azken batean, gu geu mugitzen gaituzten motiboak aldatu ahala joango gara inguruneak ere aldatuz.

**Lujanbio:** Kontrako norabidean begiratuta, desoreka baino, hiria ere irabazten ari garela pentsa liteke. Iruñerrian, Bilbon, Getxon... saio pila bat egiten dira. Normalizatzen ari gara. Gainera, beste kultur jardunak iristen ez diren leku pila batera iristen da bertsoaritzak. Kontzertuak edo antzerkia iristen ez diren herri-zirkuitu bati eusten dio bertsoaritzak bertso-poteo, bertso-afari, kuadrilla afari eta halakoekin. Leku askotan dagoen kultur aktibitate sarrienetakoa eta gutxienetakoa da bertsoaritzak. Eta, hori galdu gabe, hiria ere bereganatzea gauza ederra da.

**Egaña:** Egia esan, desoreka hori aipatzean, harritu egin nintzen, nire pertzepzioa zelako asko hiritartzen ari ginela eta dezente galtzen landagunea. Goizeko bederatzi terdietako mezetara joan eta gauerdia arte bueltatzen ez zinen saio gutxi daude orain. Meza osteko prediku gutxi kantatzen ditugu jada. Aldaketa hori bizi izan dut nik, jendearen bizimodua aldatzearekin batera.



Interesantea da landaguneko saio txikiei eustea, gainera, lekzio onenetakoa delako bertsolariontzat: gaur BECen 14.000 pertsonaren aurrean arituko zara, eta bihar Arantzako ehiztarien elkartean izango zara 40 lagunen aurrean. Hainbestekoa ere ez zarela konturatzeko ezin hobeto.

**Plaza guztiak ez dira bertsolarientzako berdinak. Hala dio Oihana Bartra bertsolariak *Kontrako eztaaritik* liburuan: «Bertso munduan estatusa ematen du Aian edo Altzon kantatu izanak, eta ez Bilbon edo Santurtzin».**

**Lujanbio:** Gure bertsolaritza tradizionalak eta bertsokera molde horrek baditu katedral batzuk, Aiakoa eta Altzokoa izan litezkeenak. Baina gaur egun Bilbo ere bada katedral bat; Aste Nagusiko Santiago plazako saioa, adibidez. Iruñeko Bertso Aroa beste katedral bat da, saio jendetsuak direlako, gustagarriak, guretzako barrura begira ere inportanteak. Esango nuke elkar komunikatzen duten geruza edo zirkuitu diferenteetan daudela plaza mugarri diferenteak.

**Egaña:** Niretzako Bilboko Santutxuko saioa ere bada Altzoko saioa bezain katedral, esaterako. Plaza horietan beste kultur adierazpideetako sortzaileak egoten direlako entzuten.

**Lujanbio:** Hala ere, ulertzen dut zer dioen Bartrak. Guk ere hori elikatzen dugu, plaza askori ematen diogulako askotan benetan baino gehiagokoa den *erredoble* bat. Zergatik? Gauza askok dute zerikusia. Aiako plaza, esaterako, jendetsua izateaz aparte, ederra da fisikoki. Bete egiten da. Eta baditu tradizioari lotutako elementuak, halako esentzia kutsu bat.

**Amuriza:** Nik ez dut sekula kantatu Aiako plazan. Baina uste dut gauza asko gurutzatzen direla hor. Egia da gutxi zaretela saio guztietan funtzionatu dezakezen bertsolariak. Baina, hori onartuta ere, Aiako edo Altzoko irizpideak zein izaten diren aztertu beharko genuke. Ze, seguru aski, Iruñeko Bertso Arokoak kabida emango dio bertsolari profil zabala-go bati Aiakoak baino. Katedral batzuetan atea estuagoa da besteetan baino.

**Egaña:** Agin Laburu bertsolaria Algortara eramanez gero, agian bere potentzialitateak ez du hain ondo funtzionatzen. Plazetako kanona zein den garrantzitsua baita. Beti egon da horregatik bertsolari batzuekiko mesfidantza, boladan boladakoa, lekuan lekukoa, eta batzuk kanpoan uzteko erraztasuna izan da.

## EZ FIDATZEKO BERTSOZALEA

**Bertsozaleekiko mesfidantza puntu bat ere badago ikerketako zenbait elkarrizketaturen artean. Izan ere, bertsozaleen %14k soilik dute euren burua bertsozale sutsutzat. Gainontzekoak bertsozaleak zein oro har kulturzaleak dira. Gehien-go hori «ez hain fidatzeko» publikoa dela dio elkarrizketatuetako batek, «esnobismoak erakarrita» zaletu direlako.**

**Egaña:** Irakurketa hori ezin da egin, errespetu gehiago zor zaio jendeari.

«Bigarren boom garai batean gaude, eta oso interesantea iruditzen zait gertatu den plazaren dibertsifikazioa. Gaur egungo dibertsifikazioa naturalagoa da, sare naturalagoetatik abiatzen delako»

**Andoni Egaña**

**Lujanbio:** Kultur erreferentzia zabalagoak dituzten bertsozaleak izatea ona eta osasungarria da. Garai batean homogeneoagoa zen bertsozalea, eta, zalea bazen, sutsua zen. Esango nuke Xabier Amurizaren eta Andoniren garaitik aurrera zabalduz joan dela hori, bertsoa beste kultur jardunekin elkarlanean jartzeko interesagatik.

Esaterako, nire bertso-eskolako jendea oso bertsozalea zen, baina haietako gehienekin zaila egiten zitzaidan nik neuzkan beste kezka batzuk konpartitzea. Gure gazte belaunaldia plazaratu zenean, etena ekarri zuen, bertsoaren tradizioetik

baino bestelako kultur erreferentzietatik hurbilago geundelako. Beste mundu bat genekarren. Ez dakit zehazki hori izan ote zen galbahea, baina bertsolari tradizionalenek ez zuten plazan jarraitu, eta gainontzeko guztiak plazaratu ginen.

Egoera horrek zerikusia du gaur egungo bertsozaleen egoerarekin. Nire ustez normala da gugana datorrena gu bezalakoa izatea.

**Egaña:** Huskeria bat da, baina aurrekoan *Berria*-ko zutabeetan idatzi nuen bertsoa utzi duten gehienek izengoitia zutela. Ze bere burua izengoitiz izendatzen duena mundu jakin batek dator, eta horiek beste mundu batekin egin zuten topo. Publikoa gero eta ezpalduagoa dago, Joxerra Garziak esaten duen bezala.

**Amuriza:** Askoz ere aukera gehiago zabaltzen dizkigu bertsolari publiko mota horrek. Talaia diferente baten aurrean jartzen garen neurrian, beste erregistro batzuk exijitzen dizkiozulako zure buruari. Bertsokera diferenteak egin ahal dira eta kabida ematen die bertsolari mota gehiagori. Prestigio korrelazioa aldatu egiten da, gainera. Guri gertatu izan zaigu hori espazio feministetan: badaude feminismitik bertsolaritzara gerturatu diren zaleak eta ia bakarrik emakume bertsolariak ezagutzen dituzte. Asko aldatzen du horrek jokia, plazak eta erreferentzialtasuna konpartituago eta banatuagoa geratzen delako.

**Egaña:** Hori ere lotuta dago oraingo egoerarekin. Bigarren boom garai batean gaude, eta oso interesantea iruditzen zait gertatu den plazaren dibertsifikazioa. 1980ko hamarkadaren bukaeran eta 1990ekoaren hasieran arlo diferenteetan gertatutakoek ekarri zuten boom bat: 1986 eta 1989ko txapelketen arrakastak, hedabideen bultzada, Fermin Muguruzak eta Negu Gorriak taldeak Anjel Mari Peñagarikanoren eta bion bertsoa grabatu izana... Baina, arrakastaren eredu hori monolitikoagoa zen. Jaialdi handiak ziren, sei edo zortzi bertsolarirekin eta milaka pertsona entzuten. Eredu hori zegoen bakarrik. Bertso teorik, esaterako, apenas. Horregatik esaten dut oraingo dibertsifikazioa ongi iruditzen zaidala.

### **Ikerketak baitio bigarren boom hau bertso-saio txikien ugaritzearen ondorioa dela.**

**Egaña:** Bai, sanoagoa da. Gaur egun dagoen dibertsifikazioa naturalagoa da, sare naturalagoetatik abiatzen delako. 1990eko hamarraldian bertso-saioak antolatzen ziren bertsolaritza modan zegoelako. Zarauzko arraun taldeak deitu eta arrakasta zuen saioak. Baina, bertsolaritzaren sare horretatik kanpo antolatzen ziren saioetako asko, eta kontrolagaitzagoak ziren.

**Amuriza:** Plazaren dibertsifikazioari ikusten diodan arriskua da plaza jakin batzuetara akomodatu zaitezkeela bertsolari moduan. Bakoitzak badaki zein den bere eremu eroso, eta hortik kanporako saioetara irteteko nagitasuna izan dezakezu. Norbanakoaren ardura da hori, hala ere. Eta, bestetik, zenbat eta zirkuitu gehiago sortu, arrisku gehiago egon daiteke elkarrengandik urruntzeko. Bertsolari kopurutxo bat egongo da zirkuitu batean eta beste batzuk beste batean, elkarren berri izan gabe. Uste dut hori neurri batean jada gertatzen ari dela. Eta hori ez gertatzeko ardura denona da, batean zein bestean dabilenarena: bertsolaritzan gabiltzanok jakin behar dugulako zer ari den gertatzen hain geuretzat ez ditugun espazioetan.

### **Elkarren berri behar bezala ez duten bi zirkuitu baldin badaude, sarea saretzen ari dela esan daiteke?**

**Lujanbio:** Espezializazio moduko bat dago, oraindik ere puntuala dena. Bi zirkuitu edo ertzei begiraturaz gero, demagun: *Ez da kasualitatea* edo giro feministako saioak ertz bat balira, eta beste muturrean baleude egun pasak edo baserri giroko saioak, elkarren arteko inkomunikazioa egon daiteke.

Hala ere, masa nagusia bi ertzen erdian dago, eta batzuetan alde batera edo bestera jo arren, interkomunikatuta daude. Mutur horietan dabilen jendea nahasten da beste zirkuituetan. Baina egia da estilo edo korrante batzuek ez dutela elkarren berri.

**Egaña:** Zarauzko koplak txapelketaren arrakasta nahasketa horretan datzala uste dut. Millan Telleria eta Oihane Perea

elkarrekin jartzean, esaterako, izen batzuk aipatzearen. Ze Millan Telleriak egiten dituen saioak landa eremuetan egingo ditu, egun pasa tankerako horiek. Oihane Perek ez ditu hala-koak egingo, eta gutxiago Gipuzkoako landa eremuan. Bertso Egunean akaso izango dute elkarren berri, baina bestela Zarauzko koplak txapelketan elkartuko dira. Baina, egia da muturretan hori gertatzen ari dela, baina muturretan bakarrik.

**Amuriza:** Nik uste naturala ere badela hori gertatzea. Kontua da elkarren gutxiespenik ez egotea, alde batean zein bestean. Seguru asko aurreiritzi asko dago, eta baita elkarren ezezagutza ere.

**Lujanbio:** Dena den, bertsolaritzak ezaugarriren bat izan badu, nahaste hori izan da. Millan Telleriak eta Oihane Perek topo egiten duten lekua da bertsolaritza. Eta izugarritzko zortea da hori guretzat. Ni bezalako Hernaniko neska batentzat Andonik aipatutako Arantzako ehiztarien bertso-bazkarira joan ahal izatea, esaterako, izugarritzko aukera da. Aberastasuna da, irakaspen bat.

Baina, egia da nahaste hori beti izan dela giro jakin batzuetan. Ze, lehen emakumeen saiorik ez zegoenez, guk joan behar izaten genuen beti beste aldera, eta ertz hartan egiten genuen topo. Horrek esan nahi du elkargunerako topalekua zentroan eta aldamen jakin batean egon dela. Orain beste aldean ere sortzen ari da zirkuitu bat, guk bere garaian gartzetxeetan egin genuen moduan. Eta, ondorioz, orain hori ere orekatu behar da.

## JUSTIN BIEBER, LEHIA ETA AITORTZA

**Euskal Herriko Txapelketa Nagusiak erakartzen du jende gehien, eta zer erranik ez finalak. Urtean zehar bertso-saioetara joan zen publikoaren %10 inguru soilik zen Txapelketa Nagusiko finala entzutera joandakoa, ikerketaren arabera. ‘Ez fidatzeko’ jendea nagusi.**

**Lujanbio:** Aparteko egun, gune, modu... bihurtu da finala, eta ez dut txarrera esaten. Ez fidatzeko jendea etortzen bada, etor dadila. Gogoratzen naiz nola gure Bilboko lagun batek kontatu zidan bere 15 urteko alabak, Justin Bieberren posterrak gelan dituenak, ilea plantxekin lisatzen ari zen bitartean esan ziola telefonoz bere lagunari BECera joango zela, lehenengoz. 15 urte, Bilboko neska gazte bat.

**Beraz, zenbatetik du finalak euskal komunitatearen ospakizunetik, ikerketak dioen bezala, edota 'ebentotik'? Justin Bieber zara egun horretan, Maialen?**

**Lujanbio:** Ez nuke hala izan nahi...! Dena den, ni ere banago arduratuta Txapelketa Nagusiaren etorkizunarekin, edo bide horrek eman dezakeenarekin. Egia da eztabaida hori

'klasikoa' dela gure artean, arrakastarekiko oso zuhurrak izan garelako elkarte eta mugimendu modura. Baina, era berean, egia ere bada Euskal Herrian, euskararen munduan eta kulturaren, oso gauza gutxi daudela hain jendetsuak eta arrakastatsuak. Uko egin behar diogu dugun gutxi horri? Horrek ematen duen zabalbundeari, bertsolaritzaren sozializazioari, erakusleioari? Akaso ez gaude luxu horietarako. Gure errealitate gordina ikusita, akaso hori eta beste guztia beharko dugu.

«Ni banago bereziki kezkatuta finalak hartu duen dimentsio eta ebentotasunarekin. Ze berez zerbait kreatiboa egitean datza txapelketa. Jendeak ez badu ulertzen zertarako diren eta zergati bat dutela, larria litzateke»

**Maialen Lujanbio**

Baina, hori jakinda ere, ni banago bereziki kezkatuta finalak hartu duen dimentsio eta ebentotasunarekin. Ze berez zerbait kreatiboa egitean datza txapelketa, eta sorkuntza horren bidez herrigintzari, euskalgintzari eta kulturari gure aletxoak jartzen diogu. Beraz, kezagarria izango da sorkuntza eta herrigintza

funtzio hori estaltzen badu ebentotasunak, eta jendea lehiagatik bakarrik etortzen bada gu ikustera. Kendu gabe lehiak baduela bere erakarpena eta txapelketa horregatik ere badela erakargarria. Baina, jendeak ez badu ulertzen txapelketak zertarako diren eta zergati bat dutela, larria litzateke.

Horregatik, igual hurrengo finala ez dugu BECen egin behar edo, esaten den bezala, San Mamesen. Akaso kontrako norabidean joan behar dugu, eta, entzuleak galduta ere, Iruñean, Baionan... beste lurralde batean egin, ereiten jarraitzeko.

**Ikerketak eztabaida horixe islatzen du. Ez bakarrik Euskal Herriko Txapelketa Nagusiarekin, baizik eta txapelketek oro har hartu duten zentralitatearekin. Txapelketei «alternatibaren bat» bilatu behar zaiela diote elkarrizketatuetako batzuek.**

Egaña: 1997an pentsatzeko jardunaldi sakon batzuk egin genituen, eta erabaki genuen txapelketak antolatuko genituela baldin eta bere funtzioa betetzen bazuten. Esaterako, 1995eko Gipuzkoako txapelketan bost bat bertsolarik erabaki genuen ez joatea, tapoia egiten ari ginelako bazetorren beste belaunaldi bati. 20 urteko Aitor Mendiluzek irabazi zuen txapelketa hura. Gero, 1998an ikusi genuen txapelketek ez zutela funtziorik izango ez bazen epaimahaikide berriak, gai jartzaile berriak eta abar sortzeko. Herri arteko txapelketa egin zen. Horregatik, lehia bai, baina beti ere oso ondo neurtzen bada zein den lehia bakoitzak betetzen duen momentuko funtzioa.

Nik hartu dudan haserrealdirik handienetako bat 2009ko txapelketan izan zen. Betiko tabernara joan eta betiko kafea hartzen ari nintzela esan zidan batek: «Andoni, makinan 1,82tan hago». Apustu makinetan zeuden txapelketako bertsolarien izenak. Hor ez funtzio ez ezer, lehia hutsa.

**Txapelketa Nagusiaren kasuan, ikerketak dio ez dagoela erabat garbi bertsolaritzaren proiektu soziokulturala hedatzeko funtzioa betetzen jarraitzen ote duen, alde batetik,**

**eta, bestetik, bertsolari eta bertsokera berriei leku egiteko funtzioa betetzen ote duen.**

**Egaña:** Bertsokera berriei dagokienean, behintzat, txapelketak ikaragarriak direla esango nuke. Bertsolariak artistikoki bere maximoa ematen entzutea ikaragarria iruditzen zait. Norbaitek esan dezake maila hori urtean zehar ere eman dezaketela. Ba ez. Prestakuntza maila horri ez dago urtean zehar eusterik irabazten duguna irabazita. Eliteko kirolariak bagina, akaso.

**Amuriza:** Kontraesan piloa sortzen dit niri lehiak. Bertso-eskolako irakasle modura, beste balio eta moduak lantzen ditugu umeekin. Baina, gero, bertsotan ibilbide bat egiteko, lehiara bideratzen dira. Txapelketa delako bertsolariari maila aitortzeko eta legitimatzeko dugun egitura bakarra. Kontraesan handiak sortzen dizkit horrek. Ze nahi duenak bide hori izatea ondo dago, baina ezin da izan bertsotan ari-tzeko bide bakarra.

Gainera, askoz jende gehiago gara txapelketetan sufritzen dugunak ez dutenak baino. Inguruan ikusten dut zenbat eragiten digun autoestimuan, bertsotarako gogoan... Ez da posible txapelketa txar bat egin eta halako amildegia sortzea. Are gutxiago esaten ari bagara gero eta plaza dibertsifikatua-goak dauzkagula, gero eta aukera gehiago.

**Miren Artetxe bertsolariak *Kontrako ezta* liburuan dio bertsolari bilakatzeko «beste bideak» ere behar direla, «motelagoak eta bihurriagoak».**

**Amuriza:** Bai, eta badaude moduak. Ze ikusgarritasuna da txapelketak duen abantailarik handienetakoa. Txapelketa on bat egiten baduzu, zirkuituan egongo zara, antolatzaileek eta bertsozaleek ikusi eta ezagutu zaituztelako. Indar mediatiko handia jartzen baita txapelketetan.

Ez dut uste hain zaila denik erakusleiho hori beste esparru batzuetara ere zabaltzea. Esaterako, *Europa bat-batean* edo antzeko saioak antolatzen direnean, indarra jartzen da hor



eta ikusgarritasuna lortzen dute. Beraz, txapelketatik kanpo dauden beste zirkuitu eta jardunei ere jar dakieke fokua, prestigioa emateko.

**Egaña:** Ados horrekin. Baina txapelketei funtzio garbia ikusten diet nik: artistikoa, batez ere. Gainera, txapelketarik gabeko jardun bat feudalagoa litzateke. Xabier Amuriza bera izan zen izan zena txapelketak irabazi zituelako, eta irabazita ere dudan jartzen zuten klasiskoenek. Txapelketak jokatu ez balitu...

**Amuriza:** Bai, baina beste aukera batzuk ere behar ditugu, ezin delako egun txapelketa izan bertsolari bihurtzeko bide bakarra.

**Lujanbio:** Bai, zurekin bat nator. Guk geuk ere elikatu eta sinistu behar dugu hori. Txapelketara ez joatea erabakiz

gero, bilatu behar dira beste zirrikitu eta zirkuitu batzuk. Gero, jakina, gure komunikazio erremintak eta abar eskaini beharko dira hori prestigiatzeko. Baina, norberak ere egin behar du lan hori.

Bestetik, txapelketak ere nola bizi ditugun berrikusi beharko genuke, pertsonalki zein kolektiboki. Akaso gehiegi jartzen dugu txapelketaren gain. Eta, noski sufritu eta gaizki pasatzen dugula, dudarik gabe!

Hala ere, esango nuke txapelketa ez dela lehiaketa arrunt bat, kirol norgehiagoka baten modukoa. Nik benetan sinisten dut inor ez doala bakarrik lehiatzera: gure buruarekin borrokatzera goaz, kreatiboki ahalik eta ondoen egitera, eta horren emaitza lehian aurrera egitea izan dadila nahi dugu. Ez da hainbeste txapela irabaztea, baizik eta lana ondo egitean datza. Gauza ederrak ginez irabazi nahi duzu txapela. Eta

«Ez da posible txapelketa txar bat egin eta halako amildegia sortzea. Txapelketatik kanpo dauden beste zirkuitu eta jardunei ere jar dakieke fokua, prestigioa emateko»

**Miren Amuriza**

aitortu behar zaio badagoela plazer estetiko bat, bere sufri-  
mendu eta aje guztiekin: zure onena ematearen plazera, bes-  
tela sortzen ez dena. Oraingo, behintzat, gure sorkuntzaren  
gorena txapelketetan ematen da, zoritxarrez edo zorionez.

### **Modu horrek ere ez al du sorkuntza jakin bat eta modu jakin bat bideratzen?**

**Lujanbio:** Bai, dudarik gabe. Nire ustez txapelketa da bertso-  
tan egiteko modu bat. Aparteko bertso genero bat, ez dauka-  
na beste generoekin askotan harreman handirik.

## **BERTSOLARI AUTENTIKOAK ETA GENEROA**

**Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko azken finalean ezta-  
baida piztu zen bertsokeraren inguruan. «2017ko txapel-  
keta nagusian *zirtolariak* eta haien *naturaltasuna* gorai-  
patzen zuen iritzi-korrontea esanguratsua izan zen, adi-  
bidez», dio Uxue Alberdik *Kontrako ezta-ritik* liburuan. Twitterreko Patxi Bakallo trollak ere islatu zuen eztabaida hori sare sozialetan.**

**Amuriza:** Adierazle bat izan zen Patxi Bakallo trolla, ez ba-  
karririk broma bat. Gaingidutzat jotzen genuen diskurtsoa  
oraindik ere badagoela erakutsi zuen: naturaltasunarena,  
zirtolariena, *arranke*a behar duela bertsolariak, azkartasuna...

**Egaña:** Jarrera 'artzat' har daitezkeen ezaugarriak, alegia.  
Baina, hori beti gertatu dela esango nuke. Tradizioaren eta  
sormenaren arteko oreka da bertsolaritza, eta oreka horretan  
beti egongo dira ikuspegi batzuk tradizioa hobetsiko dutenak  
sormena baino, eta alderantziz. Orain arte gertatu ez dena  
da, ordea, sare sozialetan ematea hori anonimatoaren bidez  
eta txapelketa baten atarietan, eragingo zuela jakinik.

**Idurre Eskisabel kazetariak bestelako irakurketa egin zuen  
Berria egunkariko artikulu batean Patxi Bakalloz: «Haren**

**ildoan dabilzan asko eta askotarikoen inkorrektzio errebol-tan kokatuko nuke. [...] inkorrektzioarena bainoago autentizitatearen eta esentziaren lurrinak baitakarzkit. [...] Autentizitateak, bertsolaritzan bezala jardun publiko guztietan, gizona, maskulinoa baitu eredu bakar, ezinbestean».**

**Egaña:** Bai, artasunaren ikuspegi bat ere bada. Patxi Bakalloren profila gizona dela esango nuke. 35-40 urte bitartekoa, gipuzkoarra. Zarautz-Oiartzun-Hernani-Azpeitia artean kokatuko nuke. Herniotik ikusiko genuke.

**Lujanbio:** Sare sozialek nazio iritzi bihurtzen dituzte tabernetako elkarrizketak, eta, txio bat izanda ere, gure pertzepzioan eragiten dute. Dena den, emakume belaunaldi gazte baten bertsokerarekiko erreakzioa ere bada, eta, txapelketaren kasuan, bertso-molde horren potolotasunerako eta lirikotasun hutserako joerarekiko erreakzioa ere badela esango nuke.

**Nerea Ibarzabal bertsolariak are gehiago zehazten du bere ezinegona: «Sentitzen dut badela mutil gazteagoen taldetxo bat, antolatua, erronka jo nahi diguna. Ikusten ditut landu dugun guztiaren kontra, berriro oso lehiakor, oso maskulino... Sumatzen dut badagoela feministen aurkako tentsio bat, erronka bat», dio liburuan.**

**Lujanbio:** Gu gazte belaunaldi bezala sartu ginenean, entzuten genuen: «Hori ez duk bertsoa, ez zakitek kantatzen, ze doinu... Hori ez duk euskara!». Orain gauza paralelo bat gertatzen ari da, baina are erro sakonagoekin. Orain emakume gazte pilo bat ari da plazan sartzten, diskurtso berri batekin. Askori eragiten die zuzenean, ez bakarrik tematikoki, baita bitalki ere. Baditu paralelismoak guk bizi izandakoarekin, baina generoaren konponenteak dauden aldetik, are sakonagoa da.

**Amuriza:** Baina zuoi, Maialen, jende heldua zen kritika horiek egiten zizkizuenak. Orain gure arteko eta adineko mutilak dira kritikatzten gaituztenak. Gainera, Andoni, zuk kokatu duzun adin tarte hori baino are beherago kokatuko

nituzke nik. Eta esango nuke diskurtso feministaren kontra-ko erreakzio orokor horretan kokatzen direla.

**Emakumeak plazan gutxiengoa zaretela erakusten dute datuek, ordea. Plazetan dabiltzan bertsolarien %20 dira soilik emakumeak. Eta, bertsolari guztien zerrenda hartuz gero, lautik bat da emakumezkoa.**

**Egaña:** Harritu egin naiz datu horrekin, egia esan. Emakume bertsolari gehiago zeudela uste nuen.

**Lujanbio:** Kontua da emakumeak asko 'okupatzen' duela, emakume bezala. Esaterako, gure munduko gai bat hartzen baduzu bertsolarako: «Joe, zenbat hitz egin duten emakumeen gaiez...». Emakumeak markatuta gaude eta asko okupatzen dugu. Gizon pila bat baldin badago, aldiz, ez dira ikusten, neutroak dira. Horregatik, emakume bertsolarien %25 horrek uste baino gehiagoko pertzepzioa sortzen du.

**Amuriza:** Gehiago garelako pertzepzio hori ere badago gutako askok presentzia handia dugulako bestelako esfera pu-

blikoetan. Literatura idazten gabiltza, telebistan, zutabeak idazten ditugu, sormen lanak... Ikusgarritasun horrek ere distorsiona dezake plaza-  
rekiko ikuspegia.

Eta, bestetik, Maialenen txapelak ere sortzen du halako 'tranpa' bat: «Maialenek irabazi badu txapela, zuek ere ahal duzue, ateak zabalik dituzue», diote. Berdintasun sentsazioa sortzen du, erreala ez bada ere. Ze, bertso-eskoletako datuei begiratzen badiogu, alde nabarmena dago: bertso-eskoletan neska-mutilak erdi eta erdi

«Emakumeak markatuta gaude eta asko okupatzen dugu.

Gizon pila bat baldin badago, aldiz, ez dira ikusten, neutroak dira. Horregatik, emakume bertsolarien %25 horrek uste baino gehiagoko pertzepzioa sortzen du»

**Maialen Lujanbio**

izaten dira, eta 18 urtetik aurrera emakume bertsolariak %20 izatera pasatzen dira. Beraz, abiapuntua ez da berdina, eta hori ez da kanpotik ikusten. Maialenen figurak engainatzen du.

**Diskriminazio positiboa egitea, hau da, plazan berdintasuna lortzeko kuotak paratzea izan liteke horri buelta emateko aukeretako bat. Baina, ikerketan galdeketa egindako bertsozaleen laurdenak dio ez dagoela emakumei leku handiagoa egitearen alde.**

**Lujanbio:** Datu horrek ez nau harritu. Gai horrekin sentibilizatu eta ideologizatu gabeko jendeak ustez zintzotasun batetik esaten duelako 'emakume bertsolari onek' iritsi behar dutela, ez besterik. Alegia, ez dela hainbeste emakumeen kontra daudela, baizik eta lagundu gabe onak badira iritsiko direla pentsatzen dute. Gauza guztiak neutroak balira bezala. Baina, benetako egoera zein den begiratu eta bertso-eskole-tako grafiko katastrofiko horretan dago kontua.

**Egaña:** Eta, noski, bertsolari ona izatea zer den ere aztertzea da kontua. Garai batean ona zena orain ez delako, eta lehena ez zena orain bada. Erlatiboa da hori ere.

Dena den, datu horrek ez nau ni ere harritu. Bertsozaleek badiote, tira. Kezkatzen nauena da antolatzaileen sarean daudenek ere hori pentsatzen ote duten. Horregatik, Bertsozale Elkartek erdi eta erdi izatea bermatu beharko luke, bai behintzat berak antolatzen dituen saio guztietan. Egia da Elkartek gauza gutxi antolatzen dituela, baina horietan jada 'erradikala' izango nintzateke.

**Horri lotuta, Nerea Ibarzabalek honela dio liburuan: «Bardakit jendeak esaten duela gure adineko neskok merezi baino plaza gehiago dauzkagula eta gure maila bera edo hobearen mutirik gabe daudela». Plazan emakume bertsolariak %20 izanda ere.**

**Amuriza:** Aipatutako joera erreazionario horren barruan kokatzen da. Gure belaunaldiko mutilek eta gaztegoek euren

burua berdinaletzat daukate. Baina, ez dute ikusten beren abiapuntua eta gurea desberdinak direla. Errezelo hori sumatu dugu, esate baterako, ahalduntze eskolak sortu ditugunean: «Gu baztertzen ari zarete, neskei formazio plus bat ematen ari zaretelako, eta zergatik ez guri». Ez dute euren buruaren irakurketa kritikorik egin. Laguntza nahi badute, lagunduko ditugu, baina ez dizkiegu etxeko lanak egingo. Hori beraiek egin behar dute.

**Lujanbio:** Betekada sentsazio horrekin dago lotuta. Erdi-maillan dabilzan bertsolarien masa orokor horri begiratzen badiogu, emakume batek askoz ahulagoa eta txarragoa dirudi gizon batek baino. Gizon bat mediokrea izan daiteke, jasan dezakegu. Andre bat, aldiz, ezin da mediokrea izan, jasanezina egiten zaigulako; plaza pila bat 'betetzen' duelako. Gizon bertsolari 'arrunt' pilo bat dago, baina emakume bertsolari 'arrunt' bat ekartzen denean, «Hau ere ekarri dute ba...» esaten da.

**Egaña:** Gainera, gizon mediokreak ontzat sentitzen du bere burua. Emakume mediokreak ez, derrigorrez izan behar duelako ona. Edade batzuetan areago, gainera. Eta nerabezaroan edo gaztaroan harrapatzen bazaitu horrek, hasten zaren garaian... pentsa!

## GIZONAK GIZONEN ALDE

**Kuotez gain, aldaketa kualitatiboak ere behar dira parekidetasuna lortzeko, dio ikerketak. Esaterako, kanon eta gus-tuetan. Eta horretan ere generoaren arabera diferentziak atzeman ditu. Adibidez, bertsozaleen hamar bertsolari kuttunenak zein diren galdetzerakoan, gizonak Amets Arzallus aukeratzen dute lehen postuan. Bigarreanean Maialen Lujanbio. Ondoren ez dago beste emakume bertsolariarik. Emakumeei galdetuz gero, Lujanbio da gustukoena, eta hamarreko zerrendan ere ageri dira Miren Amuriza eta Nerea Ibarzabal. Nola ulertu kuttunen bereizketa hori?**

**Lujanbio:** Niretzako oso esanguratsua izan da datu hori. Emakumeak nire alde daudela entzuten pasa dut bizitza osoa: emakumeei zu gustatzen zatzaizkie, finalean bakarra zarenez beraien ordezkaria zara... Hori ez dut gaizki bizi izan, ardu-raz bai, eta egia da emakume asko nire alde daudela, nirekin identifikatzen direlako. Baina esaten ez dena da beste guztiak, gizonak oro har, gizon bertsolariekin identifikatzen direla. Eta hori ez da ikusten, neutroak direlako.

Alegia, hori esaten denean haxe esan nahi da: emakume bertsozaleak emakume bertsolarien zaleak dira, eta gizon bertsozaleak dira bertsozaleak. Modu neutroan. Hori horrela zela banekien, inork ez esan arren. Orain estatistikan erretratatuta ikusi dugu!

### **Eta zergatik daude gizonak gizonen alde, nolabait esatearren, eta ez zure alde?**

**Lujanbio:** Beste desoreka bat dagoelako. Emakume bertsozaleok, eta emakumeok oro har, ez dugu arazorik gizon bertsolari batekin identifikatzeko. Ni identifika naiteke Andonirekin edo Ametsekin, adibidez, eta bertsolari moduan gogoko ditudala esan. Gizonezkoak, aldiz, ez dira emakume batekin identifikatzen, normalean. Desoreka sortzen da: emakumeak gai gara gizon nahiz emakume sortzaileekin identifikatzeko, eta gizonak bakarrik gizon sortzaileekin, oro har.

Esparru guztietan pasatzen da hori, jakina. *Berria*-n elkarriketatuei egiten zaizkien galdeketa labor horietan, esaterako, gizonak ez dute inoiz emakume musikari, idazle edo kirolari bat aukeratuko erreferente moduan. Emakumeek, aldiz, emakumeak eta gizonak aipatzen dituzte. Erreferentziaren sortze lan oso zaila dugu hor.

**Egaña:** Nik zerrenda egingo banu, badakit zer aukeratuko nukeen, gizon izanda ere: Maialen. Eta kirolari gustukoenez galdetuta, igual Maialen Chourraut esango nuke lasai-lasai.

**Lujanbio:** Egia ere bada bigarren nagoela gizonen hautuen zerrenda horretan. Herenegun arte ezinezkoa zen hori. Aski

emakume bertsolaririk ere ez zegoen... Beste neutroaren konkista bat ere bada.

**Amuriza:** Horrek txapela irabazi izanarekin ere izango du zerikusia, seguruenik. Dena den, nik uste gizonak ez direla gurekin identifikatzen gure diskurtsoarekin interpelatu

«Gizonak ez dira gurekin identifikatzen gure diskurtsoarekin interpelatu ditugulako. Parean jartzen diegu ispilua eta ez da eroso eurentzat, ez da gustagarria»  
**Miren Amuriza**

zen ditugulako. Ze bertsotan erretratatu ditugun gizonak ez dira askotan euren gustukoak izango. Parean jartzen diegu ispilua eta ez da eroso eurentzat, ez da gustagarria. Eta, gainera, etengabe gabil-tza atzamarra zaurian sartzen.

**Lujanbio:** Hori da gure gazte belaunaldiarekiko diferentzia. Guk gazte bezala ez genituela hainbeste interpelatu. Diskurtso feminista askoz ere deserosoagoa da.

### **Plazetan sumatzen duzue hori, ‘errezelo’ hori?**

**Egaña:** Halako datuek erakusten didate ez dudala bertsozalegoa uste bezainbeste ezagutzen. Harrigarria zait jendearen zurruntasuna hainbesterainokoa izatea. Gizonek bertsolari kuttunena Amets izendatzea, ados, noski, Amets izendatu daitekeelako Maialen bezala. Baina generoen zatiketak halako zerikusia izatea, harrigarria bezain kezagarria zait.

Egia ere bada Maialenen onarpena halakoa izan zela. Alegia, bertsotan hasi zenean, «Neska honek potroak zauzkak!» zioten bertsozaleek. Ikuspegi maskulinotik onartzen zitzaion emakumeari kalitate maila.

**Amuriza:** Gure belaunaldia ere bide beretik sartu gara, baina beste rol batzuk jokatuz. ‘Petroak’ eduki barik, gure rola gehiago izan da ondoan eduki dugun mutilaren osagarri izatea, sedukzio jokoan sartzea, gozotasunetik kantatzea,



sakontasunetik kantatzea... Ez denok, baina bagaude multzotxo bat hortik sartu garenak.

**Horrek guztiak du zerikusia zalearen gustuekin, eta hor ere bereizketa: bertsolaritzaz zer duten gustukoen galde-tzerakoan, gizonek umorea, hunkiarazteko gaitasuna eta irudimena azpimarratzen dute. Emakumeek hunkitzea eta irudimena, batez ere.**

**Lujanbio:** Plazan nagusi izan den umorea oso umore jakina izan delako: oso umore erantzulea izan da, askotan oso sexuari lotutakoa eta zakar xamarra. Hori izan da gustagarria. Ni, adibidez, horren parte sentitzen naiz, hor hazi eta ikasi dudalako bertsotan eta hor ikasi dudalako bizitzen eta bizi-rauten. Baina, bertsolari gazteagoak etorri ahala, batez ere emakumeak, beste errealitate bat bistaratu da plazan, kodeak eta erreferentziak aldatuz. Baita umorean ere. Ze, emakume batekin bertsotan hastean, inoiz esan gabeko hitz batzuk esaten hasten zara, inoiz atera gabeko mundu erreferentzial bat plazaratzen duzu, eta baita umorea egiteko beste modu bat ere.

Jakina, hori gertatu da emakume bat baino gehiago egon denean plazan. Ez naiz ni horretan aitzindari sentitzen. Hauek [Miren Amurizak eta bere belaunaldiak] ekarri gaituzte errealitate horretara.

**Egaña:** Gure mundua izan denez izan dena, orain atzera begira jarrita, faltan sumatzen ditut kantatu ez ditudan gai mor-do bat. Esaterako: «Andoni, 14 urteko neska bat zara. Zure kuadrillako gainontzekoei hilerokoa etorri zaie eta zuri ez». Gai hori ez didate jarri, ezta burutik pasa ere! Eta probatu nahi nuke nire burua gai horietan, bereziki gazte nintzenean. Errealitatearen zati handi batean ez gara probatu eta trebatu. Ez dugu disfrutatu.

**Lujanbio:** Baina plazak ere ezin zuen orduan gai hori entzun.

**Egaña:** Bai, ados. Baina orain badaukat galera sentsazio hori.

**Amuriza:** Bi aldeak dira inportanteak. Plaza zer dagoen entzuteko prest, alde batetik, eta gu ere entzulea nora eramateko

prest gauden, bestetik. Hala ere, hori nola gertatzen den ulertzeko, bereizketa bat egin behar da libreko saioen eta gai jartzaileekin egiten diren saioen artean.

Gai jartzailea ikuspegia zabaltze aldera dagoenean, eta batez ere gertatzen da hori emakumeak direnean, aukera gehiago dugu emakumezkook zein gizonezkook kokaleku berrietatik kantatzeko. Beste askotan, baina, gai jartzailearen ikuspegia mugatuagoa izaten da bertsolariena baino. Gure ardura ere bada hori lantzea: gai jartzaileekin elkartu behar dugu hori guztia nola bizi dugun azaltzeko. Euskal Herriko eta Bizkaiko azken txapelketetan, esaterako, lanketa handia egin dute beraien aldetik, eta saioetan nabaritu egin da.

Libreko saioetan, aldiz, entzulea entzun nahi duena baino hamar zentimetro aurrerago eraman behar du bertsolariak. Gure konfort eremutik ateratzen gara hori egiterakoan, noski, eta txaloa da gure konfort eremua. Baina, guk ere arriskatu behar dugu apur bat, eta txaloa sakrifikatu.

**Espazioetan ere bada genero bereizketa. Emakumeek nahiago dituzte txapelketak edo bestelako formatuetako bertso saioak. Gizonezkoen erdiek, ordea, maiteago dituzte bazkari-afari giroko bertso-saioak. Emakumeen herenek soilik aukeratzen dituzte halakoak. Aipatutako gustu eta aldaketa horien baitan ere gertatzen da espazio banaketa?**

**Amuriza:** Dena dago lotuta, bai. Bertso-afari edo bazkariak egiteko gutxitan deitzen diete oraindik bi emakumezkori, seinale gizonezkoen espazioak izaten jarraitzen dutela.

**Lujanbio:** Elkarte edo herri-afarietan markatuagoa da soziologia. Txapelketan neutroagoa da. Oraindik ere umore eta bertsokera jakin bat egiten den espazioak dira bertso-afari eta bazkariak. Ez denak, jakina, baina badaude ohitura, modu eta gai jakin batzuk.

**Egaña:** Afaritarako eta janerako garrantzi handia ematen diona seguru asko gizona da. Eta gero, gainera, zure kuadrillako lagunari bertsoa bota eta adarra gogor jotzen badiote...

Oso gizonezkoena da hori. Bertsokera estilo bat gailentzen da giro horietan.

**Horregatik berreskuratuko nuke Oihana Bartraren esaldia: «Bertso munduan estatusa ematen du Aian edo Altzon kantatu izanak, eta ez Bilbon edo Santurtzin. Han baloratzen denez garrantzitsua, baloratzen dena da Altzon eta Aian ondo moldatzen den bertsolari klasea». Beraz, gizonak erosoago sentitzen diren formatu horietan ezartzen da bertsolariaren estatusa? Alegia, bertso-afari estiloko bertsokeran moldatzen denak lortuko du estatusa?**

**Lujanbio:** Bertsolaritzaren tradizioa errepresentatzen duten saioak dira, eta, beraz, gizonezkoen espazioa izan dena errepresentatzen duten espazioak dira. Alegia, ez dira hainbeste gizonak eroso dauden tokiak, baizik eta bertsoa beti izan dena errepresentatzen dute, eta hori gizonena izan denez, gizonak eroso daude. Bertsokera horren katedraltxoak dira, eta oraindik ere esango nuke kano-na markatzen dutela. Noski, ez dira bakarrak. Bilboko Santiago plazakoa ere bada, esan bezala.

**Egaña:** Bilboko Santiago plazakoa ere ez dago Aiako plazatik hain urruti.

«Nire inguruko gizonezkoak ari dira deskolokatu eta kolokatzen saiatzen. Koloka horretan behintzat sentitzen gara, eta hori ona da»  
**Andoni Egaña**

**Ikerketak berak dio publikoko emakumezkoek, oro har, gero eta gehiago konektatzen dutela emakume bertsolariekin. Publikoko gizonezkoek ez. Bertsolari kuttunen hautaketa horren lekuko. Aldaketa hori bortxatzeko, gizon bertsozaleekin ekimen eraldatzaileak egitea proposatzen du ikerketak, adibidez.**

**Egaña:** Nire inguruko gizonezkoak ari dira deskolokatu eta kolokatzen saiatzen. Koloka horretan behintzat sentitzen gara,

eta hori ona da. Nik niretik hitz egin dezaket, noski, eta pertsonalki aberasgarria zait, gauzak planteazten dizkizulako. Esaterako, ni pribilegio tokietatik abiatu naiz, ados, egia, eta ez nintzen kontziente izan esan didaten arte. Baina ni ere pribilegiatueta ez naiz pribilegiatuena izan, nik ere bizi izan dut ertzekotasuna. Horregatik, ertzean sentitu direla kontatzen dituztenean eta zu noizbait ertzean sentitu bazara, segituan ulertzen duzu. Ona da interpelazio hori. Gero hori modu antolatuan egin edo ez... jendartera permeablea denak sentitzen du hori.

**Amuriza:** Nik fokua bertso-eskoletan ipiniko nuke. Gutxieneko batzuk finkatu beharko lirateke, eta hori ez da egiten. Ze, publikoa aldatuko bada, astiro-astiro aldatuko da, eta zenbat eta gizonezko gehiago egon beste diskurtso batzuekin, hobeto. Bertso-eskoletako irakasleek eragin dezakete horretan. Baina hutsunea dago hor.

**Lujanbio:** Urruti xamar ikusten dut aldaketa hori. Egunero koan egiten den dosi txikietako eragin hori errealistagoa zait antolatzea baino. Banan-banakotik, talde txikietatik eta Elkartetik etorriko da aldaketa. Ikusteko dago, gainera, jendea prest ote dagoen horretarako, eta ea ez den desprestigiaturako feminizatu delako, inoiz berdinzaleagoa bada.

Hala ere, ekintza eraldatzailea gertatzen ari dela esango nuke. Ez antolatua, baina gertatzen ari da. Izugarri aldatu da plaza, bere erresistentzia guztiekin. Gogoeta eta autokritika egiten ari gara, elkar kutsatzen, kritikatzeko, probatzen... Gure zortea da etengabe elkarrekin gaudela eta horrek egitea dakar. Ez akaso nahi bezain azkar. Egia da antolatuta azkarrago aurreratuko litzatekeela. Baina ez dakit ere hori nola antolatu beharko litzatekeen.

## ESTEREOTIPOAK, BERTSOLARI 'ESPEZIALISTAK'

**Ikerketako elkarrizketatuetako batek honela dio: «Bertsolari bakoitzak kolore bat dauka eta kolore horretatik**

**ateratzen denean jendeak ez du identifikatzen, jendeak ez du erantzuten». Nekez txalotuko zaitu entzuleak espero ez duena entzuten badu zure ahotik? Nola bizi duzue zuek hori, plaza are gehiago dibertsifikatu den honetan?**

**Lujanbio:** Aho biko labanak dira etiketak. Batetik, jendeak zu deszifra zaitzan eta zuk esaten duzunak indarra izan dezan, behar duzu estereotipo bat, rol bat. Jendeak errekonozitu behar zaitu zaletasun batzuekin, estetika batekin, ideologia batekin..., esaten duzunak hortik izango duelako indarra. Beste kontu bat da rol hori itogarri bihurtzen zaizunean. Adibidez, beti ehizari buruz kantatzea eskatzen badizute eta bestelako gaietara buruz ere kantatu nahi baduzu. Gai-jartzailerek eta jendeak bai, baina norberak ere egin behar du bere borroka. Nik hala sentitu nuen, norbere ardura artistikoa eta norbere autoexijentzia kreatiboa dela. Errua ez dela bakarrik bestearena. Ez da erraza, komunikazioa sakrifikatu behar duzulako askotan, eta jendeak ez du apreziatzen, ez zuelako espero. Baina, lanketa egiten baduzu, azkenean jendeak ulertuko du. Nik behintzat horrela bizi izan dut.

**Baina hori egiteko aukera izateko plaza asko egin behar dira eta oso gutxi zarete plaza asko egiten dituzuenak.**

**Lujanbio:** Hori ere egia da. Gehiago kostatuko zaizu, baina egin egin dezakezu. Ze plaza gutxi izateak ere esan nahi du zure eskola ez dela hain gogorra. Plaza askotan zabiltzanean estereotipoa ere indartzen baita.

**Egaña:** Bai, inertiak irensten zaituelako. Baina, era berean, aldaketa ariketa hori egiteko plaza maiztasun bat behar da. Bestela oso zaila da.

**Miren, zuk zeuk ere borrokatu duzu gozotasun irudiaren edo alabaren rola kontra, esaterako, *Kontrako eztaarrik* liburuan diozunez. Nola bizi izan duzu hori?**

**Amuriza:** Iristen da momentu bat zeure buruaren kontra errebelatzen zarena: proiektatu nahi duzuna eta proiektatzen

duzuna bat ez datozelako. Baina estereotipo guztiek daukate norberetik zerbait eta horiek ere irakurtzen jakin behar da. Esaterako, ni hain 'gozo' ikusten banaute, zerbaitegatik izango da, ez? Batzuetan zaila izaten da, baina errebisiorako erabili behar dituzu jendearen aurreiritziak. Zer gustatzen zaizun, zer ez, non etiketatu zaituzten, zergatik... Norberak egin behar du bere burua berrasmatzeko ahalegina. Beti ere kontziente izanda bertsolari gutxientzako dagoela espazioa, eta saio batek ere ematen duela ematen duena. Baina, soineko hori txiki geratzen zaizunean, zure lana ere bada muga horiek zabaltzen saiatzea. Esaten duzuketik eta esan nahi duzunera ahalik eta tarte estuena izatea da helburua.

**Egaña:** Printza gehiago gara garena baino. Nik bertso-saio ona egiten dut naizen Andonirik gehienak azaltzen ditudanean. Badago Andoni kabroi bat, Andoni nostalgiko bat, Andoni filosofo bat... Guztiok dauzkagu aurpegi bat baino gehiago. Eta zenbat eta aurpegi gehiago azaldu, saioa hobea izango da, nire ustez. Poliedrotasun hori behar da.

**Lujanbio:** Estereotipoa ere aldatzen da, gainera. Horregatik ez da behin irabazi eta bukatzen den borroka. Jon Maiak beti esaten du bera bertsolari politikoa zela hasieran, gero sentikorra eta poeta, eta orain pailzoa dela. Aspertu ere egiten zara zure buruaz, eta zure buruaren kontra hasten zara. Ukazioa ere bada, ez bakarrik estereotipoarekiko, baita egin nahi duzunarekiko ere. Zerbaiten bila zoaz, eta zenbat eta hurbilago, aspertu eta beste zerbaiten bila zoaz. Horrela etengabe.

**Ikerketako proposamenetako bat ere honakoa da, bereziki gazteei begira:** «Estilokako bertsolariak gehiago edukiko bagenitu, beharbada erreleboa errazagoa litzateke». **Alegia, espezializatutako bertsolariak beharko dira gazteekin bat egiteko?**

**Egaña:** Kontzeptu gisa akaso, baina gero praktikan zenbat olagarro beso eduki genitzake...!

**Lujanbio:** Gainera, gure balio handienetakoa da plaza guztietan nahasian gabiltzala, eta ederra da hori. Gaur Feministaldian kantatuko dut, bihar egun pasako saioetan ibiliko naiz, etzi Bilboko Guggenheimen... Horregatik, erreparo pixka bat ematen dit espezializazioarena entzuteak, aberasgarria ere izan litekeen arren.

**Egaña:** Espezializazioak sentsibilizazioarekin zerikusia baldin badu, bai. Jakintzekin zerikusia baldin badu, ez. Murrerera eramanez, esaterako, ez zait batere interesatzen saio medikoetarako bertsolari espezializatuak izatea.

**Amuriza:** Bat nator, baina errealitatea da gutxiengoa zaretela gaur Guggenheimen eta bihar ermita atarian aritzen zaretanak. Espezializazioarena gehiago lotzen dut publikoaren eta plazaren dibertsifikazioarekin. Horregatik, bertsolariengan baino plazan edo zirkuituetan jarriko nuke fokua espezializazioaz hitz egiterakoan.

**Lujanbio:** Giro ezberdinetako zirkuituak egotea ondo dago, espazio diferente gehiago egongo direlako: ehiza elkarteetako zirkuitua eta Abetxukuko bertso-rap saioa, adibidez. Baina, ez daitezela zirkuitu horietan beti batzuk ibili. Nahastea da inportantea, nahiz eta beti batzuk gehiago egongo diren leku jakin batzuetan besteak baino, eta alderantziz.

«Giro ezberdinetako zirkuituak egotea ondo dago, espazio diferente gehiago egongo direlako. Baina, ez daitezela zirkuitu horietan beti batzuk ibili. Nahastea da inportantea»

**Maialen Lujanbio**

## GAZTEAK BADATOZ, NOLA DA KONTUA

**Gazteak aipatuta, ikerketak bertsolaritza mugimenduaren honako kezka plazaratzen du: zalantza dago ea belaunaldi**

**gazteak bertsolaritzaren proiektu soziokulturalean integratuko diren edo ez. Zuek baduzue kezka hori?**

**Egaña:** Herri ekimenetan erreleboarena da betiko kezketako bat. Baina, Bertsozale Elkartetik egin dugun azken gogoetaldian ikusi denez, badirudi gazteak badatozela.

**Lujanbio:** Bai, ze azken gogoetaldiko bi topaketetan ehundik gora pertsona elkartu ginen asteburu pasa, eta horietatik gehienak gazteak ziren. Horrek izugarritzko argazkia ematen digu: mugimendu bizia da bertsolaritza, jendetsua, belaualdi artekoa eta baita gaztea ere. Errealitate horri heltzen badiogu, itxaropenerako motiboak dauzkagu. Oinarria badaukagu, behintzat.

**Beñat Gaztelumendi bertsolariak ere antzeko argazkia irudikatu zuen, ikerketa aztertzeke Durangoko Azokan egin-dako mahai-inguruan. Orain gazte horiei ardurak eman behar zaizkiela gaineratu zuen. Ados?**

**Egaña:** Gazteei ardura ematearena beti ondo atera da Elkartean.

**Lujanbio:** Nik ere bizi izan dut hori gazte bezala. Elkartea ausera eta eskuzabala izan da horretan. Kanpotik ikara emango luketen erabakiak hartu ditu Elkarreak, eta gazteei eman zaizkie ardurak. Esaterako, Bertso Eguna antolatzearena. Eta ondo funtzionatu izan du. Orain berriz elikatu behar dugu sare hori Elkartean eta lan dinamiketan integratu daitezen. Gero, badakigu egoera zein den sozialki. Militantzia ez dago bere onenean...

**Egaña:** Herri ekimeneko beste hainbat talderi gertatzen zaiona gertatzen zaigu guri ere. Orain arte ondo funtzionatu du aurrezki kutxa batean lan egin eta arratsaldean guretzat lan egin duen pertsonaren figurak. Baina hori aldatu da. 1980ko hamarkadan lana sakratua zen, eta aisi tarteak ez ziren existitzen. Orain aisia sakralizatu dugu, eta ea zein joaten den Bertsozale Elkartera orduak eta orduak sartzera. Baina, hala ere, etortzen da jendea.



**Aisiaren sakralizazioaz gain, gazteak gero eta prekarioago daude, militantziarako denbora eskasarekin. Boluntarioaren figura hori, ordea, oso inportantea izan da eta da Bertsozale Elkartearentzat. Zer egin, beraz?**

**Lujanbio:** Elkarateak, izango bada, borondatezko jendearen eta mugimenduaren elkartea izan beharko du, mugimendua aurrera eramateko lanean.

Baina, akaso euskalgintzako eta kulturgintzako beste esparru batzuk ez bezala, baikor izateko moduan gaude. Bertso-laritzea espero ez zen lekuan baitago, jendetsua da, eta jende gaztearentzat mundu eta proiektu erakargarria da. Guk ere jokia zabaldu eta jende horrek parte har dezan saiatu behar dugu.

**Amuriza:** Elkaratean oraindik gutxiago izango dira, behar-bada. Baina bertsoaren mugimendua osotasunean hartuta, gazte jendea badabil. Horretan baikorra naiz. Gainera, bertso udalekuak horretarako klabea izan direla uste dut. Azken urteotan hortik pasatu diren belaunaldiak oso kohesionatuta datoz eta Euskal Herri osoko kidez osatuak dira. Elkarateak gaztetxoekin eginiko saretze lanak emango du berea.

## ETORKIZUNA, ZAHARTUZ ETA BERRITUZ

**Bertsolari moduan plazan nola zahartu ere bada *Kontrako ezta* liburuan plazaratzen den beste kezketako bat. Are gehiago emakume bertsolarien kasuan. Zahartzaroa desprestigiatuta dagoelako. Nola ikusten duzue zuen bu-rua etorkizunean?**

**Egaña:** Edadeko gizon bertsolariak ikusi ditugu plazan, baina hori ere aldatzen ari da, bertso-eskolen onura nabarmena delako. Piramidearen oinarria zenbat eta zabalagoa izan, erpina lehenago bukatzen baita. Euskal Herriko Txapelketa Nagusietan, adibidez, apenas dago 45 urtetik gorako bertsolaririk.

### **Baina, era berean, azken urteetako zaharrenetako izan da finala, batezbestekoari begira.**

**Egaña:** Bai finalean eta baita finalerdietan ere, gora doa bertsolarien batez besteko adina. Inoiz baino zaharragoak dira. Belaunaldi oso bat dagoelako hurrengo belaunaldia 'oztopatzen'. Egun ez dugu ikusiko 19 urteko bat final batean, esaterako. Eta lehen hala zen. 1986ko txapelketan Jon Sarasuak 19 urte zituen. 1994ko txapelketan Unai Iturriagak 20 urte, 1997an Maialen Lujanbiok 21 urte, eta 2001ekoan Sustrai Colinak 19 urte. Orain, belaunaldi bakoitzak tapoi handiagoa egiten dio hurrengoari, belaunaldi bakoitzean bertsolari on mordoxka bat dagoelako.

### **Egoera hori onuragarria da ala kaltegarria?**

**Lujanbio:** Pazientzia eduki behar da. Egungo bertsolariak ez dezala pentsa 20 urterekin punta-puntan ibili behar duenik, ze igual bere jarduna interesanteagoa da 30 urterekin 20rekin baino. Lehen gertatzen zena zen arraroa. Ni neu garaia baino lehenago plazaratu nintzela sentitu nuen. Gu oso gazte hasi ginen, Andoniren belaunaldira arte hamar bat urteko zuloa zegoelako. Eta atzo arte aritu gara bertsolari gaztearena egiten.

Akaso egokiena da 20 bat urterekin plazaratu, 30 urterekin txapelketetan puntara iritsi, eta 40rekin goia jotzea, esatera. Nik neuk orain gehiago dut esateko 20 urte nituenean baino. Gu orain gaude interesanteen, inoiz izatekotan.

**Egaña:** Pentsa, Maialen, zu hasi zinuenean nik 30 urte neuzkan.

Baina, atzeratze horrek ere ba-

du prestigioarekin zerikusia, gauza batean zenbat eta errazago abiatzen zarenean, orduan eta zailagoa baita goraino iristen. Gure garaian oso zaila zen abiatzea. Ez zegoen bertso-eskolarik, eta asko gustatu behar zitzaizun bertsotan jarduteko. Hori

«Gaur egun abiatzea  
errazagoa da,  
bertso-eskoletatik  
asko abiatzen dira.

Baina, gehiago direnez,  
zailagoa da gora iristea»

**Andoni Egaña**

bai, gora iristea errazagoa zen, tartean jende gutxi zegoelako. Gaur egun abiatzea errazagoa da, bertso-eskoletatik asko abiatzen dira. Baina, gehiago direnez, zailagoa da gora iristea.

**Amuriza:** Atzeratze hori pausatzea ona da. Bestela, ematen du 20 urterekin lehertu ezean ez duzula bertsotan zereginik. Txapelketetan ere berdin beharko luke. Eta zergatik ez da inor bertsotan hasiko 26-28 urterekin? Abiapuntu berri bat gehiago litzateke, kokapen diferente bat. Hala ere, Maialen, zuen belaunaldiak txapelketa uzten duenean, bat-batean beste zulo bat egongo da.

**Txapelketak utzita, beste plazetan du lekua bertsolariak, noski. Baina adinean gora, ez dago emakume bertsolari edadeturik.**

**Egaña:** Irudikatzeko dago hori. Ez daukagu erreferenterik, emakume bertsolariak izan baditugu ere.

**Amuriza:** Interesantea litzateke emakume horiei galdetzea ea beraiek utzi zuten plaza edo plazak utzi zituen beraiek. Ea hautu bat izan zen edo motibo ezberdinengatik ‘funtzionatzen’ ez zutelako geratu ziren plazatik kanpo. Gaur egun gutako edonork plaza uztea erabakiko balu, seguruenik kolektiboki ere egingo genuke gogoeta zergatiaz. Duela urte batzuk ez dut uste hala izango zenik. Ez legoke gaizki bertsotan ibilitako emakumeei hori galdetu eta plazetara itzultzeko animatzea, bigarren aukera bat ematea, apurka desagertu direlako.

**Eta nola eskaini plaza, eskaini behar bazaie?**

**Egaña:** Jende hori ezagutzen dugu, gure inguruan dabil. Plazan ez, baina Bertsozale Elkartean lanean jarraitzen dute edo saioak antolatzen dituzte. Mugimenduko parte dira. Ariketa hori egin nahi ote duten, hau da, ea baduten gogorik analizatzeko zergatik utzi zuten plaza, hori beste kontu bat da.

**Lujanbio:** Bertsolariaren bizimodua gogorra ere bada, hori ere ez dugu ahaztu behar. Eta erretiratu bazara, beste

bizimodu batera ohitu bazara, bueltatzea zaila da. Baina, igual noizean behin plazan aritzeko aukera izatearekin ados nago.

**Amuriza:** Dena ez da beltz eta zuri. Oso zaila da utzi eta asteburuetakoa martxara bueltatzea. Baina erdibideko aukera asko aurki litezke, bai kopuru aldetik eta bai saio moten aldetik ere. Horregatik behar dugu beste zirkuitu jasangarriago bat.

**Lujanbio:** Nik nire burua imajina dezaket etorkizunean bertsoetan. Egia da nik ez daukadala haurrik, eta akaso beste profil bateko emakume batek, ez dakit zer ordutegirekin eta ez dakit zer esaten..., nekez. Baina, niri bereziki interesgarria egiten zait jarraitzea, diskurtsiboki eta bizipen aldetik. Ze 27 urte daramatzat plazan, eta oso interesantea da ikustea nola aldatuz doan norbere rola: gizon helduekin zegoen neska gaztea izatetik, gizon gazteekin dagoen emakume heldua izatera pasa naiz. Eta neska gazteekin ari den andre gaztea izatera. Horrek aldaketa handia ekartzen du elkarrizketetan eta roletan. Bat-batean nire burua topatzen dut beste tokietan, mutil edo neska gazte bati beste zer edo zer esaten. Beraz, aurrera egin ahala, rol berri pilo bat daukazu deskubritzeko. Nire andre heldutasun kreatiboa ederra izan daiteke.

Gero beste kontua izango da hori nola ikusten den kanpotik, zenbat espaziotan, eta indarrik izango ote dudan nik.

**Egaña:** [kantari] *Neskazahar bat tentatzen hasi naiz lehen-guan...*

**Amuriza / Lujanbio:** Kar, kar...

**Bien bitartean, zuek zahartzen eta bertsolaritzak sendo jarrai dezan, bi jomuga zehaztu ditu ikerketak: gazteen eta feminismoaren artikulazioa; alegia, bi ardatz horien integrazioa beharrezkoa izango da bertsolaritzak aurrera egin dezan.**

**Egaña:** Elkartearen mapa osoa buruan edukitzea ere garrantzitsua izango da. Zortez edo senez, elkarreragina zuen sistema oso bat asmatu genuen. Transmisorako garrantzitsuak dira bertso-eskolak, esaterako, baina era berean zerikusia

dute hedapenarekin, ikerketarekin, sortu genuen enpresarekin... Bertso udalekuak sortu genituenean, beste hainbeste; beste esparru guztietan eragiteko sortu genituen. Eta ikusi da eragina izan baduela. Osotasun horri eusten diogun bitartean, mapa hori buruan garbi eduki eta elkarreragina dutela sinisten badugu, jarraituko dugu.

**Beste behin erakutsi duzuen autoanalisirako eta kritikarako gaitasunak ere lagundu lezake horretan. Ikerketa, horren lekuko. Jarrera hori ez da ohikoena bestelako kultur adierazpideetan.**

**Lujanbio:** Autokritiketan, horretan ez dugu huts egingo!

**Egaña:** Ez, ez! Hiperkritikoak gara!

**Lujanbio:** Ez dut inor gutxietsi nahi eta ez da gure buruari loreak botatzearren, baina, ez dagokigun arren, euskal kulturaren abangoardia garela esango nuke. Bertsolaritzari ez zegokion aitzindari izatea Euskal Herrian. Dimentsioagatik, jardun moduagatik, prestigioagatik... Gaitasun horrek gure osasuna adierazten du, baina baita besteen antolakuntza eza edo ezina ere. Nahiago nuke beste denak ere antolakuntza, gogoeta eta saretze maila horretan baleude. Hobeto joango litzaiguke herri bezala. 🌊

## EGUNEN GURPILEAN

### **99** Kultura

Eskua sartu, eskuari haginka  
Plazaren ubela  
Garaiaren argi-ilunak  
Itziar Ugarte

### **105** Soziolinguistika

Libertimenduaren komunitatea  
Gizarte ordena irauliz  
Eman dezagun umore  
Kokoteroak eta koko-beltzak  
Jaime Altuna

### **111** Glokalia

Haiti  
Ezkerraldea  
Apolitikoak gara, betidanikan...  
Alba Garmendia



## Eskua sartu, eskuari haginka

Arteak Ireki diote eta Mugak Mugatu ateratzen zait. Badira zenbait kontu ulertzen zaila direnak, ados desados sentitzetik aparte. Esaterako, orain, soil-soil eta zuzen-zuzen esanda, zertara etorri da areto eta tabernetako kultur ikuskizunak mugatzearen kontua? Otsailean dekretua onartu zenetik ari da gaia jirabiran, eta abiapuntutik ez dut ulertu zer bilatu nahi duen Araba, Bizkai eta Gipuzkoako gobernuak horrekin teman sartzearekin.

Alertak piztu ditu, eta aretoetako jabeak eta artistak Arteak Ireki plataforman antolatu dira. Urteko hamabi ikuskizuneko muga jarri nahi zuen hasiera batean Eusko Jaur-laritzak, baina dagoeneko egin du atzera, eta gehienezko kopurua ezabatu du. Halere, horiek kontrolpean izan beharra berretsi du. Eta diot, txepelegi agian: non atzeman da baina arazoa? Inon eman da kultur ikuskizunen halako gaindosi, nahasmen bat taberna eta areto txikietan eskua sartzen hasteko?

Gauza jakina da halako espazio batek zenbat biziagotzen duen ingurua, bere txikitasunean zeinen izan daitekeen giltzarri: herritarrak kulturara iristeko bide hurbileneko direlako, hasten ari denak nondik hasi izan dezan, eta argudioen soka luzatzen jarraitu gabe, ondo jakinak diren beste ha maika arrazoi tarteko, baldin eta kultur bizitza oparo baten alde bagaude. Ze, finean, hau beste gurpil zoro bat da, eta baliabidetan aurrien direnei ixten zaizkie osterataek. Are, sortzaile bati baino gehiagori entzuten zaion kontua denean hemen eta gaur ez dela beti aski plaza topatzen.

Espazio horien jarduera librea defendatzea baino harago, kultur politikaren eztabaida egon daiteke sakonean: noraino sartu eskuak eta zertarako. Ez al da, oro har, gehiago eztabaidatu beharko genukeen zerbait? Kanpaina egunetan sartuta gauden honetan, ez da gutxiegi entzuten *kultura* hitza bera?

Aurrekoan aipatu ez nuen baina urte hasieran azaleratu zen gai bat gatzetxeena izan zen; gatzetxeek, kultur plaza modura, historikoki izan duten eta aurrerantzean izan dezaketen zeresana –bada dioenik kultur eskaintzan ardatzu diren espazioek gatzetxe izateari utzi diotela, eta seguru badituzue adibide batzuk buruan: Gernikako Astra eta Tolosako Bonberenea, adibidez–. Gaiaz ari ginenean, Iruñeko Maravillas egunkari azaletan, Terry Eagletonen ondorengo esanari egin zion tira Xabier Gantzarainek, ‘Jaten eman’ artikuluan (*Berria*, 2019-01-13): «Kulturaren egitekoa jaten ematen dion eskuari haginka egitea da».

Esaten zuen euskaldunok ohituta gaudela, ohituegi agian, entzutera kultura dela jaten ematen zaion hori, industriari edo turismoari jaten emango ez balitzaio bezala. Zein garrantzi aitortzen diogun bakoitzari, hori da kontua. Pisu gehiegi du botereak arinegi hitz egiteko, baina jakin nahiko nuke nola aldatuko lirakekeen gauzak kulturgileei botere gehiago delegatuko balitzaie, hitzaren zentzurik berdinzaleenean. Zeren eskuak sartu behar dira, baina ez mugak estutzeko. Horregatik bihurtzen da, besteak beste, kulturaren egitekoa –artearena, esango luke Gantzarainek– «harrika egitea hagin-ka egiten dion hagintari saldoari». Horretaz guztiaz gehiago hitz egitera ohituak behar genuke, diot, dekretu despropor-tzionatuei erreakzioz erantzutera itxaron gabe.

Aipatu dugu, hauteskunde garaian gaude, eta hari-harira ez badator ere, ekartzeko modukoa da beste hau, zergatik ez, inork apuntatu nahiko balu: Parisko Udalak 250.000 euroko diru-laguntza emango die liburu-denda independenteei, horiek hirian mantendu eta berrien irekiera sustatzeko.

Poz txiki bat, dena mamu den garaiotan.



## Plazaren ubela

Kultur politikaz ari, erakunde publikoetatik kanpo egiten den lanean ere bada non murgildu. Instituzioek bezala, kultur politika egiten dute kultur plazako gainontzeko agenteek, eta hor ere egosten dira botere harremanak. Horien artean, genero gatazka seinalatu duten bi lan ekarri ditu udaberriak argitara, bi plaza zehatzetara jaitsi dutenak fokua: Uxue Alberdik bertsolaritzarenera, *Kontrako ezta* liburuan; eta Eider Rodriguezek literaturaren eremura, *Idazleen gorputzak* lanean. Susa argialetzeko Lisipe bilduman kaleratu dira biak.

Tresna izan nahi duten liburuak dira, eta «behar genituen» entzun da han-hemen. Plazako genero diferentzia zertan zertzen den ikusarazi nahi dute, zertaz ari garen gaur oraindik jardun publikoa emakumeentzat bortitzagoa dela esaten dugunean. 15 emakume bertsolariren testigantzak bildu ondoren, 22 mekanismo identifikatu ditu Alberdik. Esaterako, gizonen «kidetzat», ez-emakumetzat hartuak izatea; itxuragatik epaituak izatea; merezimendu faltaren epaia eta hari lotutako autoexijentzia suntsitzailea; desexualizazioa zein hipersexualizazioa; umore azpiratua; gutxiespena; desautorizazioa eta marasma horretan falta direnak.

Berdin-berdin funtzionatzen dute askok literaturaren esparruan; ez dira alferrik izan tradizionalki maskulinoztat jotako eremuak. Baina, hala eta guztiz ere, bertsolaritzatik eta literaturatik harago doazen azpiratze bideak dira denak, biolentziari berbak jarri eta desnaturalizatu egiten dutenak. Funtsean, ahots autorizatua norena den eta hura nola erakitzen den gogoeta egitea bilatzen dute, horrek dakartzan eztabaida hari eta ardurak hartu behar guztiekin. Hona azpimarra batzuk; Alberdiren lumatik aurrena:

- [Mary] Bearden hitzetan, «tradizionalki maskulinoztat jotako territorioetan sartuz gero, ez du axola emakume gisa hartzen duzun jarrera zein den», automatikoki aktibatuko dira mugatze mekanismoak. Hori dela eta dabil-tza emakume publiko asko *emakume* hitza «mandeulia

bailitzan» uxatu nahian, ez ditzaten saldo subordinatura murriztu, Woolf amorratu bainoago nahi luketelako izan Shakespeare puru.

- Menosten gaituen kategorizazioa askapen eremu bilakatzera dator feminismoa. Identitate subalternoa identitate eraldatzaile bilakatzera. *Txokokeria, tranpa, erosokeria* eta, are, *pribilegioa* egotziko dizkiote kolektiboki antolatzten eta askatzen saiatzen denari.
- Autoafirmazio ariketa kolektiboak martxan dauden arren, azpimarratzekoa da emakume bertsolarientzat bertso-kide kanonikoen (gizonak, ia denak) aprobazio premiak duen pisu nabarmena ere. Haien iritziek, aitortzak edo gaitzespenak (zeharkakoa izaten da maiz, kideei buruzko iruzkinen bidezkoa) eragin zuzena dute elkarrizketaturiko bertsolarien autoestimuan, autopertzepzioan eta errendimenduan.

Rodriguez ondotik:

- Eszenara sartzea baldin bada idaztea, ia denak sartu dira gizonaekoren batek lagunduta [Urretabizkaia, Mintegi, Meabe, Jaio eta Alberdi elkarrizketatu ditu]. Aita pontekotza hori gabe idazle batzuen lanak bidean geldituko ziren, agian, eta beste batzuk ez ziren inoiz idazle izango, ez behintzat egile edo autore. Alta, aita pontekotzak ere sor ditzake loturak, zorrak, menpekotasunak, hierarkia faltsuak.
- Postura [literarioaren] bidez existi daiteke bakarrik pertsona bat idazle moduan, eta, hala, idazle orok bere egile irudiaren inguruan duen pertzepzioak baldintzatuta sortuko du berea.
- Esparru androzentrikoaren garroek ez diete emakumezko idazleei soilik erasango, baizik eta baita, eta bereziki, gorputz horien luzapena diren testuei ere.

Datuak ere badira, inolako maniobra tranpatitarako marjinarik gabe, eztabaidatu ezinekoak diren horiek. *Idazleen gorputzak* lanak jasotzen duenez, 1975-2005 artean euskarazko prentsan egindako kritiketatik %10 egin dute emakumeek;

215 dira emakumeen liburuen gainekoak, eta 2.026 gizonenak; euskal historiografia literarioan ageri diren 261 egileetatik 6 dira emakumezkoak. Alberdik ere ematen du datu gogoangarri bat: kopuruz, emakume bertsolariak %25 dira egun, eta beste hainbeste okupatzen dute plazan, %25. Alegia, sistemak sor dezakeen ilusio patriarkaletik urrun, direnak daude eta daudenak dira.

Gutxiengoa izan eta gutxiengoan egon. Plazak badu hor zor bat, ubeldura iraunkor bat. Eta zor du, gutxienean, horientzat ere, denentzat, baldintza bizigarriak sortzea.

Bien bitartean, bertsolari emakumeek sortu dute aliantza, kolektiboaren babes. Idazleen kasuan ez, ez halako neurrian. Jardunak oso ezberdinak dira, bistan da, baina hor dago aspaldiko irakasgaia: kolektiboki antolatu behar du askatu nahi duenak. Ifrentzuan, behar baino nabarmen gutxiagotan aipatzen den elementu bat ikusten ari naiz nonahi bi liburuak irakurri ostean, jakin arren ez dela ezer berria: anaidea, gizonen arteko aliantza, tradizio luzeko babes eta konplizitate sare hori. Kultur mundura begira, nago inon idatzi gabeko hori dela dagoenik eta politika irmoenetako bat.

## Garaiaren argi-ilunak

Kultur gauekotasunari gordetako lerroak dira hauek, eta bukatu aurretik eman nahi ditut azken asteetako beste zertzelada gutxi batzuk, beren argi-ilunekin. Bat, fikzio propiorik gabe jarraitzen dugun bitartean, HBOK ekoitzitako *Patria* telesaila hasi direla grabatzen Donostian eta inguruan, Fernando Aranbururen nobela oinarri. Taldean dira zenbait euskal aktore (Eneko Sagardoi, Jose Ramon Soroiz, Iñigo Aranbarri, Ane Gabarain, Elena Irueta...), eta hain urri duten hori eman die: lana. Poztekoa da alde horretatik, baina poz mindua, ezin uka.

Bigarren, Debako Arte Eskolaren itxiera. 1969an Oteizak abiatu zuen hura, 1983tik aurrera oso bestelako proiektua

izan da, artisau profesionalak formatzeko gune bat. Artea bizitzeko modu jakin baten aterpe ere izan da, eta ekainetik itxita dago. Haren geroaz pentsatzeko lehen jardunaldiak egin berri dituzte, eta oraingoz hala eutsi nahi dute proiektua bizirik. Hasiera batean irudi lezakeena baino mami gehiago du Juan Luis Baroja Collet artista eta urte luzez bertan irakasle izan denak dioenak: oso zaila dela inor halako eskola batera animatzea, tituluen eta masterren garaiotan.

Eta hirugarrena eta azkena, Bilboko Loraldia. Bosgarren urtez, jaialdiak lan eskerga egin du hirian euskal kulturari oasia eskaintzen: 200 sortzaile, ia hilabeteko egitarauan. Ahal beste arte diziplina barnebildu ditu, gaurko euskal kulturaren argazki bat emanez: Mikel Lertxundiren kale erakusketa, *Munduko Poesia Kaia* emanaldia, Aukeran dantza konpainiaren *Biz Hitza* ikuskizuna, Txakur Gorria kolektiboaren *H-artetik* emanaldia, liburu aurkezpenak, bertso saioak, Hibi Etxebarriaren zein Maite Larbururen kontzertuak, Iratxe Fresnedaren *Lurralde hotzak* filmaren aurkezpena, eta horrela 30 emanaldira arte. Handik oso gertu ez dabilenak galdu ditu, eta oxala zabalduko balira datozen hilabeteetan. 🍷



## Libertimenduaren komunitatea

Otsailaren hasiera, Santibate, neguko festa. Amikuzeko zirtzil gazteak eskean dabilta dantzan eta kantuz. Bertso zahar horietako baten doinua bortueta raino iritsi da bertan bizi diren hartz esloveniarrak esnaraziz. Haitzulotik atera dira, putza egin eta, zero ilunari begira, negu amaiera gertu dagoela nabaritu dute: laster datoz inauteriak. Hiru aste geroago hartzak Donapaleun agertu dira beste hainbat pertsoniarekin batera inauteri giroko libertimenduan parte hartzera. Amikuzeko zirtzilek, bolantek eta musikariek kalea bereganatu dute. Giro argi eta beroa izan dugu eguzki berriaren, udaberriaren, bestaz gozatzerantz joan garenok.

Libertimendua duela hamar urte berreskuratu zuten Amikuzen. Gazteak dira dantzan, antzezpenetan eta kantuan euskara hutsean aritzen diren guztiak. Euskarak plaza bereganatzen du gazteen ahotsen bidez. Baina ez da egun eta gune soil bateko kontua, urrian hasten baitira prestaketa lanekin. *Topatu.eus*-en jaso dituzte aurtengo partaideen hitzak, eta antolaketa prozesu osoak euskaraz bizitzeko aukera on bat ematen diela adierazi dute. *Dantzan.eus*-en iaz egindako erreportaje batean, antzera mintzo zen ospakizun horren bultzatzaileetako bat izan den Mattin Irigoien:

Sakabanaturik eta frantses hizkuntzaz gairatutako komunitate lotzeko tresna da libertimendua, funtsezko ideia hizkuntza plazaratzea da. Euskal kulturaren eta hizkuntzaren eszenifikatzea da. Mundu elebidun eta frantsesaren baitan, hitza hartu eta ahalduz efektuan indarra ikusten diogu libertimenduari. Euskara ikasi dutenentzako, hizkuntza bizitzeko aukera eta espazioa sortzen da.

Komunitatea lotzeko tresna dela aipatzen du Irigoienek Amikuzeko hizkuntza-komunitateari erreferentzia eginez. Baina prestaketa lana eta espazio publikoan egiten den eszenifikazioa praktika-komunitate zehatz baten bidez egiten da: dantza, kantua eta antzerkia atondu eta plazaratzen duen gazteez osatutako komunitate bat. Talde horren barruan sortzen diren (hizkuntza) praktikek berebiziko garrantzia dute, euskara modu kolektiboan eta dinamikoan bizitzeko aukera ematen baitute, hiztunak elkarrekintzan egiten baikara hiztun. Taldean, edo taldeetan, praktika zehatz batzuk konpartituz hiztun bilakatzen gara. Egunerokotasuneko jardun konpartituek hizkuntza-praktikak baldintzatzen dituzte mota bateko edo besteko hiztun bihurtuz, eta baita praktika bakoitzeko hiztun mota bat eratuz ere. Taldean garatzen diren praktikek edo jardunek garrantzi handia dute hizkuntzen bizitza sozial eta kulturalen, eta hori da praktika-komunitatearen kontzeptuaren oinarrian dagoen proposamena.

Penelope Eckert hizkuntzalariak honela definitu izan du praktika-komunitatea: «Modu jarraian ahalegin komun batean parte hartzen duen pertsona multzo bat da». Taldeki-deek jarduera bat elkarrekin garatzen dute, gune eta une zehatz batean interes komun bat dutelako; praktika-komunitateak, beraz, norbanako batzuk amankomunean duten egoera baten aurrean sortzen dira: nerabe talde bat gustukoa duen rap musika entzuteko eta abesteko, gizon-emakume multzo bat mutxikoak dantzatzeko, gazte batzuk herriko kiroldegian saskibaloian aritzeko edo hainbat neska-mutil libertimendua prestatzeko.

Talde horiek guztiek jarduera bat elkarrekin garatuko dute, gune eta une zehatz batean interes komun bat dutelako, eta elkarrekintza horretatik sortuko dira praktikak: gauzak egiteko moduak, sinesmenak, balioak, botere harremanak eta baita hitz egiteko moduak ere. Jone Miren Hernandez antropologoak idatzi izan duen moduan, praktika-komunitatearen baitako elkarrekintzan sortzen dira hizkuntza-praktika

batzuk, talde horietan hizkuntza ez baita elementu aske eta isolatu bat: hizkuntzak jarduerarekin bat egiten du eta gizarte egiturarekin jartzen da harremanetan.

Libertimenduan ere euskarak jarduerarekin bat egiten du eta, era berean, euskaraz bizi nahi duen hizkuntza-komunitate zabalarekin harremanetan jartzen da. Donapaleuko bazkarian izan dugun solasaldian hala baieztatu digute festa hori barrutik ezagutzen dutenek. Asteburuetakoko prestaketa lanetan euskarak eta jarduerak (dantza, kantua, antzezpena...) bat egiten dute protagonistak diren Amikuzeko gazte multzo horretan, eta besta egun nagusian gainontzeko herritarrekin lotura birsortu egiten da: bazkariaz arduratzen diren ikastolako gurasoekin, Zabalik elkarteko euskaltzaleekin, ikusle diren herritarrekin...

## Gizarte ordena irauliz

Libertimendua Baxenabarren egiten den inauteria da, baina aurtengoan hegoalderantz zabaldu da, lehen aldiz Iruñean antolatu eta egin baitzen Iruinkoko izeneko jaia. *Argia* al-dizkarian Irati Majuelok kontatu zuen Zaldiko Maldiko, Euskaldunon Biltoki, Karrikiri eta Duguna elkarte euskaltzaleen ekimena izan dela, eta Iruñean ere libertimenduaren prestaketan komunitate euskalduna eta, bereziki, gaztea aritu izan da: praktika-komunitate gaztea. Gazte horietako batek, Ihitz Iriart Casenavek, hala zioen *Argia*-n:

Aukera polita izan daiteke aurtengo proposamena, euskara plazara ekarri eta inauteriei beste buelta bat emateko. Izan ere, urteari errepasso satirikoa egiteaz gain, libertimenduak inauterien jatorriari egiten dio keinu: boterea kolokan jarri, mugak zeharkatu, gizartearen ordena irauli. Eta hori, gazteek euskaraz sortua, euskaratik eta euskararendako. Iraultza txiki bat, azken finean.

Iruñean eta Amikuzen komunitate gazte bana euskaraz, euskaratik eta euskararendako aritu da iraultza txiki bat

sortuz. Ahotsaren bidez gizarteari kritika egin diote, plaza erdira ekarri dituzten hitz zorrotzekin jendartearen hainbat gai zalantzan jarriz. Donapaleuko plaza dotorea hartu duen zirtzil bihurri, ilun eta basati horietako baten hitzetan: «Manera batez politika egiten dugu egiazki eta gainera bakarrik euskaraz».

Aurtengoan Amikuzeko zirtzilek migratzaileen aurkako politiken gaia ekarri dute plazara, eta eskualdeko kirolaz eta kulturaz aritu dira. Jaka horiak eta agintariak agertu dira. Euskaraldirako *Ahobizi* eta *Belarriprest*-ekin batera *Beharrik-ez* rola proposatu dute, eta Fermin Muguruzak klika abestu du. Zirtzil gazteak belaunaldien arteko harremanari buruz begirada kritikoarekin aritu dira, euskaltzale beteranoak eta politikariak modu irrigarrian antzetzuz. Esloveniako hartzen herri-minak, ardien beldurrak, ekologisten diskurtsoak eta artzainen haserreak hitz bihurtu dituzte, bizikidetz hitza hainbeste errepikatzen dugun garaian esaldi zorrotz batekin laburbilduz: «Elkarbizitza, elkarbizitza... baina nola atera bizitza?».

Plazako eszenifikazioan egitura zehatza errepikatzen da. Zirtzilen antzeppen kritiko horietako bakoitzaren ondoren dantzariak ordena berreskuratzen dute dantza dotore eta ederren bidez. Bolanten eta zirtzilen arteko lehia horren erdian, bertsolariak tarteko papera jokutzen dute. Irigoienek dio libertimenduan bertsolarien papera garrantzitsua dela, hirugarren populazioa irudikatzen dutelako, zirtzilen eta bolanten arteko sintesia:

Bertsolariak elea dute bolantek ez bezala, zirtzilek ere badute elea baina kontrolaezina da. Bertsolariak kontrola dute hitzean, baina badute libertatea ere.

Hitza, hortaz, gizarte ordena iraultzeko, berreskuratzeko eta birdefinitzeko tresna bihurtzen da. Aimar Karrika bertsolariak Donapaleun abestu duen moduan, gazteek «herriarekin hizkuntza eta hizkuntzarekin herria uztartzen jarraitzen dute».



## Eman dezagun umore

Iruinkokoan eta libertimenduan hitzaren bidez jendartea irauli egiten da. Hitz horrek, baina, badu beste ezaugarri nagusi bat: umoretsua da. Iriartek dio umorez egiten den kritika soziala dela, eta antzera mintzo da Amikuzeko gazte bat *Topatu.eus*-en:

Gai horiek umorez ekartzen dute, ulertarazteko zer gertatu den eta beste ikuspuntu bat izaten ahal dela jendea ez dena ausartzen erraten, beraz, kritika bat bezala izan ahal da.

Azken urteetan, umoreari buruzko eztabaidak ohikoak bihurtu zaizkigu, eta Euskal Herrian Uxoa Anduaga soziologoak sakonki landu zuen gaia *Herri barrez: Umore bidezko euskal nazioaren eraketa prozesua* izeneko tesian. Bertan, umorea politikoa dela azaltzen du, eta duela bi urte JAKIN aldizkarian lan horretan oinarritutako hausnarketa interesgarriak utzi zizkigun.

Martxoaren amaieran Anduagak ‘Eman dezagun umore!’ izeneko solasaldian parte hartu zuen Hondarribian Ane Labakarekin batera. Anduagak zioen umorea errealitatearen isla dela, baina, era berean, eraikitzen diren umore diskurtso mota ezberdinek gizarte errealitatea eraikitzen dutela. Labakak bertsolaritzan garatu izan den umoreak aztertu zuen *Bertsolaritzan garatutako umorea(k) aztergai, genero ikuspegitik* izeneko ikerketa-lanean, eta Hondarribian ondorio batzuk azaldu zizkigun. Biek argi ikusten dute umorean kokapena garrantzitsua dela. Labakaren ustez:

Umorea zapaltzea da goitik beherako noranzkoan; behetik gora (edo parez pare) gauzatzean, aldiz, askatzea izan daiteke, erresistentziarako arma.

Eta Anduagaren iritziz:


Umorea ez da zuria, ez dago ezer esaten ez duen umorerik, umoreak beti esaten du zerbait, agian ez modu esplizituan baina bai zeharka. Beti ematen du iritzi bat, beti hartzen du posizio bat.

Inauteriek iritzi eta posizio kritiko umoretsu hori plazara ekartzen laguntzen dute, erritu horietan satira publikoa baimenduago izan ohi delako. Baina bestelako herri ekimenek ere erabili izan ohi dute ironia, irria eta barrea hegemonikoa den boterea zalantzan jartzeko. Umorea emozioa ez ezik gizarte prozesua ere badelako: diskurtsoa transmititzeko tresna eta baita erresistentziarako arma ere. Beharbada, euskalgintzan lanabes hori gehiago erabili beharko genuke modu kolektibo eta publikoan mugak zeharkatzeko, (hizkuntza) ordena iraultzeko eta (hizkuntza) boterea kolokan jartzeko.

## Kokoteroak eta koko-beltzak

Umoreari buruz Anduaga eta Labaka aritu ziren aste eta leku berean, Xanti Zabala *Lexo* bertsolariari omenaldia egin zioten haren bertso errepertorioa gogoratu. Umoretik ironia handiz kantatutako 1989ko *Euskal Herri tropikala* bertsoaren zatitxo bat da ondorengoa:

Euskal Herria ez da oraintxe elbarri  
Hasi da zorionak ematen elkarri  
Klima honek jendea nola ez ekarri?  
Turismo-lur sakratu izango da sarri.  
Karibbean antzeko behar dugu jarri.  
Kokotero artean lehoiaren ehizak.  
Safariak komeni direla deritzat.  
Atsedenleku ona sendatzeko gaitzak.  
Euskal Herrira datoz Mallorca-Ibizak.  
Hemen sartuko dira munduko dibisak.

Hogei urte geroago, *kokotero* askorik ez, baina Iruinkokon aritutako koko-xuri eta koko-beltzek ez dute hotz handirik pasa, negua eta inauteri aroa lehor joan baitzaigu dagoeneko *turismo-lur sakratu* bihurtu zaigun Euskal Herrian. Giro horrek bortuetako hartz esloveniarren herri-mina areagotu du, eta Ptuj hiriko inauteriarekin ametsetan hasi dira. Agian, datorren urteko eguzki berriaren bestarako koko-beltz eta zirtzilekin batera *kurentiak* ere ekar genitzake hartz turista horien zorionerako. 



## Haiti

Kristobal Kolonek Amerika deskubritu zuen lehen bidaiari egin zuen geldialdia Hispaniolan. Baten batek esango du Santa Maria itsasontzi ezaguna bertan lehorreratzeak aurreratsen zuela jada zerbait Haiti izango zenaren historia ilunaz. Konkista, esklabotza, gaixotasun, gosete, tortura, pobrezia eta konta ezin ahala basakeria ezkututzen dira bestela itxura paradisiakoa duen lekuan. Gauzak okertu egin ziren, nonbait, barbaroa kristautzeko asmo oneko misioan.

Sinbolikoki indar handiko lurraldea da, anbiguotasun laino batek estaltzen badu ere. Izan ere, koloniarik aberatsenetakoa izan zen Haiti (frantsesentzat). Estatu Batuen ondotik Ozeano Atlantikoaz bestaldeko kontinentean independentzia aldarrikatu zuen bigarren herrialdea ere izan zen, Latinoamerikako lehena. Herrialde txiroenetako bat da gaur egun. Matxinada eta gerra artean, Karibeko gatazka armaturik odoltsuena tarteko, 1804. urtean deklaratu zen Haitiko independentzia eta 1825ean ezagutu zuen berori Frantziak. Kolonizatutako lurraldeekin gertatu izan den moduan, ordea, ezegonkortasun politiko handiko urteak izan ziren ondorengoak –ehun urte baino gutxiagoan 30 estatu kolpetik gora izan ziren–. Agian hobe izango da deskolonizatu baino *birkolonizatu* egin zituztela esatea, Mendebaldeko herrialdeek Haitiren kontura negozioa egin zuten-eta.

Historiatik istoriorako pauso txikia eman eta ostera mundu ekiboko batekin aurki gaitezke. Edwidge Danticat eleberrigile haitiar-estaturatuarrak idatzi zuen liburu bat, *The Dew Breaker (Ihantz moztailea)*, Duvaliertarren diktadura (1957-1986) testuinguru duena. Elkarri lotutako bederatzi istorio motzetan

kontatzen du Tonton Macoute polizia torturatzaile baten –ihintz moztailearen– biktimen bizitza, gehienetan Haititik kanpo bizi den bigarren belaunaldiaren zaurien edo traumen bidez. Danticatek begirada torturak utzitako arrastoan jartzen du, eta ez hainbeste krimenean bertan (ikusi Aitor Ibarrolaren ‘The Language of Wounds and Scars in Edwidge Danticat’s *The Dew Breaker*’ artikulua). Hala, idatzi gabeko historia bat ageri zaigu, zuzenean nahiz zeharka sufritu duen herri baten traumatetan. Are harrigarriagoa da nola azpimarratzen den, biktimarena bezainbat, borroaren zauria. Bataren eta bestearen arteko desberdintasunak lausotu egiten dira, espero gabeko errebelazioen berri izan ostean ustezko egiak berrinterpretatu beharrean aurkitzen baitira pertsonaiak. Beraiei ere ez zien inork esan, nonbait, haitiar izatea zein nekeza den. Hobe zutela munduko hiritar izatea.

Historiaren bestelako irakurketa egin zuen Susan Buck-Morssek, Hegelen nagusiaren eta esklaboaren dialektikak Haitiko iraultzari asko zor ziola esan baitzuen (*Hegel, Haiti, and Universal History*). Hegelek *Espirituaren fenomenologia* idatzi zuen Haitiko esklaboak beren nagusien kontra altxatu ziren urteetan, esklaboak askatasuna lortu zuen iraultza batean, hain zuzen ere. Nagusiaren eta esklaboaren dialektikan, bata bestearen mendeko da. Lehenak bigarrenaren jarduna behar du nagusi izaten jarrai dezan; eta esklaboa nagusiaren mendeko da, hari men egiten dion neurrian. Horren kontziente egiten denean altxatzen da esklabo, askatasunaren alde bizia emateko adinako konbentzimenduz.

Tousant L’Ouverture esklabo matxinatu bat zen. Bere burua Haitiko gobernari nagusi izendatu zuen eta, hobekuntzak eginagatik, ezarri zituen lan baldintza gogorreatatik matxinada ugari jasan zituen. Frantzian espetxeratu zuten Napoleonen aginduz eta bertan hil zen Haitiren burujabetasun aldarriaren bezperan. Frantziarren kontrako gupidarik gabeko erreprezioarekin hartu zioten txanda Dessalines eta Capois jeneralek eta, behin independentzia ezagututakoan, estatu kolpe bat bestearen atzetik etorri zen Haitin. Esklaboa nagusi.

Batean kale, bestean bale? Koloniarik aberatsena herrialderik pobreen bihurtua; neokolonialismora itxuraldatutako deskolonizazio prozesua; bando banatan 40.000 biktima baino gehiagoren trukeko independentzia; askatasunaren biharamuna: ia hiru hamarkada iraun zituen diktadura. Berdindu daiteke sufrimendua, biktima edo borrero izan? Axola ote du, esklabo edo nagusi?

## Ezkerraldea

Esklabo dela jakitun, nagusiarekiko mendekotasunetik askatu nahi duena (izan) da (fabrikako) langilea. Gurean, 70eko hamarkadan, sozialismoaren erdigune eta iraultza proletarioa gidatuko zuen subjektu izatearen esperantza Ezkerraldean jarri zen. Bazuen behintzat halako aura mitiko bat; «familia onekoak ere fabrikara joaten ziren», pentsa (David Beorleguiren ‘La fábrica como espacio de lucha y de memoria, el caso de Bilbao y la Margen Izquierda (1975-1995)’ artikulutik jasotako testigantzak dira hemen jasotako guztiak). Baina, hamarkada baten buruan, langileen ametsak beren lantokiak bezalaxe erraustu ziren. Walter Benjaminen aingerua Muskiztik Bilborako trenean joango zen orduan, paisaia postindustrial horri begira; fabriken eraispenei, hondakinei, nabe abandonatuei, heroinazaleei, amets eroriei eta ortzimuga grisari.

Beorleguik Ezkerraldean eta Bilbon desindustrializazioak izandako ondorioak aztertu ditu, 1975 eta 1995 artean Bizkaiko industria handietako langile izan zirenei egindako elkarriketa batzuetan oinarrituta. Bertan dio eskualde horretan fabrikak eman ziola esanahia modernitateari; bizimodu bat eraiki zen lantegiekin batera, identitate bat eratu zen langilearen inguruan, borrokarako espazio eta arrazoi zen lantokia. Ze Bizkaiko Labe Garaiak Euskalduna edo La Naval fabrikak baino zerbait gehiago dira memoriarentzat. Elkarrizketatu batek kontatzen du gazte zeneko oroitzapen bat: fabriketako txanda bukatzen zenean langile andana ibiltzen zen hirian,

batera eta bestera, poteoan; ikusgarria omen zen. Orain batera eta bestera dabilzanak aterki batek gidatutako taldeak dira.

70eko hamarkadaren bigarren erdian jo zuen goia langile mugimenduak, CCOO sindikatuaren inguruan batez ere. Aldarrikapen laboral, sozial eta politikoek fabriken bueltan lur hartu zuten bezalaxe ikusi zen iraultza langileak egingo zuela. Eta hala hartu zuen langileak erakargarritasun bat ere, klandestinitatean eta borrokan jarduten zuen subjektua izaki. Garai hartatik ia mende erdi beranduago egindako elkarrizketetan nabaria da nostalgia puntua. Elkartasun, militantzia eta mugimendu handiko urtetzat dauzkate elkarrizketatuek 70eko haiek: «Desberdina zen, baina politagoa zen [...] Han geunden denok, guztion eta guztiaren alde. Ikusgarria zen [...] politagoa, hunkigarriagoa, erromantikoagoa... desberdina zen...».

Iraultza egiten ari ziren konbentzimendu osoz, eta Benjamin aingeruarentzako lekurik ez zegoen. Ez behintzat 80ko hamarkadan porrot sentipena orokortu zen arte. Langabezia %30era igo zen Sestaon, esaterako; Beorleguik aztertzen dituen urteen artean, lanpostu industrialen erdia galdu zen. «Ezer ez... ez inoren laguntzarik, ez etorkizunaren arrastorik ere»; «Gerora okerragoa izan da. Jada ez da protestarik egiten [...] aberats berri bihurtu gara, behiala borrokalari izan ginenok ere bai...», diote beste bi elkarrizketatuk. Fabrikak bizimodu bat sortu zuela esan dugu, eta fabrikak eraistean lekurik gabe geratu zen bizitza hori.

Izan ere, 1983ko uholdeak bezain hondatzaile izan zen lantokien itxiera eta haren osteko eraispena. 1993an hondakinek Bilboko itsasadarraren 3.221.000 metro hartzen zizuten gero (datu hori ere Beorleguiri jaso), Guggenheim efektuari leku egiten hasi beharra zegoen. Atzean geratu ziren «Emaidazu txuleta bat, senarrak Genen [General Electric] lan egiten du-eta» moduko graziak. Hemendik aurrera, langilea geroz eta estigmatizatuagoa eta ahaztuagoa izango da. Oro har ekonomia industriar oinarritzen zen garaian, Ezkerraldearen fabrika zentro eztabaidaekin izan

zen. Kapitalismoaren interesgune bai, baina baita handik askatzeko mugimenduaren eragile ere. Periferia desatsegin egin da, ordea, industriari baino turismoari erreparatzen diogun honetan. Hiria *escape room* bat da, eta hiritarra ihes egiteko ordaintzen duen bezeroa.

## Apolitikoak gara, betidanikan...

Peiremans taldearen *Zer gara gu, nor gara gu, guaytarrak gara gu* abestiak dio hori. A ze paradoxa, Ezkerraldeko ezkertiarrez jardun berri dudanean! Aldiz, entzuten ditugu halakoak. Antikolonialismoak merkatu legeekin tupust egin zuen eta erregairik gabe geratu ziren askatasun haizeak. Fabriketako langileak ere matxinatu ziren, baina, ezer lortu bazuten, bigarren edo hirugarren belaunaldikook dagoeneko ari gara 'pribilegio' haiek galtzen. Zertarako aritu politikaz, erabakiak multinazional txinatar-estatubatuar-errusiarrek hartzen badituzte? Nire lanaz eta nire oporrez, nire ezkontzaz eta nire seme-alabez, nire dietaz, nire etxeaz arduratuko naiz.



Ez pentsa iraganaren urrezko aroa laudatzera natorrenik edo progresuaren deabrua erakutsi nahi dizuedanik. Baina etorkizuna iragana bezain hondagarri izan daitekeela onartzea ez dago soberan ziurrenik. Esklaboaren azken matxinada iragartzten duen profeziarik ere ez nuke nahi. Baina historia egunero erabaki txikietan zizelkatzen dugula ere jakin dezagun.

Egin-eginean axola baitu esklabo edo nagusi, borrarero edo biktima, langile edo enpresaburu. Baten batek esango du batetik besterako desberdintasunak geroz eta lausoagoak direla gaur: estu bizi diren enpresariak eta luxuz inguratuta bizi diren langileak daude, erruak eta damuak barrena jaten dieten ihintz moztailak, mirabe izatearen truke ardurarik gabe eroso bizi direnak... Haitin ere baziren mulatoak. Plantazioei su eman zieten batzuek; beste batzuk lursailen jabe egin ziren; jabe haietako beste batzuek esklaboak libratu zituzten. Desberdintasunek ez zituztela berdindu, horretan da gakoa.


Ez dakit nondik datorren, baina esaera ezaguna da ondoko gainetik hazten den belarra besteen parera berdintzen dela. Ikusgarria da hala ere belar artean nabarmentzen den lore matxinatua. Are miresgarriagoa, arriskuan omen dauden erleak elikatzen dituela dakigunean. Kontua da larrean behi, ahuntz edo konejuren batek jango duela halakoren batean. Nor den belar, lore, abere, erle? Nor aterkia daraman gidari (turistiko), nor artalde, nor hiritar-bezero, esklabo (edo nagusi) matxinatu, grebalari, eskirol... Nor tematzen den apolitiko izan nahian eta nork erantzuten dion saihetsezin zaigun izate politikoari. Zorionez, loreek baino erabakimen handixeagoa daukagu. 🐝



## LAUGARRENEAN AIDANEZ



zugaz/  
art



**Jakin** *•eus*  
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea  
Gudarien etorbidea, 29  
20140 ANDOAIN  
Tel. 943 21 80 92  
jakin@jakin.eus  
www.jakin.eus

